

# **Ikaskuntza-Zerbitzua eta Jarduera Fisiko Inklusiboa**

**Gradu Amaierako Lana**  
**2022**



EGILEA: Elejalde Elcuaz, Itsaso

ZUZENDARIA: Vizcarra Morales, Maria Teresa

## **Laburpena**

Gradu Amaierako Lan honetan Ikaskuntza Zerbitzua metodologiarekin lotura duen esku hartze bat sortu egin da. Jarduera fisiko inklusiboari buruz zerbitzu bat eskaini da entitate bateko hurrei, haien beharrari erantzuteko asmoarekin. Zerbitzua eskaintzeko, elkartearekin kontaktuan jarri izan gara eta haien beharrak azaldu dizkigute. Adostasuna lortu ondoren, jolas kooperatiboetan oinarritutako zerbitzua egitea adostu da, jarduera fisikoa gauzatzeko eta haien arteko harremanak sustatzeko. Inklusioa bermatzen dituzten jarduerak egin dira, ezgaitasunak dituzten 10 hurrekin. Zerbitzuaren diseinua edota plangintza sortu dugu, 7 saio aurrera eramateko. Haietan ikasleekin hainbat helburu lortzea bilatzen da: kooperazioan aritzea, errespetua sustatzea, harreman estua sortzea, elkarbizitza bermatzea... Ikaskuntza Zerbitzua izanik, jarduerak eraman duten pertsonak ere ikaskuntza bat bereganatu dute. Irakaslearen/gidariaren/hezitzailearen papera hartu dugu eta etorkizunean erabilgarria izango diren ezagutzak lortu ditugu: gatazkak nola konpondu, inprobizazio gaitasuna, haurren sentimenduen kudeaketa... Saioetan egin duguna eta gertatu egin den guztia egunerokoetan bildu dira. Ondoren, hasieratik sortu genituen helburuak bete diren ikusteko eta informazioa guztia analitzatzeko. Hainbat emaitza eta ondorio atera dira, zeinetan jolas kooperatiboan bitartez elkarbizitza garatzen den. Ikasleen artean lan egiten dute, errespetua eta onarpena lantzen dute, harreman estuak sortzen dira eta komunikazioa bultzatzen da. Gainera, jarduera horien bitartez gaitasun eta trebetasun motor anitzak landu egiten dira. Bukatzeko, irakasle moduan beste trebetasun batzuk eskuratzen egin dira ikaskuntza zerbitzuaren bitartez. Beraz, metodologiaren helburu nagusia bete dela esan dezakegu, esperientzia polit bat izateaz aparte.

**Hitz gakoak:** Ikaskuntza Zerbitzua, jarduera fisikoa, inklusioa, jolas kooperatiboak, harremanak.

## **Resumen**

En este Trabajo de Fin de Grado se ha creado una intervención relacionada con la metodología Aprendizaje por Servicio. En el cual, se ofrece a los niños y niñas de una asociación un servicio de actividad física inclusiva, con el objetivo de responder a sus necesidades. Para ofrecer el servicio primero se contactó con la asociación y explicaron su necesidad. Después de hablar, se acordó que sería un servicio basado en juegos cooperativos, con los cuales llevarán a cabo la actividad física y fomentarán las relaciones entre ellos. Al mismo tiempo, serán actividades que garanticen la inclusión, ya que son 10 niños y niñas con distintas discapacidades. Se ha creado un diseño y/o planificación para 7

sesiones. En ellas se buscan diferentes objetivos con el alumnado: cooperar, fomentar el respeto, crear una relación estrecha, garantizar la convivencia... Al utilizar la metodología de Aprendizaje por Servicio las personas que han llevado a cabo las actividades también adquieren un aprendizaje. Se asume el papel de profesora/guía/educadora y se obtienen distintos conocimientos que serán útiles en un futuro como educadoras: cómo resolver los conflictos, la capacidad de improvisación, la gestión de los sentimientos de los/as niños/as, etc. Después de cada sesión se recopila la información sobre la clase (cómo ha ido la clase, sentimientos, acontecimientos, discusiones, anécdotas...). Así después, se comparan los resultados con los objetivos que se crearon en un principio. Es decir, se recoge toda la información posible utilizando distintas herramientas y, después, se analiza y compara con los objetivos creados en un principio. Para acabar, se llega a unas conclusiones del servicio, como que a través de los juegos cooperativos se ha desarrollado una buena convivencia. En la cual, los alumnos han trabajado en equipo, se respetan y aceptan, crean vínculos estrechos y se basan en tener comunicación. Además, a través de estas actividades han trabajado las capacidades y habilidades motoras múltiples. Finalmente, se han desarrollado nuevas destrezas como docentes a través de la metodología Aprendizaje por Servicio. Por tanto, podemos decir que este trabajo ha cumplido sus objetivos, además de contar con una bonita experiencia.

**Palabras clave:** Aprendizaje por Servicio, actividad física, inclusión, juegos cooperativos, relaciones.

### **Abstract**

In this Final Degree Project an intervention related to the Service-Learning methodology has been created. In which children from an association are offered an inclusive physical activity service, with the aim of responding to their needs. To offer the service, the association was first contacted and explained their need. After discussion, it was agreed that it would be a service based on cooperative games, with which they would carry out physical activity and foster relationships among themselves. At the same time, it will be activities that guarantee inclusion, since there are 10 children with different disabilities. A design and/or planning for 7 sessions has been created. In them, different objectives are sought with the students: cooperate, promote respect, create a close relationship, ensure coexistence... By using the Service Learning methodology, the people who have carried out the activities also acquire a learning experience. The role of teacher/guide/educator is assumed and different knowledge is obtained that will be useful in the future as educators: how to resolve conflicts, the ability to improvise, the management of the children's feelings, etc . After each session, information about the class is collected (how the class went,

feelings, events, discussions, anecdotes...). Then, the results are compared with the objectives that were created at the beginning. In other words, as much information as possible is collected using different tools and then analyzed and compared with the objectives created at the beginning. Finally, conclusions are drawn from the service, such as that through the cooperative games a good coexistence has been developed. In which, the students have worked as a team, they respect and accept each other, they create close bonds and are based on having communication. In addition, through these activities they have worked on multiple motor skills and abilities. Finally, new teaching skills have been developed through the Service-Learning methodology. Therefore, we can say that this work has fulfilled its objectives, in addition to having a nice experience.

**Key words:** Service-learning, physical activity, inclusion, cooperative games, relationships.

# Aurkibidea

<b>Aurkibidea</b>	<b>4</b>
<b>1. Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>2. Marko teorikoa</b>	<b>6</b>
2.1. Testuingurua	6
2.2. Definizioa	8
2.3. Ezaugarriak	9
2.4. I+Z eta jarduera fisikoa	12
<b>3. Helburuak</b>	<b>16</b>
<b>4. Metodoa</b>	<b>17</b>
4.1. Eszenatokiaren deskribapena	17
4.2. Parte hartzaileak	20
4.3. Prozesu guztiaren kronograma	21
4.4. Prozedura	22
4.5. Informazioa jasotzeko tresnak	25
4.6. Informazioaren bilketa eta analisisia	26
4.7. Katetoria sistema	26
<b>5.Emaitzak</b>	<b>28</b>
<b>6. Ondorioak</b>	<b>43</b>
<b>7. Erreferentziak (bibliografia)</b>	<b>50</b>
<b>Eranskinak</b>	<b>53</b>

## 1. Sarrera

Gasteizen Lehen Hezkuntzako laugarren maila gauzatzen ari den ikaslea naiz, zein *Ikaskuntza Zerbitzua eta jarduera fisiko inklusiboaren* inguruan nire Gradu Amaierako Lana egitea erabaki dudan. Metodologia honen berri izan nuenean asko interesatu zitzaidan eta zerbitzu bat ematearen onureak arreta deitu zidaten. Beraz, elkartearen bila hasi nintzen eta *D-espacio* elkarteak nire atentzioa lortu zuen. Haien testuingurua azalduta eta haien beharra zein zen ezagututa, haiekin zerbitzua egin nahi nuela argi izan nuen.

D-espacio elkartearen ezgaitasunak dituzten haurrek parte hartzen dute. Bertan ekintza eta jarduera anitzak egiten dituzte, esate baterako, antzerkia, matematika, ateraldiak... Haiei buruz hitz egiten, jolasak eta kirolak sustatzen duen ekintzaren bat egitea nahi zutela aipatu zidaten. Elkartearen haurrak askotan gizartearen ekintzetatik baztertuta gelditzen dira eta beste eremu baten beharra daukate. Kirol edota jarduera fisikoaren eremuan berdin gertatzen da eta haien kabuz bilatu behar dute leku bat. Horregatik, haiekin zerbitzua egitea gogoia sortu zitzaidan eta proposamenaren diseinua egitea erabaki nuen.

Haurren arteko harremanari garrantzia izugarria ematen diote haurrek lagun talde bat izateari eta gizartearen integratuta daudela sentiarazteari. Beraz, jolas kooperatiboetan oinarritzea erabaki genuen. Gainera, beste alderdi batzuk kontuan hartu ditut esku hartzea sortzeko: ikasleen ezaugarriak, espazioa, materiala, denbora...

Ikaskuntza Zerbitzu honekin haurrek hainbat ikaskuntza lortzea bilatzen da: kooperazioan lan egitea, errespetua sustatzea, harreman osasuntsuak sortzea, elkarbizitza sustatzea eta abar. Bestaldetik, guk irakasle moduan beste ikaskuntza batzuk bereganatu behar ditugu, esate baterako, etorkizunean irakasle rola izaterakoan baliabide gehiago eskuragarri izatea.

Laburbilduz, lan honetan zehar elkarte bati eskainitako zerbitzu bat azaltzen da. Zeinetan jarduera fisiko inklusiboa lantzen den 10 haurrentzako. Hasieran kontzeptu teoriko batzuk azalduko dira, adibidez, zer da ikaskuntza zerbitzua, inklusioaren garrantzia eta abar. Gero zerbitzuarekin lortu nahi ditugun helburuak. Jarraitzeko erabilitako metodoaren inguruan hitz egiten da. Nortzuk hartzen duten parte, sortutako saioak, erabili ditugun tresnak... agertuko den. Bukatzeko, emaitza batzuk bildu ditugu saioetan zehar lortu dugun informazioarekin eta ondorio batzuetara iritsi gara. Modu honetan, Ikaskuntza Zerbitzuaren onurak ezagutuko ditugu eta zerbitzu honek eman digun ekarpena.

## 2. Marko teorikoa

Atal honetan zehar kontzeptu batzuk argituko dira, ondorengo proposamena hobe ulertzeko asmoz.

### 2.1. Testuingurua

I+Zren inguruan hitz egiterakoan, iritzi anitzak entzun ditzakegu eta historian zehar haren kontzeptua asko aldatu egin da. Gaur egun, Ikaskuntza Zerbitzua metodologia bezala ezagutzen da, non ikaskuntza bat lortzen den zerbitzu bat ematen den bitartean. Zerbitzua izango da gizarte erakunde batek edo pertsona multzo batek duen behar bat asetzea. Mugimendu pedagogiko honetan irakasle zein ikasle anitzek parte hartu dute, eta praktikan jarri da hainbat herrialde, erakunde, kultura, sozietate eta abarretan. Horren ondorioz, I+Z-aren inguruko istorioa, definizioa, ezaugarriak... adosteko zailtasun handiak daude, eragile bakoitzak bere bizipenak eta prozesuak izan dituelako. Beraz, lehenengo eta behin nondik datorren ulertu behar da (Mayor & Granero, 2005).

Hiru etapetan bereizten da I+Z mugimenduaren eboluzioa: aurrekariak eta sorrera (1900-1979), instituzionalizazio (1980-1999) eta internazionalizazioa (2000-) (Mayor & Granero, 2005). Ikaskuntza zerbitzua XX. mendearen hasieran sortu egin zen. 1903. urtean Estatu Batuetako Cincinnati unibertsitatean bere sorrera gauzatu egin zela esaten da. Irakaskuntza kooperatibo mugimendu bat bezala hasi zen, zeinetan lana, zerbitzua eta ikaskuntza batera lan egiten zuten. Metodologia honen oinarritzko ezaugarriak John Dewey-k zehaztu egin zituen 1905. urtean. Momentu horretan, ez da gaur egun erabiltzen ditugun termino berdinekin ezagutzen (Barrios et al., 2012). Aldi berean, beste hezitzaile batzuk haien ekarpenak egin zituzten, esate baterako, Jane Addams (Mayor & Granero, 2005).

Hamarkada bat pasa ondoren, Myle Horton eta Don West *Highlander Research and Education Center* heziketa-gunea sortu zuten. Bestaldetik, komunitateari zerbitzuak emateko inizatiba anitzak sortu egin ziren, eta proiektu ezberdinak aurrera eraman ziren. Adibidez, *Work projects Administration, Peace Corps...*

Metodologiak indar handiagoa hartu zuen mundu-gerren garaian zehar. Garai honetan suntsituta zeuden parkeak, hezkuntza aukerak eskaintzeko... zerbitzu honen alde egin zuten Estatu Batuari laguntzeko. Gainera, VISTA programa sortu egin zen baliabide urriko amerikarrei laguntzeko (Barrios et al., 2012).

Poliki poliki indarra hartzen joan da eta eremu ezberdinetan erabiltzen hasten dira. Hala ere, 1989. urtera arte ez dira ikaskuntza zerbitzuaren praktika onak ezartzen. 1995. urtean haren hazkuntza nabaria zen, interneten haren inguruko informazioa aurkitu ahal

zenuelako. Azkenik, 1996. urtean I+Z terminoa egokitu zitzaion, metodologia definitzeko “ikaskuntza zerbitzua” esaldia erabili eta gero.

Ikaskuntza zerbitzuaren sorreran 4 gertaera nagusi bultzatu ziotela esaten da: Dewey-ren tradizio pedagogikoa eta ikuspegi teorikoa; 1960. hamarkadan mugimendu sozialetara eraman ziguten hezkuntza popularraren esperientzia aintzindariak; administrazio publikoaren mugimenduak komunitateari zerbitzuak emateko eta boluntarioria bultzatzeko; eta, aurreko gertaerak eskoletan eta unibertsitateetan gauzatu izana (Mayor & Granero, 2005).

John Dewey I+Z-ren propulsaileak ikusten da, bere ikuspuntu pedagogikoa ezarri zuelako. Hezkuntza eremuan I+Z-ren garrantzia aldarrikatu zuen (1916), ikaskuntzaren protagonistak esperientzia erreal bat bizi behar dutelako, modu kooperatiboan lan egin eta adin anitzak batera parte hartzea defendatzen zuen. Bestaldetik, William Jamesek (1906) momentuan bizitzen ari ziren testuinguruarengatik I+Z-aren alde egin zuen. Gerrak zirela eta, komunitateari zerbitzu bat ematea defendatzen zuen, boluntaritzan egotea eta armadan bereganatzen zituzten balore batzuk lortzea: kooperazioa, harrotasuna, adorea, gizarteari zerbitzuak ematea... Modu honetan, bere buruarekin pozik zeuden eta gizartearentzako erabilgarriak ziren, armadan sartu gabe (Puig & Palos, 2006).

1980 eta 1990. urteak oso garrantzitsuak izan ziren I+Z-aren instituzionalizazioa lortzeko eta hezkuntza arloan haren printzipioak zehazteko. Gauzatu egin ziren gertaera garrantzitsuenak: ezaugarri kontzeptualen zehaztapena, gobernuaren promozioa, antolakuntza, bilera periodistikoak, ikerketa akademiko-zientifikoak eta instituzionalizazioa. Garai honetan, Sigmon garrantzia handia izan zuen, I+Z-aren 3 printzipio ezartzeagatik, hau da, azalpen teoriko zehatzago bat sortu zion. Haren lanari Furcok jarraipena egin zion, arlo pedagogikoarekin lotura eginez. Eta 1983. urtean National Youth Leadership Council eratu zen (Mayor & Granero, 2005).

Orain arte lortu diren aurre pausoak Estatu Batuetan eman ziren, hala ere, hemendik aurrera internazionalizazioa hasi zen. Beste herrialdeetara I+Z-ren ideiak iristeko, internet-eren baliabideak ezinbestekoa izan ziren. Aldi berean, asoziazio internazionalak, kazetaritzako bilera ospakizunak, aldizkari eta egunkarien argitalpenak... asko lagundu zuten haren hedapenean (Mayor & Granero, 2005).

Espanian I+Z nortzuk zabaldu zuten inguruan asko galdetzen da eta bereziki hiru inizatiba izan ziren metodologiari indarra eman ziotenak (Batlle, 2013): *Centre Promotor d'Aprenentatge Servei* Katalunian, Zerbikas fundazioa Euskal Herrian eta Ashoka erakunde internazionala.



## 2.2. Definizioa

Ikaskuntza zerbitzuko proposamena ulertzeko lehenengo bere definizioa jakin beharko dugu. Haren inguruan definizio anitzak aurkitzen dira, denbora gutxi batean zabaldu egin den metodologia delako eta hainbat herrialdetan ezarri egin da. Gainera, jarduera edo esperientzia ezberdin asko barne hartzen ditu. Bakarrik I+Z-aren izendapenean ezberdintasunak ikusten ditugu, esate baterako, EEUU-n “Service-Learning” deitzen dute, Mexikon “Servicio Social”, Costa Rican “Trabajo Comunal”... (CLAYSS, 2002).

Herrialdearen arabera ulertzeko eta definitzeko modu anitzak aurkitzen ditugu baina baita autoreen arabera ere. Horregatik ikaskuntza zerbitzua azaltzeko erabili diren definizio ezberdinak aztertuko ditugu:

*Aprentatze Servei* (2019) dio Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza-proposamen bat dela, ikaskuntza-prozesuak eta komunitateari zerbitzua emateko prozesuak ondo artikulatutako proiektu bakar batean nahasten dituen. Proiektu horretan, parte-hartzaileak inguruan dauden premien gainean lan egitean trebatzen dira, hura hobetzeko helburuarekin. Hau da, komunitateari zerbitzu bat ematea eta aldi berean eduki, konpetentzia, gaitasun edo baloreen ikaskuntza integratzen dituen jarduera konplexua da.

M.N. Tapia (2005, p.122) Ikaskuntza Zerbitzua modu honetan definitzen du: *“el Aprendizaje-Servicio se define como una práctica de servicio solidario protagonizada por los estudiantes, destinada a cubrir necesidades reales de una comunidad, planificada en forma integrada con el currículo, en función de mejorar la calidad de los aprendizajes”*.

Ikaskuntza zerbitzua komunitate bati zerbitzu bat ematea eta ikaskuntza prozesu egotea integratzen duen aktibitate konplexua da. Proposamen berritzailea da eta aldi berean elementu ezagunetan oinarritzen da, hau da, komunitate bati modu boluntarioan zerbitzu bat ematea eta ezagutzen, gaitasunen eta baloreen ikaskuntza. Berrikuntza ez datza ikaskuntza zerbitzua osatzen duten zatietan, baizik eta zerbitzuak eta ikaskuntzak jarduera artikulatu, koordinatu eta koherente bakarrean duten lotura estuan (Puig et al., 2006).

Martínez- Odríak (2007) esaten du *“El APS es un método de enseñanza que enfatiza tanto el aprendizaje académico que se desarrolla en el aula, como la realización de un servicio voluntario a favor de las necesidades detectadas en la comunidad próxima”*.

Stanton-ek (1990) dio: *“El APS es una forma de aprendizaje experiencial, una expresión de valores –servicio a los demás– que determina el objetivo, la naturaleza y el proceso de un intercambio social y educativo entre los estudiantes y las personas a las que*

*ellos sirven, y entre los programas de educación y las organizaciones comunitarias con las que ellos trabajan”.*

Definitzeko hainbat modu ikusi ditugu eta pertsona bakoitzak hiztegi bat edo beste bat erabiltzen du, hala ere, azken finean gauza berdina esaten digute. Laburbilduz, ikaskuntza zerbitzuan komunitate bati zerbitzu bat eskaintzen diogu bere beharra asetzeko, eta horrekin batera ikaskuntza bat bereganatzen dugu. Beraz, komunitate bati laguntzen diogu, ezagutza berriak ikasten ditugu, gaitasun anitzak bereganatzen ditugu eta esperientzia berri bat bizitzen dugu.


### 2.3. Ezaugarriak

Hezkuntza eremuan ikasleak dimentsio guztietan hezitzen saiatu behar gara. Ikasle aktiboak, trebeak, solidarioak eta osatuak hezitzea bilatu behar dugu. Ezaugarri guzti hauek lortzeko biderik eraginkorrak eta esanguratsuenak gauzak praktikan jartzea da, hau da, errealitatean (gizartean) haien ideiak aurrera eramatea. Adibidez, pertsonak gizarte batean integratu nahi baldin baditugu, hiritar moduan jokatu beharko dute eta bertan ezagutza lortu. Ikaskuntza Zerbitzuan ikaskuntza modu honetan bereganatzen da, komunitate bati bere beharrak asetzeko zerbitzu bat emanez (Batlle, 2013).

Aipatu beharra dago I+Z-a metodologia pedagogiko bat dela, horregatik bere helburu nagusia ikasleak kalitatezko eta anitzak diren ikaskuntzak bereganatzea da. Metodologia honen bitartez, deskubritzen, analizatzen eta egoera errealetan kontzeptuak ulertzen ezagutza lortzen da. Gainera, metodologia honekin gizartearekin konprometituta dauden hiritarrak hezitzen dituzte (Ramírez & Pizarro, 2005).

Howard-ek hiru elementu nagusi nabarmentzen ditu bereziki Ikaskuntza Zerbitzutik (Irudia 2): ikaskuntza esanguratsua, kalitatezko zerbitzua eta ikaskuntza sozial eta zibikoa (Ramírez & Pizarro, 2005).

*Irudi 2: I+Z-aren 3 elementuak*



Iturria: Howard-eren modeloa, 2001(Ohio University)

CLAYSS-ek mundu mailan I+Z-a bultzatu zuen, Roser-Batlle Espainia mailan, eta Zerbikas, Euskal Herrian. Haien ikaskuntza zerbitzuen artean ezberdintasunak ikusi daitezke baina guztien iritziz ezaugarri hauek bete behar dira I+Z on bat eskaintzeko (Morales, 2020):

Irudia 1: I+Z-aren oinarritzko ezaugarriak



Iturria: Norberak eginikoa

- *Solidaritate intentzioa*: hezkuntzaren eremuan eta kalitatezko ikaskuntza lortzeko, boluntariotzaren elementua oso aberasgarria izan daiteke eta I+Z-an oinarrizko elementu bat.
- *Zerbitzu eta ikaskuntza esanguratsuak*: haien inguruko behar batean zerbitzu bat ematen ari dutenez, bereganatzen dituzten ezagutzak askoz aberasgarriagoak dira eta erabilgarriagoak. Proiektua haien errealitatearekin lotura duenez, motibatuagoak lan egiten dute.
- *Lan kooperatiboa*: komunitate bati zerbitzu bat emateko lan kooperatiboan egon behar dira denbora guztian eta haien artean erabaki guztiak hartu. Gainera, komunitatearekin harremanetan daude, beraz, talde lana eta harreman sozialak etengabe landu egiten dira.
- *Ikaslearen rola*: proiektu hauetan ikasleak jarrera aktibo bat izan behar du, lana aurrera eramateko. Gainera, bere inguruan dagoen behar batekin lan egiten ari da. Beraz, motibatutak lan egiten dute eta haien autonomia lantzen da. Bestaldetik, errealitateko behar batekin lan egiten dutenez, hiritar papera indartu egiten da eta autoestimua hobetzen da.
- *Lotura curricularra*: proiektu guztiaren zehar lotura kurrikularra kontuan hartu behar da, eta ikaskuntza bat dagoela ziurtatu behar ditugu. Ikasleek kompetentzia batzuk bereganatu behar dute prozesuan zehar.
- *Aniztasunaren balorazioa*: Ikasle bakoitzaren egoera kontuan hartzen da, beraz, bakoitzaren erritmoak errespetatzen dira, haien gaitasunetara egokitzen diren kompetentziak garatzen saiatzen gara... Ikaskuntza guztiak modu positiboan baloratzen dira.
- *Hausnarketa eta ebaluazioa*: Prozesuan zehar lortu diren kompetentzien inguruan hausnartu egiten da eta ez bakarrik ezagutzen eskuratze inguruan. Gainera, ebaluazioa ez da bakarrik irakaslearen aldetik egiten, proiektuan parte hartu duten pertsona guztiak ebaluatu egiten dute.
- *Filosofia*: I+Z-arekin giza garapena ulertzeko modu bat da, lotura sozialak azaltzeko era bat eta, komunitate zuzenago bat sortzeko eta elkarbizitza hobeko bat izateko.

Beste puntu batzuk kontuan hartu behar ditugu Puig et al.-ren (2007) iritziz ikaskuntza zerbitzua arrakastatsua izateko: ezagutza berriak bereganatzen dituzu eta garapen pertsonala lortzen duzu; ikaslearen aldetik jarrera aktiboa behar da; aktibitateak antolakuntza zehatza behar du; komunitatearen beharrak oinarritzat izan behar ditugu proposamen guztiaren zehar; koordinazioa egon behar da instituzioaren eta zerbitzua jasotzen duen komunitatearen artean; erresponsabilitate zibikoa sustatzen du; zerbitzua curriculum akademikoarekin edo hezkuntza-entitate ez formalekin proposamenekin lotu behar

da; eta, esperientziaren inguruko hausnarketa egiteko denbora antolatzen da (Puig et al., 2007).

Dewey-ren (1916) ikuspuntua kontuan hartuz, ikaskuntza zerbitzuaren ezaugarri garrantzitsu bat esperientzia da, ikasten dena bizitzen egotea, praktikan jartzea. Bere iritziz ezagutza osotasunean ikasteko modua esperientziaren bitartez da. Pedagogia aktibo baten alde egiten du, behaketa eta esperimentazioan oinarritzea, ikaslearen baliabideetan sinistea, errealitatearen behaketaren ondorioz ikaskuntza kritikoa lortzea, ikasleak erabakiak hartzea, aktibitateen aukeraketa aske eta klasean kudeaketa demokraten alde egiten du.

Oinarritzko aspektu batzuk bereizten ditu: teoria eta praktikaren arteko etengabeko hausnarketak daude ahal den hoberen (zerbitzua eta ikaskuntza) egiteko; praktika eduki curricularrak hobe ulertzea ahalbidetzen du; eta azkenik, lortzen den ikaskuntza komunitatearentzat erabilgarria da.

#### 2.4. I+Z eta jarduera fisikoa

Ikaskuntza zerbitzua hezkuntza eremuaren edozein ikasgaiarekin landu dezakegu, beraz, guk heziketa fisiko ikasgaiarekin lotu egin dugu. Ikaskuntza zerbitzua pedagogia esperimentalean oinarritzen den, ikasleen motibazioa pizten duen eta errealitatearekin lotuta dagoen ikaskuntza esanguratsua bultzatzen duen metodologia da. Gainera, metodologiaren bitartez ikasleek modu esanguratsu batean garatzen dituzte konpetentziak hainbat ikerlarien iritziz (Soto et al., 2021). Guzti hau kontuan hartuz, I+Z jarduera fisikoarekin lotzea proposamen egokia iruditzen zait. Bakoitzaren ezaugarriak direla eta, lotzeko erraztasun handiak egon daitezke eta etekin handiak atera daitezke.

Heziketa fisikoa gaitasun motorrak garatzeko ikasgaia da. Ikasleak ikasgaiaren bitartez haien gorputza ulertzea, mugitzea eta errespetatzea bilatzen da. Aldi berean, ikasleak baloreetan eta hiritarrak izateko konpetentzietan hezitzen dira. Horretarako inguru sozial eta kulturalarekin kontaktuan egoten dira (Founaud-Cabeza & Santolaya-del Val, 2021).

Heziketa fisikoa ikasgaiaren ezaugarriak ikusita, apropos bezala ikusten dute I+Z metodologia praktikan jartzeko, bereziki bere alderdi praktikoa eta lantzen diren eduki anitzak direla eta (Pueyo et al., 2019). Bestaldetik, egokia ikusten dute ingurune sozial ezberdinak sortzeko erraztasuna ematen duelako, eta gainera, errealitatean programa bat aurrera eramateko errazagoa izan daiteke. Gure gizartean kirolarekin, jarduera fisikoarekin, osasunarekin... harremana duten zerbitzu asko aurkitu ditzakegu eta ikasleek proiektu horietan parte hartu dezakete modu praktikoa batean.

Jarduera fisikoa I+Z-arekin lotzea hainbat onura ekarri ditzake ikasleengan (García-Rico et al., 2022): ikaskuntza akademiko-kurrikularren lorpena; konpetentziak garatzea; kontzientziazio soziala eta konpetentzia zibikoen garapena; aurreiritzien ezabapena; pentsamendu kritikoa eta hausnarketa gaitasuna garatzea; poztasun pertsonala; erresposabilitatearen eta motibazioaren hazkuntza ikaskuntza prozesuan; ikaslearen identitatea garatzea; eta, lan karga eta zailtasun mailaren handipena.

Proposamen honetan, jarduera fisikoa landuko da eta zehazki ikaskuntza kooperatiboa. Hau da, kooperazioan lan egingo dugu, hainbat erronka, jolas eta jarduera eginez. Helburu komun bat lortzeko taldean lan egiten dugunean kooperazioan lan egiten ari garela esaten dugu. Kooperazioan lan egiten dugunean, norberarentzat eta taldekideentzat onuragarriak diren emaitzak bilatzen ditugu, guztiak ikastea eta ezagutza batzuk eskuratzea bilatzen da (Johnson et al., 1999).

Ikaskuntza kooperatiboan ikasleek talde txikietan lan egiten dute, non arazo bati konponbidea bilatzen zaion edo erronka bat gainditu behar duten eta ezinbestekoa da taldekide guztien parte hartzea (Velázquez, 2013). Gaur egun irakaskuntza-ikaskuntzarako estrategia garrantzitsu bat da, arrakasta akademikoa, soziala eta afektiboa sustatzen dituelako.

Ikasleek lan kooperatiboa modu eraginkorrean aurrera eramateko Velázquez et al. (2014) bost ezaugarri izan/garatu beharko dituztela esaten dute: interdependentzia positiboa, interakzio eragilea, banakako erresposabilitatea, gaitasun interpertsonalak zein taldeko gaitasunak, eta azkenik, prozesuan zehar lagungarriak eta oztopatzailak izan diren portaerak identifikatzen jakitea, hau da, autoebaluazioa.

Beraz, ikaskuntza kooperatiboa jarduera fisikoan ezartzea hainbat onura ekarriko dizkigu: trebetasun motorra sustatu gaitasun sozialak garatu, ikasleen arteko harremanak hobetu, ezgaitasunak dituzten haurren inklusioa bultzatu, ikasleen autokontzeptua eta fisikoa hobetu eta ikasleak praktika motorra motibatu (Velázquez et al., 2014).

Ondoren azaltzen dugun bezala, bereziki jolas kooperatiboak erabili ditugu saioetan zehar. Jolasak pertsonen berezko jarduera da, ondo pasatzeko, dibertitzeko, gozatzeko... erabiltzen duguna. Nahi dugulako egiten dugu eta gehienetan jende gehiagorekin. Bere helburu nagusia jolastea da, hau da, momentu on bat pasatzea. Eredu eta denbora batean gauzatzen da, arau batzuekin baina modu aske batean. Jolas mota ezberdinak sortu egin ditugu, helburu, arau, taldekatze...anitzekin.

Jolas kooperatiboetan taldeko guztiek erronka bat gainditu behar dute haien artean lan eginez. Horregatik oso garrantzitsua da besteen egoera kontuan hartzea, entzuten jakite, komunikazioa egotea, errespetua izatea, kreatibitatea, inizatiba, laguntzeko prest egotea, sormena, inklusioa, autoerregulazioa... Hainbat trebetasun garatzen dira jolas kooperatiboetan. Jolas kooperatiboen ezaugarrietan ezinbestekoak dira kooperazioa, onarpena, parte hartzea eta dibertsioa egotea (Orlick, 2002).

## 2.5. Inklusioa

Gure proposamenean ezgaitasunak dituzten hurrekin lan egingo dugu, beraz, ezinbestekoa da inklusio indartsu bat bultzatzea. Aurrera eraman nahi ditugun jarduerak, ekintzak, saioak... modu eraginkorrean eraman ahal izateko, ikasle bakoitzaren egoera ezagutzea eta hainbat ezaugarri kontuan hartzea.

Hezkuntza eremuan askotan ez da alderdi hau kontzen eta ez da banakako irakaskuntza bat eskaintzen. Klaseetan ikasle kopuru handia egon da, materia zehatzarekin eta ordutegi antolatu batekin. Honen ondorioz, haur guztiak egoera horretara egokitu behar izaten dira, hezkuntza eremua pertsona bakoitzaren egoerara egokitu ordez. Hainbat ondorio negatibo ekartzen ditu egoera honek: ikasle asko desmotibatuta egotea, ikasle batzuk ikasteko ez dutela balio pentsatzea, ikaskuntza porrota egotea, haur batzuk baztertuta gelditzea... Beraz, ikaskuntza inklusiboa egoera honen kontra aldarrikatzen da eta bestelako hezkuntza bat lortu dezakegula goraipatzen du.

Ikaskuntza inklusiboa ikuspuntu berritzaile bat defendatzen du eta hezkuntza eremuan orain arte defendatu diren ideiak zalantzan jartzen ditu. Betidanik klase batean zailtasunak edo ezberdintasunak zituen ikasleak arazo bat bezala ikusten ziren. Hezkuntza inklusiboak ezgaitasunak dituzten ikasleak arazoa ez direla defendatzen du, testuingurua baizik. Ikasle batek daukan ezgaitasuna oso aberasgarria izan daiteke baina testuinguru eta baliabide egokiak eman behar zaizkio (López-Vélez, 2018). Hau da, testuingurua erraztatzailea edo oztopatzailea bihurtu daiteke ikasle baten ikaskuntza prozesuan, beraz, oso garrantzitsua da ikasle bakoitzarentzat testuinguru egokia sortzea.

Inklusio hau lortzeko hainbat ezaugarri izan behar ditu gure ikaskuntza eremuak (López-Vélez, 2018). Lehenengoz, berdintasunean hezi behar da, hau da, ikasle guztiei balio berdina eman behar zaie eta besteek duten garrantzia haiek ere dutela adierazi. Bigarrenik, parte hartzea sustatzea oso garrantzitsua da. Ikasleek modu aktiboan ikasi behar dira eta haien ezagutzak partekatu. Hirugarrena, aniztasunari errespetua erakutsi behar zaio eta besteenganako harreman ona zein justua ezinbestekoa dela azpimarratu. Jarraitzeko, komunitatearen ideia oso garrantzitsua da, haien arteko harremanak ezinbestekoa dira

ikaskuntza bat lortzeko. Askotan lan taldean, kooperazioan, besteak laguntzen... lan egiten dute eta harreman positiboak sortzea lagungarria izaten da. Azkenik, iraunkortasunean ikastea beste ezaugarri garrantzitsu bat da. Ikasleek haien bizitzarako iraunkorrak diren jarrerak eta ohiturak bereganatu behar dituzte, gero bizitza errealean erabili ahal izateko. Gizarte bateko kideak izateko gaitasunak bereganatzea eta haien bizitza modu independente batean bideratzeko baliabideak izatea bilatzen da.

Hezkuntza inklusiboak oinarrizko lau ezaugarri dituela defendatzen du Ainscowek (2003):

- *Inklusioa prozesu bat da*: inklusioa ez da momentu bat, denboran zehar iraun behar du, ez dauka amaierarik. Errealitate berrietara egokitzeko baliabideak eratzen egon behar gara modu konstante batean, aniztasunari erantzuteko asmoz. Ezberdintasunarekin bizitzen ikasi behar dugu eta ezberdintasunetik ikasten ikasi behar dugu.
- *Oztopoak identifikatu eta ezabatu*: informazioa bildu behar da, hainbat iturrietatik eta planifikazio inklusibo bat sortu.
- *Asistentzia, parte hartzea eta ikasleen errendimendu*: asistentziarekin klaseetara joatea eta puntualtasunez iristea esan nahi du; *parte hartzea*, klaseei benetan ateratzen diozun etekina, kalitatezko denbora, iritziak emanez, lagunduz, lan egiten...; eta *errendimendua* prozesuan zehar lortzen dituzten emaitzei egiten dio erreferentzia.
- *Baztertuak, kanporatuak edo gutxieneko errendimendua lortuko ez duten ikasleei atentzio gehiago ipintzen diote*: "arriskuan" dauden talde hauei laguntza eskaintzen diote inklusioak eta besteek dauzkaten aukerak haiek izateko lan egiten dute.

Ezgaitasun anitzak aurkitu ditzazkegu pertsonen artean baina proposamen honetan Down Sindromea gehien nagusitzen dena da. Down sindromea daukaten pertsona guztiak ez daukate ezaugarri berdinak. Egia da, askok patroi batzuk jarraitzen dituztela eta antzekotasun batzuk zehaztu ditzazkegu. Hasteko, haien garapen psikomotorra mantsoagoa izaten da, azkenean berdina izan arren (Fernández, 2012). Kontrol motorrean, gorputz-eskeman, orekan, espazio-denbora pertzepzioan... alterazioak edo gutxipenak egoten dira. Hipotonia muskularra eta lotailu-hiperlaxitatea izaten dute, malgutasun handia izatea eta gorputz atal batzuetan indar falta izatera eramaten dietena.

Zailtasun hauek eta izan ahal dituzten beste batzuk, kontuan hartu behar dira klaseak aurrera eramaterako orduan. Hezkuntza ikasle bakoitzari egokitu behar da eta bere beharrak ezagutu. Hala ere, Olayo, Vázquez eta Alapont-ek (1999) aipatzen dituzten



proposamen batzuk kontuan hartu ditzazkegu gure jolasetan zehar: jarrera naturala eta espontaneoak izan; mantsu hitz egin eta behar duten aldi guztietan errepikatu; pazientzia izatea eta konstantea; haien maila kognitibora egokitzen den hiztegia erabiltzea; askatasuna utzi, independentzia, haien erara egiten esperimintatzea; ez gutxietsi, haien garapenak baloratu eta motibatzen egon; azkenik, errespetu eta laguntza giroa sortu.

### **3. Helburuak**

Gure proposamenean orain arte hitz egin ditugun gaiak kontuan hartuko ditut, hau da, ikaskuntza-zerbitzua, jarduera fisikoa eta inklusioa. Hiru alderdi hauek landuko ditut hainbat helburu eta kompetentzia lortzeko asmoarekin. Helburu hauek bi multzotan bereiztu ditzakegu: zerbitzua jasotzen duten pertsonen begira, eta bestetik, zerbitzua ematen ari den pertsonen begira.

Lehenengo multzoa kontuan hartuta, taldea hainbat gaitasun eta kompetentzia lortzea nahi dut, horregatik gure zerbitzua horiek lortzea bideratuta egongo da. Helburu nagusi bezala jarduera fisiko inklusibo bat izateko aukera ematea izango da. Eta horrekin hainbat helburu lortuko dira, esate baterako, haurren motrizitatea lantzea, oinarrizko trebetasunak bereganatzea, taldean lan egitea, kooperazioan ibiltzea, jolas eta ekintza anitzak ezagutzea, material ezberdinekin jolastea, haurren arteko harremana sendotzea, elkarbizitza sustatzea, haien arteko errespetua egotea, ikasleen parte-hartzea sustatzea, komunitatea sentimendua bultzatzea, ohitura batzuk bereganatzea, talde baten kideak sentitzea eta azkenik, haurrak dibertitzeko eta ondo pasatzeko eremu bat izatea.

Zerbitzua aurrera eramanean dugun pertsonen dagokionez, ikaskuntza pertsonala eta profesionala garatzea helburu nagusi bezala dugu, kompetentzia eta gaitasun batzuk bereganatzen. Zerbitzu erabilgarri eta dibertigarri bat eskaintzea ez dakit zein ezaugarri duten pertsonen gaitasun profesionalak garatzen ditudan bitartean, eta helburu espezifikoak honako hauek izango dira: - saioaren diseinua zein edukiak prestatzen jakitea, - ikasleak ezagutzea, - haurren beharrak identifikatzen ikastea eta nola asetzen jakitea, - saioetan zehar inklusioa bermatzea, - aurrera eramango dudanean proposamena modu autonomoan gauzatzea, - irakaskuntza eremurako ezagutza batzuk ikastea eta baliabide gehiagorekin sentitzea, eta bukatzeko, - egoera eta pertsona bakoitzari moldatzen jakitea.


Helburu guzti hauek kontuan hartuz, gure proposamena diseinatuko dugu eta saioetan zehar gogoan izango ditugu.

## 4. Metodoa

### 4.1. Eszenatokiaren deskribapena

Gure esku-hartzea Iruñean kokatuta dagoen elkarte batean egin dut, zehazki *Av. de la Baja Navarra* kalean. Elkarteak egiten dituen ekintza ezberdinak Iruñeko apaiztegiaren gela batean egiten dituzte. Apaiztegia kale nagusiaren aurrean kokatuta dago, Iruña erditik pasatzen dena, horregatik ez da auzo baten barne kontsideratzen. Mapan ikusten den bezala “ensanche” eremuan kokatuta dago. Kalearen zehar errepide luze bat dago eta ez dago etxebizitzarik bere alboan. Errepidearen ondoan, ibiltzen egoteko kale bat dago, naturaz inguratuta dagoena. Gainera, bere ondoan Mendillorri, Burlata eta Iruñaren erdigunea aurkitzen ditugu, zeinetan jende asko bizi den.

Irudia 3: Iruñako auzoen mapa



Iturria: Diario de Navarra, 2014.

Hautatu dudan gelari dagokionez, tamaina handia daukan eremua uzten diete. Gela horretan hainbat ekintza egiten dituzte eta jarduera anitzak gauzatzeko prestatuta dago. Alde batean, mahai luze bat aurkitzen dugu, zeinetan hainbat eskulan egiteko erabiltzen duten. Gela horretan sofak ere badaude (irudia 4), ez direnak asko erabiltzen. Beste guztia hutsik dago jarduera fisikoa gauzatu ahal izateko. Gela batzuekin konektatuta dago gela nagusia, adibidez, badago gela bat non material guztia (uztailak, baloiak...) erabili dezakegu. Beste gela batean sukalde txiki bat dute, hamaietako hartzeko. Berokia gordetzeko gela txiki bat. Bukatzeko, gela nagusian 2 futbolin dauzkate, ekintzak hasi baino lehen zerbaitetan jolasteko.

Irudia 4: *Gelan dauden sofak*



Iturria: Norberak eginikoa

Irudia 5: *Jardueran egiteko gela*



Iturria: Norberak eginikoa

Irudia 6: *Jardueran egiteko gela*



Iturria: Norberak eginikoa

Irudia 7: *Jardueran egiteko gela*



Iturria: Norberak eginikoa

Esku-hartzea *D-espacio* elkartearekin egitea erabaki nuen. Nire ezagun batek ikastola batean lan egiten duelako eta ikaskuntza inklusiboarekin erlazioa duten proiektu askotan sartuta dagoelako. Berarekin hitz egin nuenean nire esku-hartzea eremu inklusiboa kontuan hartuta gauzatzea interesgarria izan zitekeela aipatu zidan. Beraz, Iruñian zeuden hainbat elkarte bilatzen egon nintzen. Nire ezagunak elkarte batzuekin kontaktuan jartzea gomendatu zidan eta horietako bat *D-espacio* izan zen. Haiekin hitz egiten beraien ideiak eta proiektuak gustatu zitzaidan eta nire proposamena azaldu nien. Beraien aldetik proiektua onartu zuten eta nahi nuenean martxan jartzeko aukera eman zidaten.

*D-espacio* 2016. urtean sortutako elkarte bat da eta hainbat familia sortutakoa da. Haien seme-alabek duten ezgaitasuna dela eta, askotan gizartetik kanpo sentitu dira. Beraz, haien seme-alabek integratutak eta eroso sentitzeko aisialdi eremu bat izateko sortu zuten. Beraien helburu nagusia ezgaitasun ezberdinak dituzten haurrak elkarbizitzen egoteko espazio bat sortzea da, haien artean harreman politak sortzeko, haurrak protagonistak izateko eta gizartearen parte direla sentitzeko.

Bestaldetik, txikitatik elkartean sartzen dira eta haien taldea sortzen dute eta talde baten parte direla ikusten dute. Aldi berean, bakoitzak bere erritmoa jarraitzen du, presarik gabe eta bakoitzaren garapena eta gaitasunak kontuan hartzen.

Elkartearen izena esanahi ezberdinak ditu. "Espacio" espazio/eremu bati egiten dio erreferentzia, eta aldi berean, ezgaitasunak dituzten haurrek sortu duten espazioa polita eta osasuntsuari egiten dio aipamena. "D" hizkia hitz anitzekin lotura egiten diote: "diversidad", "diferencia", "diversión", "discapacidad", "desarrollo", "deporte", "disfrutar"...

Gainera, D eta "espacio" elkartuta mantso joatearen esanahia adierazi nahi dute. Ezgaitasunak dituzten pertsonak haien erritmoa behar dutelako eta mantsoagoa izaten da, beraz, bakoitzaren ikaskuntza erritmoa errespetatzen dela eta aldi berean guztiok batera lan egiten dutela esan nahi du.

Elkarte honetan gurasoen parte hartzea oso aktiboa da. Haiek izan ziren elkartea sortu zutenak eta haien seme-alabentzako espazio bat bilatzen zutenak. Beraz, guraso guztien artean ezagutzen dira eta harremanak oso onak dira. Ekintza batzuetan parte hartzen dute, esate baterako, ateraldi ludiko zein kulturaletan, festetan...

Elkartean ezgaitasunak dituen edozein haurrak parte har dezake, elkartearen bazkidea izan ala ez. Gainera, egiten diren jarduerak ez dute dirulaguntza publikoa

erabiltzen, finantzazioa bazkideak ematen duten laguntzetatik eta hainbat ekitaldietan lortutako irabazietatik aurrera eramaten da.

D-espacio elkarteak hezkuntza-, kirol- eta familia-aktibitateak aurrera eramaten ditu. Nire kasuan, hezkuntza eta kirolarekin harreman duen esku hartzea gauzatzea erabaki nuen. Haurrek zuten beharrak aztertuz eta elkartearekin hitz eginez falta zitzairen ekintza erabaki nuen.

#### 4.2. Parte hartzaileak

Elkarte honetan haur askok parte hartzen dute, eta ekintza/jarduera eskaintza oso zabala da. Horregatik elkarteak hilabetean zehar gauzatuko diren hainbat ekintza argitaratzen ditu eta haur/familia bakoitzak nahi direnetan apuntatzen dira. Beraz, ekintza guztietan ez daude haur berdinak egoten edo kopuru berdina. Gure jarduera proposatu zitzaientean 10 haur parte hartuko zutela esan zuten.

8-14 tarteko adina duten 10 haurrak parte hartu dute ekintzan. Haietako 6 neskak izan dira eta beste 4ak mutilak. Guztiak Iruñean jaioak izan dira eta beti bertan bizi izan dira. Hala ere, bakoitzak Iruñeko eskola batean ikasten ari da, beraz, ezagutzen direnen artean euren harremana elkarte honengatik sortua da. Baina egia da, gehienak ez direla haien artean ezagutzen eta proposamen honekin ezagutuko direla. Batzuk euskara hitz egiten dute haien inguruan (eskolan, familia...) baina beste batzuk ez, errealitate oso ezberdinak baitituzte. Horregatik, ekintza gazteleraz gauzatu da. Aberasgarria izan daiteke giro ezberdineko haurrak euren artean ezagutzea eta haien artean harreman anitzak sortzea.

Gainera, inklusioaren hastapenak kontuan hartuko ditugu, gure haurrak ezgaitasunen bat daukatelako. Klaseko 9 haur Downen sindromea daukate eta klaseko batek autismoa. Egoera honetan, oso garrantzitsua da ikasleak ezagutzea eta bakoitzaren egoera ondo aztertzea, ondoren jarduera era egokian aurrera eramateko.

Ekintza aurrera eramango nuela adostu eta gero, hilabetean bitan ekintza gauzatzea erabaki genuen. 4 hilabete zehar, hau da, 7 larunbata elkartuko ginela adostu genuen (urtarrilean egun bakarra). Behean dagoen argazkian, sortu genuen egutegia ikusi daiteke. Egun bakoitzean ordu bat eta erdi egotea esan zidaten eta ordutegi on bat 10:00-11:30 izan ahal zela adostu genuen. Familiei esaterakoan guztiek ondo iruditzen zitzairen.

Irudia 8: Sortutako I+Z proiektuaren egutegia



Iturria: Norberak eginikoa

### 4.3. Prozesu guztiaren kronograma

Ikaskuntza zerbitzuan ez da bakarrik zerbitzua kontuan hartzen, prozesu luze bat dago eta zerbitzutik kanpo alderdi asko kontuan hartu behar izan ditugu. Beraz, kronograma txiki bat sortu nuen prozesu guztian zehar egin nituen ekintza nagusiekin (taula 1).

Taula 1: Prozesuaren kronograma

NOIZ	ZER	NOLA
Urriak 18	Elkartearekin kontaktuan jarri, nire egoera azaldu eta zerbitzua bertan aurrera eraman nahi dudala adierazi.	Korreoz
Azaroak 16	Elkartearak zerbitzua onartzen du eta elkar hitz egiten hasten gara.	Korreoz
Urtarrilak 22	1. saio praktikoa	Presentziala, elkartearen gunean, 10:00-11:30
Otsailak 12	2. saio praktikoa	Presentziala, elkartearen gunean, 10:00-11:30
Otsailak 26	3. saio praktikoa	Presentziala, elkartearen gunean, 10:00-11:30
Martxoak 5	4. saio praktikoa	Presentziala, elkartearen gunean, 10:00-11:30
Martxoak 26	5. saio praktikoa	Presentziala, elkartearen gunean, 10:00-11:30
Apirilak 2	6. saio praktikoa	Presentziala, elkartearen gunean, 10:00-11:30

Apirilak 30	7. saio praktikoa	Presentziala, elkartearen gunean, 10:00-11:30
Maiatzak 1	Elkarteari eskerrak eman eta zerbitzuari amaiera eman.	Korreoz

#### 4.4. Prozedura

Orain arte ikusi dugu *D-espacio* elkartearen inguruan informazioa bilatu nuela eta ondoren haiekin kontaktuan jarri nintzela. Haien inguruan hitz egin zidaten eta haien beharra ezagutu nuen. Elkartean dauden haurrak sozializatzeko, jolasteko eta bizitza aktibo bat izateko eremu bat sortzea bilatzen zutela, gizartean askotan baztertuta sentitzen direlako haien ezgaitasuna dela eta. Ideia zoragarria iruditu zitzaidan eta haien beharrean laguntzeko motibatuta sentitu nintzen.

Haien familiekin hitz egin ondoren, haurren arteko harremanak sendotzea ezinbestekoa zela ohartu nintzen eta talde/komunitate sentipena lortzea bilatzen zutela. Horregatik **jolas kooperatibo**en bidez ikastea erabaki nuen. Jolas mota hauekin besteen garrantziaz konturatzen dira, besteak laguntzeko prest egon behar dira, taldean lan egiten ikasten dute eta harreman estuagoak sortzen dituzte.

Ondoren, zein hurrekin egongo nintzen informatu nintzen eta haien inguruan informazioa eskatu nuen. Modu honetan, gehien behar zituzten jolasak, taldekatze moduak, materialak... ezagutzea lotuko nuen eta jarduera eraginkorrak sortzen hasi. Honen inguruko informazio guztia biltzeko utzi ziguten taula bat erabili nuen (eranskina I). Bertan, zerbitzuarekin lortu nahi ditugun helburuak antolatzen nituen, esate baterako, haurren artean harreman estua eta osasuntsua sortzea, trebetasun motorrak lantzea, elkarbizitza sustatzea, errespetua bermatzea, denbora dibertigarri bat izatea, jolas kooperatiboetan aritzea...

Jolas kooperatiboak egingo nituela aukeratu eta gero, saioen antolakuntza pentsatu behar nuen eta zein eduki, ezaugarri... izango zituzten. Lehenengo, hurrekin aurkeztea prestatu behar nuen. Beraz, sarreran nire burua aurkeztu behar nuen eta haiekin nituen helburuak, zeregina, proposamenak, gogoak...adierazi. Aldi berean, talde berria zen, beraz, haien artean ezagutzea bilatu behar nuen, jolas kooperatibo ezberdinak eginez.

Zerbitzua martxan zegoenean, helburu ezberdinak lortzea saiatu beharko nintzen, haurrak zituzten beharrak asetzen egon, jarduera ezberdinak egin, saio dinamiko eta dibertigarriak sortu... Gainera, momentuan sortzen ziren gatazkak konpontzeko gaitasuna erakutsi beharko nuen eta saioetan zehar aldaketak egiteko trebetasunak.

Esku hartzeari amaiera emateko, haurrak amaiera iristen zela abisatu behar zitzairen eta ekintzak bukatuko zirela argi utzi. Gainera, azkeneko ebaluazioa egiteko momentua izango zen, haien iritziak adieraziz, modu ezberdinetan haien egoera deskribatu...

Bete nahi genuen guzti hau lortzeko saio bakoitzeko taula bat sortu nuen eta bertan lortu nahi nituen helburuak eta egunero egingo nituen jolasak adierazi nuen. Gainera, saioak aurrera eramane eta gero ebaluatzeko eta behatzeko erabiliko nituen tresnak aukeratu nituen. Modu honetan, egunerokoekin, hainbat baliabideekin, argazkiekin, marrazkiekin, haurren iritziekin... hausnarketa eta ondorio batzuk aterako nituen.

Guzti hau aztertu eta gero, elkarteari zerbitzu bat eman diodala ikusteko aukera izan dut, eta aldi berean, ikaskuntza bat lortzen ari garela gu eta zerbitzua eskuratzen dutenak. Zerbitzu honetan jarduera fisikoa egiten egongo dira, modu dinamiko, dibertigarri eta ludiko batean. Horretarako jolasak erabiliko ditugu eta ekintza anitzak. Gainera, saio guztien gai nagusia jolas kooperatiboak izan dira, haien arteko harremana eta talde lana bultzatuz. Saio bakoitzean material bat aukeratzea erabaki nuen eta material horren inguruan saioak prestatu. 7 saio aurrera eramane behar nituen eta bakoitzean material bat aukeratu nuen.

1. saioa: ezagutzeko saioa
2. saioa: puxiak
3. saioa: baloiak
4. saioa: uztailak
5. saioa: sokak
6. saioa: zapiak
7. saioa: bankuak eta material anitzak

Saio bakoitzean aurrera eramango nituen jolasak pentsatzeko hainbat unitate didaktiko aztertzen egon naiz: José Luis Larak (2017) duen blog bat eta berak sortutako unitate didaktikoak eta edufirsd-ek (d.g.) duen web gune bat "Educación Física. Recursos didácticos" non edonork igo dezakeen errekurtso bat.

Saio guztietan elkartzeko unerako jolas bat egitea pentsatu nuen, ondoren ezagutza unean zehar hainbat jolas egitea material zehatza batekin eta bukatzeko, amaiera unean zeudela jakiteko azkeneko jolas bat. Hemen saioen taula eskuragarri duzue (taula 2):



Taula 2: saioen azalpen txikia

	<b>Elkartze gunea</b>	<b>Ezagutza gunea</b>	<b>Amaiera gunea</b>
<b>1. saioa</b>	Kanasta nahasia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Anbulantzia</li> <li>- Imitazioak</li> <li>- Estatuak</li> </ul>	Abestia
<b>2. saioa</b>	Armiarma jolasa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Puxika ez erortzea</li> <li>- Puxika airean</li> <li>- Puxika bidaiaria</li> </ul>	Masajea puxikarekin
<b>3. saioa</b>	Katearen jolasa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baloia pasa</li> <li>- Taldearen baloia</li> <li>- Erlojua</li> </ul>	Marrazkia
<b>4. saioa</b>	Stop jolasa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Guztiak batera</li> <li>- Itsasontzi txikia</li> <li>- Uztailetan aktibo</li> </ul>	Uztailetik pasa
<b>5. saioa</b>	Buztana lapurtu jolasa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Soka salto tradizionalak: erlojua, sugetxo eta linbo.</li> <li>- Soka mantentzen</li> <li>- Txalupa pasa</li> </ul>	Soka kooperatiboa
<b>6. saioa</b>	Bilatu bilatu jolasa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zapia</li> <li>- Baloia aurkitu</li> <li>- Aurkitu zuzena</li> </ul>	Nor da?
<b>7. saioa</b>	Zezena jolasa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dorrea</li> <li>- Bankuak</li> <li>- Altxorra mugitu</li> </ul>	Zer marraztu dut?

Iturria: norberak eginikoa

Programazioa egiteko fitxa batzuk sortu genituen, modu honetan informazio guztia leku berdinean izateko (eranskinak II). Gainera, jolas bakoitza zertan datza azaltzen dut, zein arau dituen, zein helburu lortu nahi ditudan, zein material erabiltzen den, taldekatze mota eta denbora azaldu egiten da.

Saio bakoitzean hainbat helburu lortu nahi izan arren, helburu nagusi bat bilatzen dugu saio bakoitzeko. Lehenengo saioaren helburu nagusia hurrek haien artean ezagutzea da. Horretarako, izenak ikasteko, zaletasunak ezagutzeko, izaerak adierazteko...jolasak aukeratu ditut. Bigarrenean, konfiantza hartzeko jolasak izango dira. Gertutasuna eta kooperazioa beharrezkoak direnak, modu honetan taldean lan egingo dute. Hirugarrenean, jolas kooperatiboen hastapena izango dugu helburu, hau da, kooperazioa zertan datzan ulertzen hasiko dira. Laugarrenean, taldean lan egiten ikastea eta talde sentimendua indartzea. Bostgarrenean, besteen lekuan jartzen ikasi (enpatia landu) eta beste ikasleek daukaten balioa ikusten ikastea. Seigarrenean, haien artean laguntzen ikastea eta bestek

errespetatzea. Azkenik, zazpigarren saioan, hainbat material erabilia jolas kooperatibo ezberdinak ezagutzea bilatuko dugu, ohikoak diren jolasetatik ateratzeko

Plangintza guzti hau egin ondoren banuen nondik hasteko orientabidea. Horrek ez du esan nahi dena modu honetan gauzatu egin denik edo jarduera guztiak egin direnik. Askotan denbora falta egon da, edo jolasa ez zuten gustuko, edo aurreko jolasa ez zuten utzi nahi... beraz, plangintza batekin hasi nintzen baina aurrera eramanez ahala, aldaketak egin behar dira eta egoerara moldatu.

#### 4.5. Informazioa jasotzeko **tresnak**

Esku-hartzea praktikan jartzen ari nintzen bitartean informazioa jaso ahal izateko tresna ezberdinak erabili nituen. Modu honetan, informazio guztia biltzeko aukera nuen, antolatu, klasifikatu eta emaitza batzuk atera. Gainera, emaitzak ondorio batzuk ateratzeko edota hausnarta egiteko aukera eman zizkidaten.






Lehenik, **saioen gidioa** izateko taula batzuk sortu egin nituen, informazio jasotzeko tresna moduan. Fitxa horietan saioan zehar aurrera eramango nituen jolasak, haien azalpena, zein ordenean jolastuko genituen, eta erabili behar genuen materiala... agertzen zen. Tresna horrekin, dinamika aurrera eramaterakoan orientabide batzuk izan nituen eta laguntza moduan erabili ditut (eranskinak II).

Jarraitzeko, **narrazio etnografikoa** erabiliko dut prozesuaren zehar, hau da, **egunerokoa**, bertan egun bakoitzean behatzen nituen aspektu ezberdinak kontuan hartuz. Bertan eguna nolakoa izan den modu narratibo batean kontatu dut eta bertan nire pentsamenduak, sentimenduak, ekintzen narrazioa... azaldu ditut. Narrazio hauek ikusmira pertsonaletik egin dira, nire perspektiba kontuan hartu delako eta nire ikuspuntu subjektiboa agertu da (eranskinak III). Egunerokoa ondorengo atalak apuntatzen joan naiz: bizi ditudan anekdota aipagarrienak, planifikazioarekin erlazioa zuen informazioa (antolamendua eta metodologia), proposamen didaktikoaren aurkezpena nola joan zen eta ikasleen harrera, aurrera eramaterakoan faktore erraztatzaileak eta oztopatzaileak izan diren, gertakari kritikoen narrazioa, ebidentzia batzuk (argazkiak, egindako marrazkiak...) eta egun bakoitzean ateratako ondorioak.

Gainera, **koaderno bat** izango dut klaseetan, aipagarriak iruditzen zaizkidan momentuak apuntatzeko. Ikasleek esaten zituzten gauzak, jokatzeko moduak, sententziak... Modu honetan, ez nituen gertaera horiek ahaztuko eta egunerokoa egiteko lagungarria izango zen.

Ikasleen iritzia jasotzeko beste tresna batzuk erabili ditut. Alde batetik, klase batean nola sentitu diren adierazteko, zein momentu izan den gustukoena... edo haiei garrantzitsua iruditzen zaien zerbait adierazteko, **marrazki bat** egitea eskatu nien. Modu honetan, klasearen zehar nola sentitu ziren jakin izan dut. Bestaldetik, klasearen amaieran ebaluazio txiki bat egiten zuten. Horretan **kartulina bat** (irudia 9) itsatsita zegoen eta gomaxo batekin zein aurpegirekin identifikatzen ziren erabaki behar zuten. Klasean zegoen taula:

Irudia 9: ebaluazioa egiteko horretako kartulina

Iturria: Norberak egina

Saioetan zehar hainbat **argazki** egin ditugu, haien parte hartzea ikusteko eta oroitzapenak izateko.

#### 4.6. Informazioaren bilketa eta analisisa

Azaldu dugun moduan, informazioa jasotzeko tresna ezberdinak erabili ditut eta bakoitzetik informazio anitza eskuratu dut. Informazio horrekin emaitza eta ondorio batzuk atera ditut, zerbitzua nola joan den ikusteko. Hala ere, tresna ezberdinak erabili ditudanez zazpi egun izan direnez, informazioa antolatu behar izan dut, kaosa ez izateko. Hau da, tresna bakoitzean informazioa asko biltzen dugunez, nahasgarria izan daiteke informazioa antolatu gabe emaitzak ateratzen hastea. Gainera, seguru aski gaiak errepikatuko lirateke. Horregatik, informazio guztia multzokatzeko analisi kualitatibo bat egin dut. Gero informazio hori analizatzeko eta ondorio zein emaitza batzuk ateratzeko. Beraz, informazio guztia batzeko **kategoria sistema** erabiliko dugu.

#### 4.7. Katēgoria sistema

Katēgoria sistemarekin prozesuan zehar lortu dugun informazio guztia bildu, antolatu, sailkatu eta kategorizatu bilatu da, horren bidez emaitza batzuk ateratzeko. Lehenengo pausua informazio guztia biltzea eta antolatzea izan da. Horretarako kode batzuk sortu ditugu. Hau da, dauzkagun paragrafo, argazki, esaldi... bakoitzari etiketa/kode moduko bat ipini diot, zeinetan eguna, tresna, noiz gertatu den, nork egin du, nork esan du... era laburrean azalduko dudana.

Ondoren, informazioa sailkatu egingo dugu: laburtu, elkartu eta sailkatu. Horretarako katēgoriak jarri ditugu eta sistema katēgoriala martxan jarri. Katēgoria sistema jarraituz ideiak hierarkizatu ditugu eta paragrafo edo argazki bakoitza katēgoria batean esleitu. Beraz, idatzi dugun paragrafoekin zein katēgorian sailkatzen dugun pentsatu behar dugu (sentimenduetan, bizipenetan, intzidentzietan...). Katēgoria eta azpikatēgorietan sartu ditzakegu paragrafo bakoitza. Hobe ulertzeko, sailkapena egiteko erabili dugun taula hemen azpian utzi dut. Katēgoria sistema metodoa erakusten duen taula.

Taula 3: Katēgoria-sistema

<b><i>Dimentsioak</i></b>	<b><i>Katēgoriak</i></b>	<b><i>Azpikatēgoriak</i></b>
Esperientzia eta harremanak	Esperientzia eta anekdotak	
	Harremanak	Ikasleen arteko harremana
		Rolak
		Irakaslearekiko harremana
	Lidergotza	
	Intzidentzia kritikoak	Gertaera
Hartutako erabakia		
Planifikazioa	Aspektu metodologikoak	Arauak
		Diseinua
		Espazioa eta materiala
	Faktore erraztatzaileak	
	Faktore oztopatzaileak	
	Proposamen didaktikoa	Zer planteatu dugun
Ikasleen erantzunak		
Esperientziak sortutako sentipenak	Kezkak eta zalantzak	
	Hausnarketak	

Iturria: IkHezi ikerketa taldean eginda eta neronek moldatuta

Taula 3an argi ikusten da zein irizpide izan ditugun kontuan. Beraz, sailkatu behar dugun informazio bakoitza lehenengo esperientzia eta harremanak, planifikazioa edo esperientziak sortutako sentipenak diren erabaki behar izan dugu. Esperientzia eta harremanetan 4 multzo sortu dugu (esperientzia eta anekdotak, harremanak, lidergotza eta intzidentzia kritikoak). Planifikazioak beste 4 kategorietan banatzen da (aspektu metodologikoak, faktore erraztatzaileak, faktore oztopatzaileak eta proposamen didaktikoa) eta esperientziak sortutako sentipenetan beste 2 kategorietan banatu dugu (kezkak eta zalantzak eta hausnarketak).

Kategoria horietatik beste azpikategoria batzuk aterako dira, informazio ahalik eta sailkatuen egoteko, adibidez, "harremanak" kategorian: ikasleen arteko harremana, rolak eta irakaslearekiko harremana azpikategoriak atera zaizkigu. Intzidentzia kritikoen kategorian: gertaera eta hartutako erabakia. Planifikazioaren barruan aspektu metodologikoen kategorian: arauak, diseinua, espazioa eta materiala. Eta proposamen didaktikoaren kategorian, zer planteatu dugun eta ikasleen erantzunak azpikategoriak atera dira.

Kategoria taula edo kategoria hau sortu egin dugu baina aldaketak izan daitezke, hau da, informazioa antolatzeko tresna izan behar da, analisi tresna baita, eta hala zerbitzua aurrera eramaterakoan beste atal bat txertatzea bururatzen zaigunean, gehitzeko aukera izango dugu. Ere kategoriak kentzeko aukera daukagu, gure proposamenean baliagarria ez bada edo horren inguruko informazio gutxi izateagatik.

## **5.Emaitzak**

Esku-hartzea martxan jarri eta gero, hainbat emaitza atera ditugu esperientziaren inguruan. Prozesuan zehar erabili ditugun tresnekin informazio asko bildu dugu eta gure iritziak, bizipenak, sentimenduak... plazaratu ditugu. Informazio guzti horrekin hainbat emaitza atera ditzakegu eta ondorio batzuetara iritsi.

Hala ere, informazioa hainbat egunetatik atera dugu eta guztia antolatuta egoteko kategoria sistema sortu dugu. Modu honetan, hainbat kategoria sortu ditugu eta informazioa antolatuta gelditu da. Kategoria hauetatik beste azpikategoria batzuk aurkitzen ditugu. Jarraian horien inguruan daukadan informazioa azalduko dut.

### **5.1. Esperientzia eta harremanak**

#### ***5.1.1. Esperientzia eta anekdotak:***

Esku hartzearen zehar bizipen asko izan ditugu eta egunero hainbat anekdota ateratzen dira. Esperientzia eta anekdota azpikategorian bizi izandako pasarteak aurkitzen ditugu,

esate baterako, bizi izandako lehenengo momentuak, ikasleen ekintzak, momentu barregarriak, haurren ezaugarriak ezagutzen joatea... Azpikategoria honetatik, egunerokotasuna eta errealitatea ezagutzen da, esperientzia honekin bizitzen diren momentu txikiak. Agian ez dira gehien hunkitu egin diguten gertaerak baina oroitzapenean izango ditugun momentu positibo bezala edota momentu garrantzitsu bezala.

Adibidez, lehenengo eguna beti oso garrantzitsua izaten da eta hasieratik zurekin jatorrak izatea asko eskertzen duzu.

*Haurrak 10:00-retan etorri behar ziren baina nik 15 minutu lehen joatea adostu nuen elkartearen koordinatzaile batekin. Modu honetan, lekua erakutsiko zidan, zein material ditugun... Berarekin elkartu naiz eta saioetara etorriko den haur baten ama zela azaldu dit. Gero, beharrezkoak diren 4-5 gauza aipatu dizkit. Haurrekin ondo egongo nintzela plazaratu dit eta haurrak oso jatorrak direla aipatzen egon da. Bakoitzaren ezaugarri batzuk azaltzen egon (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

Koordinatzaileak esan zidan bezala, haurrak lehenengo momentutik oso jatorrak izan ziren eta giro positiboa eta familiarra egotea sortu zuten.

Anekdotak atalean momentu polit eta barregarri asko gordetzen ditut. Esperientzia polita izan da eta oroipen positiboekin gelditzea oso garrantzitsua iruditzen zait.

*Zirkuluan ipini gara eta oso ondo egiten hasi dira. Puxikari emateko gogoak zituzten eta tentsio momentuak oso dibertigarriak ziren (Egunerokoa, 2. eguna, 2022.02.12).*

*Dantzatzen, korrika...hasi dira oso pozik eta musika gelditu dut eta "3" esan diet. Hainbat haur beste ikasle batzuk bilatzen hasi dira eta hirunaka jartzen saiatu dira. Aldiz beste batzuk uztail huts bat bilatzera joan dira eta zenbakiari ez diote kasurik egin. Ikusi egin dudanez guztiak ez dute jolasa ulertu eta berriro azaldu behar izan diet (Egunerokoa, 4. eguna, 2022.03.05).*

Uztailen eguna izan zen eta lehenengo jolasean gertatutako anekdota da. Askotan jolasa ulertu dutela esaten dute eta jolasteko gogoekin adierazten dira. Jolasa praktikan eramateko orduan, ez dutela ulertu konturatzen naiz eta berriro azaldu behar diet. Batzuetan etsipena sorrarazten dit gauzak hainbeste alditan azaldu beharra. Aldiz, kasu honetan barre handia eman zidan eta polita iruditu zitzaidan.

*Gero "suge-txikia"-ra jolasten egon dira. Gehien gustatu zaien ekintza izan da eta far asko egin dute. Ikasle batek sokak maite dituela nabaritu da eta jolas guztietan trebetasun asko erakutsi du. Jolasten ari zirenean musika entzuten zuten eta*

*motibatuagoak jolasten zuten, bitartean dantzatzen zeudelako* (Egunerokoa, 5. eguna, 2022.03.26).

Oroitzapenetan izango dudan momentu bat da, jolasten zeudenean transmititzen zidaten sentsazio positiboengatik. Sokekin egin ditugun jolas guztiak pila bat gustatu zaie eta primeran pasa dute. Salto bakoitza eman behar zuten bakoitzean mundua gelditzen zela zirudien eta saltoa egin ondoren festa bat. Erronka dibertigarria eta aldi berean zaila ikusten zuten baina lortu ahal zutela egiaztatzerakoan jolasa maite zuten.

*Azkeneko eguna zenez, merendola txiki bat egin diet eta hemendik aurrera libre utzi diet. Beraz, patata batzuk jaten ari ziren bitartean, baloiekin, sokekin, uztailekin jolasten egon dira. Gehien gustatu zaiena dela dirudi, haiek nahi duten jarduera egin ahal dutelako eta aldi berean janari ona jan* (Egunerokoa, 7. eguna, 2022.04.30).

Guztiok elkarrekin egoteko azken momentua izan da eta polita iruditu zait. Hitz egiten egon gara, haien inguruan gehiago kontatu didate, haien artean jolasten egon dira... Haien arteko harremana izugarri hobetu dela eta izan duten eboluzioaz konturatu naiz. Gainera, klaseak faltan botako ditugula komentatu egin dugu.

Esperientzia eta anekdota asko eramaten ditut klase hauetatik eta inoiz ahaztuko ez dudan esperientzia izango da. Momentu farregarri asko eramaten ditut, haurren maitasun ikaragarria, irakasle eremuan erabili ahal ditudan ikaskutzan berriak eta harreman polit asko.

### **5.1.2. Harremanak (ikasleen arteko harremana, rolak, irakaslearekiko harremana)**

Proposamen honen beste puntu garrantzitsu bat harremanak izan dira, ikasleen arteko harremanak, rolak eta irakaslearekiko harremana. Arreta gehien deitu didan puntua izan da, bereziki, **ikasleen arteko harremana**. Gehiengoak ez ziren haien artean ezagutzen eta zerotik hasten ziren. Gainera, bakoitzak adin batekoa zen eta ezgaitasun batekin, beraz, ez nekien erraza ala zaila izango zen harreman estu bat sortzea.

*Ohartu naiz haien artean ez direla ezagutzen, biz pa hiru kontuan hartu gabe. Honek gustatu zait talde berria izango delako eta harreman berriak sortuko direlako* (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).

*Ezagutzeko balio zaie eta izenak ikasten hasi dira. Gainera, haien artean asko galdetzen dira, eta bestaldetik, batzuk taldeari ez diote kasu handirik egiten* (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).

Lehenengo jolasak haien artean ezagutzeko, izenak ikasteko... erabili nituen. Modu honetan, talde guztiarekin hitz egiten dute eta talde giroa sortzen joaten gara.

Konturatu nintzen haien artean ez dutela lotsarik izan. Berdin zitzaien ezagutu edo ez, nahi zuten guztia galdetzen zuten, haien artean jolasteko gogoak zituzten, dantzatzeko lotsarik ez zuten, hitz egiteko gogoak zuten... Bakoitzak bere izaera izan arren, besteekin egoteko gogoak zuten eta hasieratik jolasten hasi dira.

*Gehien harritu nauena haien artean harremantzeko modua izan da. Normalean haurrak lotsatiago sartzen dira eta ezagutzen ez duten hurrekin kostatzen zaie konfiantza hartzea. Hauek ordeztu, berehala hitz egiten hasi dira eta jolasteko arazorik ez dituzte izan. Gainera, haien artean motibatzen eta animatzeko moduak izugarri gustatu zaizkit. Nabaritzen da haiekin berdin egiten dutela eta haien gaitasunetan sinisten dutela (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

Jarraitzeko, haien arteko harremana izugarri gustatu zait. Aipatu dudan moduan ez zuten lotsarik adierazi baina harremantzeko modua oso polita zen. Denbora guztian besteak laguntzeko prest egoten ziren, elkarlanean aritu dira, besteen sentimenduak kontuan hartzen zituzten, besteei motibatzen eta animatzen saiatzen ziren, pertsona bakoitzari balio izugarria ematen zioten, errespetuz eta maitasunarekin harremantzen ziren... Ikusten zen haiei maitasun askorekin tratatzen dituztela eta haiek berdin egiten dute.

*Momentu horretan, beste haurrak neskari animatzen egon dira eta puxikari emateko laguntzak eman diote (Egunerokoa, 2. eguna, 2022.02.12).*

*Orduan, jauziak egiten zituen taldekideari denbora guztian animatzen egon dira. Haien artean asko laguntzen dira eta eroso sentiarazten saiatzen dira. Erabili dituzten esaldi batzuk: "VENGA VENGA que tú puedes", "eres la mejor! salta salta!", "tu al ritmo que puedas tranquila"... (Egunerokoa, 3. eguna, 2022.02.26).*

Taldean lan egin behar zuten eta jolasaren momentu batean taldekide batek salto egin behar zuten. Guztiek pasa behar zuten momentu horretatik eta beste guztiak zure zain gelditzen dira. Askok gustatu zait haien artean animatzen egon direlako, pazientzia handia izan dute bakoitzaren erritmoarekin, ez dute inor presionatu eta giro izugarri ona sortu dute.

*Haien harremanak gehien arritzen nauten gauza da. Beraien artean kontu handiz tratatzen dira eta asko zaintzen dira. Beti besteak ondo egoteaz kezkatzen dira. Gainera, haien artean asko motibatzen dira, gai direla esaten dira, besteak laguntzeko prest daude... (Egunerokoa, 3. eguna, 2022.02.26).*

Lehen hezkuntza graduaren zehar egin ditugun praktiketako esperientzia konparatuz, ikasleen harremanak oso ezberdinak iruditu zaizkit. Praktiketako haurrak askotan gaizki hitz egiten ziren, min egitea bilatzen zuten, haien artean baztertzen ziren, egunero irainak esaten



ziren... Aldiz esperientzia honetako haurrek beste harreman mota bat sortua zuten. Haien artean errespetatzen ziren, haien ekintzetan ez zuten makurkeriarik, besteak laguntzeko prest zeuden, maitasun handiz tratatzen zituzten pertsonak eta ez zuten inork kanpoan uzten.

*Gainera, pertsonak primeran tratatzen dituzte eta laguntzeko prest daude. Ez dute ia gorrotorik eta barkamena eskatzeko gaitasun harrigarria daukate (Egunerokoa, 7. eguna, 2022.04.30).*

Bestaldetik, ikasle bakoitzaren izaera eta klasean sortu diren harremanak direla eta, haur bakoitzak **rol** bat hartzen du. Gehienetan modu inkontziente batean egiten dute baina egoera bakoitzean parte hartzeko moduak errepikakorrak izaten dira.

*Egia da, lasaia den ikasleak ez zuela parte hartzen, hau da, zirkuluan zegoen baina puxika bere ondoan pasatzen zenean, beste batek ematen zion (Egunerokoa, 2. eguna, 2022.02.12).*

Klasean oso lasaia den ikasle bat egon da eta bere parte hartzea bilatzea zaila izaten da. Parte hartzen duenean bere erritmoan egiten du eta motela izaten da. Egoera honek, besteek animatzen saiatzea eragiten du baina aldi berean batzuetan berak egin behar duen ekintza besteak egiten dute. Hau da, beste ikasleek pazientzia galtzea eta haien egitea, besteak ez duela egingo pentsatzen dutelako. Edo nola egin behar duen erakusteko bere txanda denbora guztian kendu.

*Gainera, taldeko txikiena da eta batzuetan nabaritzen da. Beste egunean liskarrak izan zituela oroitzen da, beraz, berriro liskarra sortzearen rola hartu du eta besteei beldurra sartzen saiatzen da (Egunerokoa, 2. eguna, 2022.02.12).*

Arreta deitu zidan egoera honek, lehenengo egunean liskar txiki bat izan zutelako eta jarrera batzuk izan zituen (ilea hartzen saiatu, lista bota, harrapatzen saiatu...), aldi honetan, jarrera berdinak errepikatu ditu. Hau da, jolasa egiten ari ginen eta ez zegoen liskarra sortzeko arrazoirik baina haurrak beste eguneko liskarra gogoratu zuen eta izan zituen jarrerak errepikatzea erabaki zuen. Aldi honetan oso azkar gatazkara bideratu dela konturatu naiz eta haserretu behar den rola hartu duela ikusten dut.

*Aldi berean, haserretzeko ohitura handia daukate. Haien artean gauza txikiengatik haserretzen dira. Ez da guztiekin gertatzen eta beti 2 haur berdinak dira, hala ere, haserretzen direnean indarra erabiltzen saiatzen dira. Ere gauza txarrak egiten saiatzen dira, adibidez, gauzak apurtu, haien gorputzari mina egin, hitz txarrak bere*

*buruari esan... Normalean oso azkar ahazten zaie eta barkamena eskatzeko izugarritzko gaitasuna dute (Egunerokoa, 3. eguna, 2022.02.26).*

Lehen aipatu dudan moduan, ez dute makurkeriarekin gauzak egiten, gainera, ez diote besteari mila egin nahi. Baten batean mila egiten dutenean oso kezkatuta adierazten dira eta momentu berean barkamena eskatzera joaten dira. Indarra eta irainak erabiltzen dituzte liskarrak hitz egiten eta argudioak ematen gaitasuna ez dutelako uste dut. Oraindik txikiak dira eta haien ideiak defendatzeko zailtasunak izaten dituzte, beraz, bide azkarrena jotzea ikusten dute.

*“Soy mala”, “me voy a morder por portarme mal”, “que lo rompo eh eh que lo rompo” (Egunerokoa, 3. eguna, 2022.02.26).*

Esandi hauek esaten dituen haurrak liskar gehienak sortu duena izan da. Nabaritzen da bere bizitzan noizbait esaten dioten afirmazioak izan direla, oso mekanikoki errepikatzen dituelako. Gainera, oso argi dauka gaizki eta ondo dauden ekintzak, horregatik bere pentsamendua gaiztoa denez gauza txarrak egin behar ditu (*me voy a morder el brazo* esaldiaren bidez adierazten du). Bestaldetik, zerbait txarto egiten duenean zigortu behar zaiola esaten dizu eta bera bakarrik taldetik ateratzen da. Oso sinistuta dauka txarraren papera eta horren ondorioz liskar gehien sortzen dituen haurra da.

**Irakaslearekiko harremana**, hau da, nirekin, oso ona izan da. Lehenengo momentutik maitasun asko eman didate (besarkadak, nirekin jolastu nahi izatea...). Denbora guztian zein pertsona ona zaren esaten dizute eta beti laguntzeko prest daude. Gainera, klaseetan oso adi zeuden, nire iritziak entzuten zituzten, zuzenketetan kasu egiten zuten...

*Eta jolas honen azkeneko jarduera “linbo” izan da. Guztiak ezagutzen zuten eta primeran egin dute. Neska bati lotsa ematen zion bakarrik pasatzea, beraz, berarekin pasa naiz eta hortik aurrera bera bakarrik pasatzen egon da (Egunerokoa, 5. eguna, 2022.03.26).*

Nire iritzia eta parte hartzea asko bilatzen dute. Nire hitzak izugarritzko inportantzia dutela konturatu naiz eta nire onarpena asko bilatzen dute. Gainera, nire gertutasuna asko baloratzen dute eta maitasuna behar dutela ikusten da.

*Hasieratik azkeneko saioa izango zela esan diet eta guztiak besarkada bat ematera gerturatu dira. Azkeneko saioa denez ondo pasatzera jatozela gogoratu diet eta jolas asko egingo ditugula (Egunerokoa, 7. eguna, 2022.04.30).*

Harremanak izan dira esperientzia honen oinarria, bai alde positiboak bai negatiboak. Haien artean sortu diren loturak oso politak iruditzen zaizkit. Errespetuan, laguntzan, elkarlanan, maitasunan, balorazioan, onarpenean, enpatian, dibertsioan eta alaitasunean oinarritzen dira. Haien artean asko zaindu dira eta besteen sentipenak kontuan hartzen dituztela nabaritzen da. Irakaslearekin jarrera berdina izan dute, beraz, haien harremantzeko modua dela ohartu naiz. Aldi berean, haien emozioak kontrolatzen ikasi behar dute, harremantzeko orduan eragiten dietelako. Hau da, gauzak intentsitate handiarekin bizitzen dituzte, beraz, batzuetan oso kezkatuta egotea eragiten die. Bestaldetik, haserre sentimendua hobe kudeatu behar dute, indarra ezin dutelako erabili. Gauzak hitz egiten eta haien iritzia ematen ikasi behar dute.

### **5.1.3. Lidergotza**

Haien artean sortu dituzten harremanak direla eta, rolak eta lidergotzak sortu dira. Ikasle asko lasaiak dira eta ez dute agintzeko jarrerarik. Beste batzuk ordea, aginduak ematea, liderrak izatea, erabakiak hartzea...asko gustatzen zaie eta horren ondorioz, gatazkak egoten dira edo haien harremanetan hierarkia sortzen da. Egia da, limiteak (irainak, errespetu falta, ostikada...) pasatzen baldin badira, hierarkia hori moztu egin dut. Hala ere, haien artean harremantzeko libre uzten diet, modu naturalean gertatzeko.

*“Yo me voy a poner y tu te callas”* (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).

Hauetako esaldiak ez ditut onartzen haurren artean, berdinen arteko harremanak bilatzen ari garelako. Kasu hauetan, haien artean hitz egitera eraman ditut eta biak eskubide berdinak dituztela adierazi diet.

*Haien artean zein harreman mota sortu diren oso nabaria da. Batzuk protagonistak eta liderrak izan nahi dira. Beraz, besteei aginduak ematen dizkiete eta jolasetan erabaki asko hartzen dituzte. Beste batzuk berriz, besteen aginteak entzuten eta betetzen dituzte, eta beste batzuk pasa egiten dute* (Egunerokoa, 4. eguna, 2022.03.05).

Haien arteko harremanak sortzen direnean hainbat rol bereganatzen dituzte eta jokatzeko modu batzuk errepikatzen dituzte. Pertsona guztiak talde bakoitzean modu batean jokatzeko dugu eta gure izaeraren alderdi batzuk edo beste batzuk nabarmentzen dira. Beraz, ondo iruditzen zait rol bat hartzea taldearen barruan baina eroso sentitu behar dira eta taldearen barruan sentitzea.

*Bi talde sortu ditugu eta taldekatzeetan beti denbora asko galtzen da. Guztiak kapitainak izan nahi dira eta bere taldea erabaki, beraz, aldi honetan taldeak nik egin ditut (Egunerokoa, 6. eguna, 2022.04.02).*

Rolak eta lidergotzak talde guztietan sortzen dira, naturalki egoten dira. Batzuetan izaerak direla eta, haien artean talkak egoten dira eta pertsona bat baino gehiago rol berdinean ipini nahi da. Komunikazioaren bidez, adostasun batera iritsi egiten dira kasu gehienetan (klaseetan zehar beti adostasun batera iritsi dira). Hala ere, normala izaten da talde batean izaera antzekoak egotea eta haien artean zailagoa da harreman ona sortzea.

#### **5.1.4. Intzidentzia kritikoak (gertaera, hartutako erabakia):**

Hainbat egun egon eta gero, intzidentzia kritiko anitzak egon dira. Haien harremanak oso politak direla azaldu dut, hala ere, haserretzeko ohitura daukate klaseko batzuk eta haien artean liskarrak egotea eragiten du. Gainera, lidergotza izateko nahia eta rol ezberdinak gatazka gehiago sorrarazten ditu.

Liskar gehienak bi ikasleren artean gertatu dira. Momentuan gertatzen den zerbaitengatik haserretu egiten da, gauza txiki batengatik eta liskarra hasten da. Egia da, ondoren konpontzeko eta barkamena eskatzeko izugarrizko gaitasuna dutela. Erraz konturatzen dira gaizki egin dutela eta besteari mina ez ziotela egin nahi azaltzen dizute. Beraz, liskarrak berehala konpondu egin ditugu, egunero izan arren.

*Bi neska txanda berdinean koltxonetaren gainean jarri nahi ziren, bakarrik bat jarri ahal denean. Bien artean liskarra hasi da bata txanda eskatuta zuelako eta bestea ezetz esaten zuen. Momentu batean neska batek besteari ostikada bat eman dio eta bestea negarrez hasi da (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

Lehenengo egunetik konturatu nintzen bakoitzaren izaera nolakoa zen, jolasetan zehar harremantzeko eta jolasteko moduarengatik. Liskar horretan parte hartu zuen neska batek, hurrengo egunetan egongo diren liskarrak sortu egingo ditu. Hala ere, azkar konpondu zuten liskarra eta guztientzako txanda egongo zela ulertu zuten.

*Berehala banandu ditut eta hitz egitera eraman ditut. Gertatu denaren inguruan hitz egiten egon gara, bakoitza bere perspektiba kontatzen eta nola sentitu diren adierazten. Ondoren, konponbide bat bilatzea erabaki dugu eta haien artean barkamena eskatu dute (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

Autokritika egiteko gaitasun handia daukate, ez dute harrotasunik erakusten eta okertu egin direla kontziente dira.

Askotan indarra erabiltzeko ohitura dute eta liskarrak konpontzeko baliabide bezala erabiltzen dute. Batzuetan hitz egitea alde batera uzten dute eta azkarrena besteari jotzea ikusten dute.

*Egia da, momentu batean bi ikasle puxikari ematera joan direla eta batek bestea baino lehen eman dio. Puxikari eman ez diona asko haserretu da eta puxika eskuekin hartu du, jolasa geldituz. Puxika apurtuko zuela mehatxatu egin du. Gero bestearen kontra joaten saiatu da baina berehala gelditzea lortu dut (Egunerokoa, 2. eguna, 2022.02.12).*

Berrito lehenengo eguneko 2 ikasleak gatazka izan dute, garrantziarik gabeko gertakizun batengatik. Liskar handiak ez izan arren, klasearen giro eta erritmoa okertzen du.

*Berarekin hitz egiten egon naiz, haserretzeko ohitura izaten duelako eta dena indarrarekin konpontzen du (Egunerokoa, 2. eguna, 2022.02.12).*

*Momentu batean, ikasle batek haserretu egin da bere indikazioak ez zituztelako ulertzen eta bera ondo egiten ari zela esanez. Horregatik momentu batean jolasatik atera da eta eskuetako gela hartu du jango zuela mehatxatuz: "me lo como me lo como". Hasiera batean zurrupatu egin du bere eskua gelarekin eta ahal izan dudan momentuan kendu egin diot (Egunerokoa, 6. eguna, 2022.04.02).*

Arreta deitu zidan akzioa izan zen, inoiz pentsatu izan ez dudan gertaera zelako. Ikasle batek eskuetako gelahidroalkoholikoa hartzea eta jango zuela mehatxua egitea ezinezkoa iruditzen zitzaidan. Honen aurrean kendu egin nion eta horren ondorioak azaldu egin nizkion, berarentzat oso txarra zela argitu nion.

*Hori jatea oso txarra zela azaldu diot eta gero tripako mina izango zuela abisatu diot (Egunerokoa, 6. eguna, 2022.04.02).*

Intzidentzia hauetan zehar oso kezkatuta sentitu naiz, bereziki hasieran. Gatazken aurrean nola jokatu behar nuen ez nekien, eta ondo edo gaizki egiten ari nintzen argi ez neukan. Liskarrak konpontzeko baliabide asko behar direla ikusi dut eta enpatia zein komunikazio gaitasunak ezinbestekoak dira akordio batera iristeko. Hala ere, ikasleen aldetik konpontzeko jarrera aurkitu dut eta barkamena eskatzeko ez dute arazorik izan.

## **5.2. Planifikazioa**

Edozein saio aurrera eraman ahal izateko planifikazio bat egotea behar dugu. Hainbat alderdi kontuan hartu behar ditugu eta horiek ikertu, sailkatu eta antolatu. Modu honetan, askoz errazagoa egingo zaigu saioak egitea.

### 5.2.1. Aspektu metodologikoak (arauak, diseinua, espazioa eta materiala):

**Arauen** kontua garrantzitsua izan da saioak ondo bideratzeko. Hasiera batean ez genituen araurik jarri eta 2 saio aurrera eraman genituen arauak jarri gabe. Hainbat liskar eta errespetu falta egon ondoren, arauak sortzea erabaki genuen. Haien izan ziren arauak sortu zituztenak eta bete egingo zituztela zin egin zutenak. Hemendik aurrera, saioak askoz hobe gauzatu ziren eta errespetua bermatu zen.

*Arauen kontua ez dut kontuan izan, klaseetan zehar errespetatu behar diren arau batzuk argi izan behar dituzte, haien artean errespetua ez galtzeko eta dinamikak aurrera eramateko. Ezin dira klase baten haien artean jo eta irainak esan. Laburbilduz, errutina batzuk sortu behar dira, arau batzuk izan eta denboraren kudeaketa egokia egin (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

*Arauak erabakitzen egon gara eta haientzat garrantzitsuak diren puntuak idatzi ditugu: besteak ez jo, besteak ez iraindu, materiala zaindu, besteak laguntzeko prest egon, taldean lan egin... Arau hauek beteko dituztela konpromisoa hartu dute eta klasean ondo ibiliko direla esan dute (Egunerokoa, 3. eguna, 2022.02.26).*

Adinaren arabera ikusten da zein arauak beharrezkoak diren eta zeintzuk ez. Talde honetan oraindik oso garrantzitsua da “ez jo” araua ezartzea. Oraindik “ez jo” garrantzitsua dela ulertu behar dute eta haien akzioak mina egin ahal dutela irakatsi behar zaie. Hau da, arau bakoitzaren zergatia jakitea oso garrantzitsua da, arrazoi bat eman. Hau da, jotzea gaizki dago besteari min fisikoa eta psikologikoa egiten diozulako.

Batzuetan jolasen arauak ez dituzten betetzen eta gogorazi egin behar dizkiet. Askotan irabazi nahi dutenez tranpak egitea erabakitzen dute, modu honetan, garaipena lortzea askoz errazagoa da. Egia da, praktiketako ikasleak baino askoz lehiakortasun maila baxuagoa daukatela.

*Hala ere, askotan tranpak egiten zituzten eta hitz egiten zuten: “que voyas para adelante”, “soy un ciego”, “aquí no hay ninguna pelota”, “¿eso que era?”... (Egunerokoa, 6. eguna, 2022.04.02).*

Aspektu metodologikoetan kontuan hartu dudana beste puntu bat **diseinua** izan da. Saioak hasiera batetik eraiki egin nituen eta bakoitzean zer landuko nuen erabaki nuen. Jolas kooperatiboetan oinarritu egingo zirela pentsatu nuen eta saio bakoitzean material bat erabiliko nuela. Klaseak aurrera joan ahala, prestatutako guztia aurrera ezinezkoa izango zela konturatu nintzen. Denboraren aldetik, jarduerak nik uste nuen baino denbora gehiago behar dute eta gauza txikietan denbora asko galtzen da.

*Jarraitzeko saio hauetan zer egingo dugun azaldu diet eta ondo pasatzeko etorri garela esan diet. Saioetan zehar jolas kooperatiboetan arituko ginela esaterakoan, ez zekitela zein jolas mota ziren esan didate. Beraz, azalpen luzeago bat eman diet eta haien zalantzak argitu ditut. Bukatzean, lehenengo jolasa aurrera eramaten abian jarri gara (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

Normala izaten da prestatutako jarduera guztiak aurrera ez eramatea eta espero genuen baino denbora gutxiago izatea. Baina klase hauetan zehar denbora pila bat galtzen genuen jolas bakoitzeko. Klasearen erritmoa oso mantsoa izan da beste klaseekin konparatuz. Hala ere, ikasleei ez zaie mantsoa edo aspergarria iruditzen. Haien behar duten erritmoa da eta ondo ibiltzen dira.

*Klaseak aurrera eramatea askoz zailagoa iruditu zait, ikasle bakoitzaren egoera oso desberdinak direlako eta gaitasun anitzak daude. Beraz, jarduerak guztiei egokitzea ezinezkoa izaten zen gaitasunengatik, gustuengatik, adinarengatik... Gainera, jarduera bakoitza egiteko denbora asko behar da eta uste duzun baino denbora gehiago galtzen da gauza txikienetan. Beraz, denboraren kudeaketa oso garrantzitsua da (Egunerokoa, 7. eguna, 2022.04.30).*

Gainera, egoerari eta ikasle bakoitzari egokitzeko gaitasuna izan behar dugu. Batzuetan espero ez ditugun gertakizunak daude (jarduera oso zaila izatea, material falta, gogo falta...) eta aldatzeko zein inprobizatzeko gaitasuna erakutsi behar dugu. Ikasleen izaera zein gaitasunak kontuan izaterakoan, ere saioaren gauza asko aldatu behar izan ditut, haien beharrak asetu ahal izateko.

Materiala eta espazioaren aldetik dena oso ondo joan da. Hasiera batean, espazio ezberdina espero nuen, zerbait handiagoa. Gela ikusterakoan ez nekien jarduerak aurrera eramateko egokia izango zenik baina ez dut arazorik izan eta edozer egiteko espazio egokia izan da.

*Gela txikia denez nahiko erraza egiten zaie eta kate sortzen hasi dira (Egunerokoa, 3. eguna, 2022.02.26).*

Bestaldetik, klase bakoitzean material bat erabiltzea pentsatuta neukan eta behar izan ditudan guztiak aurkitu egin ditut. Material anitzak dituzte eta kopuru handi bat, beraz, gure jardueretan ez dugu arazorik izan.

*Gaurko klasea puxikekin izango zela esan diet eta asko poztu egin dira (Egunerokoa, 2. eguna, 2022.02.12).*

*Saioa oso ondo joan da eta asko gustatu zaizkie egindako jolasak. sokarekin ekintza anitzak egin daitezke eta baliabide on bat dela konturatu naiz. Aldi berean, mina egitea oso erraza izan daiteke, adibidez, bi ikasle batera tira egitea, eskuekin indar asko egin, zartadak ematea... beraz, kontu handiz ibili behar gara ikasleak mina ez hartzeko eta materiala ondo erabiltzeko (Egunerokoa, 5. eguna, 2022.03.26).*

Planifikazioan alderdi batzuk oso garrantzitsuak direla konturatu naiz. Alde batetik, denboraren kudeaketa kontuan hartu behar da. Gauzak mantso doaz eta ikasle talde bat bideratzea zaila izaten da, beraz, uste ez dugun gauzetan denbora galduko dela pentsatu behar dugu. Bestaldetik, erabiliko dugun espazioa eta materiala argi izan behar dugu, gure jarduetarako egokia diren ala ez jakiteko. Eta azkenik, jarduerak ikasle taldeari egokitutak egon behar dira. Ezin dira oso zailak ezta oso errazak izan behar, haien gaitasunetara egokitutak egon behar dira eta ikaskuntza bat bereganatzeko aukerarekin.

### **5.2.2. Faktore erraztatzaileak**

Klaseak eramaterako orduan, faktore batzuk asko erraztu didate gidaritzapena eta jarduerak askoz hobeto atera dira. Bereziki ikasleen jarrera izan da klaseak erraztu duten faktorea.

*Ikasleen harrera ezin hobea dela konturatu naiz, jolasteko gogo handiak dituzte eta dinamika guztiak ondo iruditzen zaie (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

Beti jarrera positiboa izan dute, jolasteko gogoekin, motibatutak, interesa adierazten... Bizitzan daukagun jarrerarengatik gauzak aurrera edo atzera joaten dira, horregatik faktore erraztatzaile moduan ikusten dut.

*“VENGA VENGA que tú puedes”, “eres la mejor! salta salta!”, “tu al ritmo que puedas tranquila”... (Egunerokoa, 3. eguna, 2022.02.26).*

Haien artean animatzen, laguntzen eta zaintzen egotea asko erraztu dituzte klaseak. Guztiak eroso egotea saiatzen ziren eta enpatia oso garatuta zuten.

*Eguna ondo hasi da guztiak puntual iritsi direlako eta bere berokia utzi dute (Egunerokoa, 6. eguna, 2022.04.02).*

Haien izaerak ezinbestekoak izan dira klaseko giroan eta jarrera positiboekin jolasak aurrera eramatea errazago iruditu zait.

### **5.2.3. Faktore oztopatzaileak**



Faktore oztopatzaileak ere haurren jarrera izan da, batzuetan asko laguntzen zutelako eta beste batzuetan oztopatu. Haien liskarra, mantsotasuna eta tentsio giroa eragiten zuten, beraz, klaseak pixka bat zailtzea eragin zuten.

*Baina ikasle bat haserretzeko ohitura izaten du eta jolasetan askotan molestatzen du, ez du kasurik egiten, beste jotzen saiatzen da... Honek klaseak askoz zailagoak bihurtzen ditu eta besteen ikaskuntza oztopatzen du (Egunerokoa, 2. eguna, 2022.02.12).*

*Ikasle batek ez du ondo ulertu jolasa edo ez zuen parte hartu nahi, eta bera denbora guztian uztaile batekin egon nahi zela esaten zuen. Gero jarduera egiten ari zirenean bere uztaile ezin zela inork sartu esaten zuen. Bere ideitik ateratzeko denbora asko erabili dugu eta besteak berarekin haserretu dira (Egunerokoa, 4. eguna, 2022.03.05).*

Hainbat ikasleentzako klaseak prestatu behar direnez, normala da ikasle guztiei jolasak ez gustatzea. Askotan ikasleak ez dute gustuko baina parte hartzen dute. Beste batzuetan gustuko ez dutenean alde batean gelditzen dira. Kasu honetan, ez zitzaion jolasa gustatzen eta berak zein besteak jolastu gabe gelditzea lortu nahi zuen. Zerbaitetara jolastu nahi zuen baina ez jolas horretan, beraz, dinamikan zehar zirikatzen egotea egokiena iruditu zitzaion.

*Gaur bi ikasle oso berandu iritsi dira eta saioa hasteko denbora pila galdu dugu. Egoera honek, hasieratik jarduera guztiak ez genituela gauzatuko sentiarazi dit eta kezkatzen hasi naiz. Iritzi direnean txipa aldatzea erabaki dut eta ahal dugun guztia eta hoberen egitea proposatu dut (Egunerokoa, 5. eguna, 2022.03.26).*

Denbora ere beste faktore oztopatzailea izan da, batzuetan berandu iristeagatik, azalpenak mantsoak izateagatik... Denbora gehiago izatekotan, dinamika gehiago egingo genituzke. Hala ere, hainbat jolas egiteko denbora izan dugu.

#### **5.2.4. Proposamen didaktikoa (zer planteatu dugun, ikasleen erantzunak)**

Puntu honekin bukatzeko, proposamen didaktikoak ditugu, lehen aipatu bezala klasearen zehar batzutan aldaketak egin behar izan ditugu eta proposamen berriak egin. Planteamendu honen aurrean ikasleek haien erantzunak ematen zituzten eta gehienetan positiboak izan dira.

*Laugarren eguna denez, klasea ahal dugun lehen hastea helburu moduan pentsatu dut. Modu honetan, prestatuta neuzkan jarduera guztiak egitera iristeko. Haur gehienak orduan iritsi dira eta berokia uztera joan dira. Hasieratik jarduerak hasi*

*behar genituela esan diet eta borobilean jarri behar zirela* (Egunerokoa, 4. eguna, 2022.03.05).

*Gehiengoak kasu egin dute eta besteak 2 minutu korrika egin eta gero eseri egin dira. Beraz, beste egunetan baino lehenago hastea lortu dugu* (Egunerokoa, 4. eguna, 2022.03.05).

Normalean proposatzen diedan gauzekin ados egoten dira eta berehala kasu egiten didate. Aldaketaren arrazoia azaltzen diet eta hobekuntza bat egoteko egiten dugula argitzen diet. Horregatik ez dute arazorik jartzen eta onartu egiten dute.

*Bigarren jolasa zapia izango zela esan diet eta guztiek ezagutzen zuten. Hala ere, moldaketa txiki bat egingo genuela azaldu diet, kooperazioa lantzeko asmoz. Batzuetan binaka edo hirunaka atera beharko zirela eta bata bestearen gainean jarri* (Egunerokoa, 6. eguna, 2022.04.02).

Zapiaren jolasan aldaketa egitea oso dibertigarria iruditu zitzaien. Modu honetan, haien artean interakzio gehiago egongo zen eta jolasa kooperatiboagoa bihurtuko zen. Egia da, praktikan jartzerakoan oso zaila egin zela aldaketak jarraitzea. Haientzako zailtasun handiko proposamena zen eta gaizki egokitzen zena.

Proposamen berriak egoerara hobe egokitzen diren aldaketak izaten dira eta jolasak hobe joateko proposatzen ditut. Gehienetan jolasak hobetzen dira eta dibertigarriagoak izaten dira, hala ere, espero genuen bezala ez joatea gerta daiteke. Proposamenak ikasleentzako deigarriak eta erakargarriak izaten saiatu behar gara, begi onez ikusteko eta gogoekin hartzeko.

### **5.3. Esperientziak sortutako sentipenak**

Esperientziaren zehar sentipenak gehien izan dugun gauza dela esan dezakegu. Momentu guztietan zerbait sentitzen dugu eta honetako esperientzia batekin oraindik gehiago. Bai nire aldetik bai ikasleen aldetik sentipen asko sentitu ditut. Denetariko sentipenak bizi izan ditugu, positiboak zein negatiboak. Lehenengo egunean urduritasuna eta kezka nagusitu egin ziren.

*Lehenengo eguna iritsi zen eta saioa praktikan eramateko momentua, egia da nahiko urduri nengoela eta zein egoeraren aurrean topatuko nintzela ez nekiela* (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).

Bestaldetik, klase batzuetan pixka bat galduta sentitu naiz. Askotan ez nekien egoera nola bideratu eta blokeatua sentitu naiz momentu batzuetan. Bestetan, berehala konponbideren

bat bilatu dut eta aurrera atera dut egoera. Hala ere, ikasle batzuk nola lagundu ahal nituen inguruan zalantzak izan ditut edo jarduerak nola bideratu...

*Bestaldetik, pixka bat kezkatuta utzi nau autismoa duen ikasleak. Hasieran ez zuen jolastu nahi eta belarriak estaltzen zituen. Gainera, gauzak esaten zituen baina ez nion ulertzen, askotan bera bakarrik hitz egiten du eta bere munduan dagoela dirudi. Jolas guztietan parte hartzera animatu diot eta ondo pasatuko duela aipatu diot baina lehenengo jolasetan ez du ezertarako balio izan. Azkenean, "linbo" jolasan parte hartu du eta ondo ibili da. Hala ere, momentu horretan laguntzeko baliabiderik gabe ikusi naiz eta ez nekiela egoera nola bideratu. Haurrari laguntzeko ez nekien zer egin behar nuen eta ez nekien laguntzen ari nion edo kaltetzen. Gutxienez azkenean parte hartu du eta pozik bukatu du saioa (Egunerokoa, 5. eguna, 2022.03.26).*

Klase honen hasieratik ikaslea gaizki sartu egin da eta bere amak aipatu egin dit, ez zekiela zer gertatzen zitzaien baina bere munduan zegoela zirudiela. Honen aurrean zer egin ez nekiela sentitu dut eta laguntzeko baliabiderik gabe ikusi naiz. Oso garrantzitsua iruditzen zait egoera hauei buruz informazioa izatea eta laguntzeko tresnak izatea. Ikaslea gaizki pasatzen egon daiteke eta laguntzeko egon behar gara.

*Momentu honetan zein zaila izango zen saioak aurrera eramatea konturatu naiz (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

Hala ere, zalantzarik gabe sentazio positiboak nagusiak izan dira. Haurrak momentu dibertigarri asko oparitu didate, maitasun asko, barre asko, haiengandik asko ikasi dut, haien garapena bermatu dut...

*Sentsazio positiboak transmititu didate lehenengo momentutik, nirekin interakzio handia bilatzen dutelako (Egunerokoa, 1. eguna, 2022.01.22).*

*Saio honetan gauzak asko hobetu egin direla nabaritzen dut, hainbat kontzeptu berri ulertzen ari direlako. Haien arteko harremana hobetzen doa eta haien arteko gatatzak azkarrago konpontzen ditugu. Bestaldetik, denboraren aldetik, ezinezkoa egiten zait prestatutako guztia aurrera eramatea. Egiten ditugun jarduerak ondo egitea nahiago dut eta batzuk egin gabe uztea. Bestela oso azkar egin beharko genituzke eta ez lukete hainbeste ikasiko (Egunerokoa, 4.eguna, 2002.03.05).*

Denbora pasa ahala, asko nabaritzen zen haien arteko harremana estutzen joaten zela eta konfiantza handitzen zigoala. Erraztasun handia erakutsi dute alderdi sozialean, gero bakarrik jolastea maite izan arren. Haien artean harremantzeko orduan berdintasunak adierazten dituzte eta haien artean ulertzen dira. Egia da, eskola arrunt bateko klase batean

zailagoa izango litzatekeela harreman estua sortzea. Askotan erritmo ezberdinak dituzte, zaletasun ezberdinak, mundua ulertzeko era anitzak...honek beste haurretatik banatzea eragiten du.

*Egia da, barre asko egin dugula eta ondo pasa dugu baina ez da jolasa atera eta desastre bat izan da* (Egunerokoa, 6. eguna, 2022.04.02).

Gauzak guk uste genuen bezala atera ez arren, ondo pasa dugu momentu guztietan.

*Klase zoragarriak izan dira eta haiengandik asko ikasi dudala ikusi dut. Bizitza ikusteko beste perspektiba bat erakutsi didate eta haien maitasuna zein poztasuna transmititu didate. Ezgaitasun bat izan arren, bizitzeko gogo izugarriak adierazten dituzte eta beti alde ona ikusten dute* (Egunerokoa, 7.eguna, 2022.04.30).

Azkenean, saio guztiak kontuan hartuz sentsazio nagusienak positiboak izan dira. Giro izugarri ona egon da eta momentu dibertigarriak pasa ditugu. Gure artean asko ikasi dugu eta guztiek zerbait eskaini dute klaseari. Ezinezkoa da honelako esperientzia bat ahaztea, sentsazioak eta sentimenduak momentu oro agerikoak izan baitira.

## **6. Ondorioak**

Ikerketa egin eta gero, hainbat ondorio atera ditzazkegu proposamen honetatik. Emaitzetarako erabili ditugun kategoriak kontuan izango ditugu ondorioak ateratzeko.

Hasteko ikasleen arteko harremanetan zentratuko gara, proposamenean zehar gehien nabarmentzen zena baitzen. Ikasle gehienak ez ziren haien artean ezagutzen eta zerotik hasten ziren. Egoera honek bere alde onak eta txarrak izan ditzake baina gu alde onetik bideratzen saiatu gara. *Aprenentatge Servei* (2019) dioen bezala ikaskuntza zerbitzuaren bidez ikasleek eduki, konpetentzia, gaitasun edo balore batzuk integratzen dituzte. Gure proposamenean balore horiek integratzen egon dira eta sozializatzeko gaitasuna landu dute, haien arteko harremanak sendotuz. Ezagutza eta kooperazio jolasekin haien arteko harremana sortzen, sendotzen eta hobetzen egon dira.

Haien artean ezagutu ez arren, lehenengo momentutik erraztasun handiak eman dituzten harremanak sortzeko. Gehiengoak ez dute lotsarik erakutsi eta parte hartzeko inizatiba izan dute. Gainera, jolasak azaltzerakoan motibatuta, gogoekin eta jolasteko interesarekin aldarrikatu dira. Honek, haien arteko harremanak ondo joatea erraztu du. Beraz, *Moralesek* (2020) esaten duen moduan Ikaskuntza Zerbitzuko proposamen bat arrakasta izateko ezaugarri bat bete behar da: *proiektu hauetan ikasleak jarrera aktibo bat izan behar du, lana aurrera eramateko.*

Egia da, hasierako saioetan urduriago egon direla eta oraindik konfiantza falta dagoela haien artean. Horregatik, haiekin jolas kooperatiboak egitea ideia ona iruditu zait. Denborarekin ikusten da haien arteko harremana estutzen joaten dela, konfiantza irabazten dutela, haien artean laguntzen direla... Gainera, García-Rico et al (2022) aipatzen duen moduan, jarduera fisikoarekin konpetentzia zibikoen eta sozialen garapena lantzen da.

Jolas kooperatiboekin Orlick-ek (2002) kontuan hartzen dituen ezaugarriak lantzen egon gara, esate baterako, laguntzeko prest egotea, errespetua izatea, inizatiba, entzuten ikastea, komunikazioa, parte hartzea, onarpena, dibertsioa eta abar. Poliki poliki lantzen joan dira ezaugarri guzti hauek eta jolas batzuekin garapen handiagoa edo txikiagoa lortu dute.

Jarraitzeko, klaseetan zehar inklusioa bultzatzea faktore erraztatzailea izan da haien harremanetan. Proposamean zehar helburu garrantzitsu bat talde sentimendua sustatzea izan da, talde baten parte sentitzea eta harreman osasuntsuak sortzea bilatzen egon gara. Horregatik, López-Vélezek (2018) esaten du ikaskuntza inklusiboaren ezaugarri bat komunitatearen ideia da, haien arteko harremanak sortzeko, lan taldean aritzeko eta kooperazio sustatzeko. Horregatik harreman positiboak lortu dira eta taldearen parte sentitu dira.

Bestaldetik, ikasle bakoitzaren izaera eta klasean sortu diren harremanak direla eta, haur bakoitzak **rol** bat hartzen du. Gehienetan modu inkontziente batean egiten dute baina egoera bakoitzean parte hartzeko moduak errepikakorrak izaten dira. Harremantzeko modu honengatik rolak eta lidergotzak sortu dira. Ikasle asko lasaiak dira eta haien izaerarengatik ez dute agintzeko gogorik. Beste batzuk ordea, aginduak ematea, liderrak izatea, erabakiak hartzea...asko gustatzen zaie eta horren ondorioz, gatazkak egoten dira edo haien harremanetan hierarkia sortzen da. Haien artean libre utzi diet momentu guztian eta modu naturalean harremandu dira. Talde bat sortu dutenez, bakoitzak bere rola hartu du eta bere "eginkizuna" onartu du. Limitean pasatu direnean, egoera horiek moztu ditut eta hitz egitearen alde egin dugu.

Harremanak hobetzen joan direla esan dezakegu, hala ere, klaseetan zehar hainbat intzidentzia kritiko egon dira. Haien artean haserretu egin dira, errespetu faltak izan dituzte eta limite batzuk pasa dituzte. Egia da, beti bi pertsona berdinak izan direla gatazkak izan dituztenak eta konponbide batera iritsi behar izan direnak. Velázquez-ek (2013) esaten duen bezala ikaskuntza kooperatiboan ikasleek arazoei konponbide bat bilatu behar diote eta taldean lan egin. Horregatik haien artean arazoak sortzen direnean, konponbide batera iritsi behar direla azaltzen diet. Horretarako ezinbestekoa izan dira komunikazioa, besteak errespetatzea, enpatia eta aldatzeko gogoak. Lehenengo klaseetan gatazkak askoz handiagoak izan dira eta limiteak oso azkar pasatu dira. Denborarekin hobekuntza bat

behatzen egon naiz, haien artean hitz egiteko gaitasuna lantzen egon direlako eta bestearen lekuan jartzen ikasi dutelako. Egia da, liskarrak ez direla bukatzen baina autokritika egiteko trebetasuna landu egin dute.

Inklusioa dela eta, bakoitzak bere erritmoa eta zailtasunak dituztela ulertu dute, eta pertsona guztiak errespetatu dituzte. Hasieratik, bakoitzak bere egoera daukala azaldu diet eta guztion artean errespetatu behar garela. Olayo, Vázquez eta Alapont-ek (1999) aipatzen dituzten jarrera batzuk klasean aurrera eramatea proposatu diet, esate baterako, pazientzia izatea, gauzak errepikatzea, bakoitzaren erritmoa onartzea... Ikasleak klaseak pasa ahala, besteen iritziak eta egoerak ikusten joan dira, eta beste ikasleen gaitasunak errespetatu dituzte. Egia da, hasieratik jarrera inklusiboaren alde egin zutela.

Planifikazioa saioen zehar garrantzia handia izan duen beste puntu bat da. Puig et al-ek (2007) aipatzen duen moduan, proposamen bat ondo bideratzeko hainbat puntu kontuan hartu behar dira: aktibitateak antolakuntza zehatza behar dute; zerbitzua curriculum akademikoarekin lotura izan eta abar. Lehenengo momentutik planifikazioa kontuan hartu dut, klaseak ondo joateko ezinbestekoa izango delako. Saioak nolakoak izango diren, non egingo ditudan, zein materialekin, jolasak, helburuak... kontuan hartu dut. Guztia kontuan izan arren, ezinezkoa da guk pentsatzen dugun moduan gauzak ateratzea. Bapatean sortzen diren ezustekoei erantzun bat eman behar diegu eta aldaketarako gaitasuna izan behar dugu, horregatik batzuetan espero ez nuen aldaketak egin behar izan ditut. Adibidez, arauen kontua garrantzitsua izan da saioak ondo bideratzeko. Hasiera batean ez ditugu araurik jarri eta 2 saio aurrera eraman ditugu araurik gabe. Hainbat liskar eta errespetu falta egon ondoren, arauak sortzea erabaki dugu. Haiek izan dira arauak sortu dituztenak eta bete egingo dituztela zin egin dutenak.

Batzuetan haurrei arauak jarri behar zaizkie, eta egin ahal dena eta ezin dena egin azaldu behar zaie. Modu honetan, haien arteko errespetua sustatzen dugu eta klaseak aurrera eramaten ditugu.

Aspektu metodologikoetan kontuan hartu dudana beste puntu bat **diseinua** izan da. Saioak hasiera batetik eraiki egin ditut eta bakoitzean zer landuko duten erabaki dut. Jolas kooperatiboak klasearen oinarria izango direla pentsatu dut eta saio bakoitzean material bat erabiliko dugula. Denboraren aldetik, jarduerak nik uste nuen baino denbora gehiago behar dute eta gauza txikietan denbora asko galtzen da.

Horregatik lehenengo klasetik ikusi dut jolas asko ezin izango zirela egin eta jolasen erritmoa aldatu egin behar dudala. Moralek (2018) dio I+Z-an izan behar dugun puntu garrantzitsu bat "aniztasunaren balorazioa" dela, zeinetan ikasle bakoitzaren egoera kontuan

hartzen da, beraz, bakoitzaren erritmoak errespetatzen dira, haien gaitasunetara egokitzen diren konpetentziak garatzen saiatzen gara... Ikaskuntza guztiak modu positiboan baloratzen dira, garapen maila berdinak ez izan arren. Hau kontuan hartuz, saioetan zehar ikasleen jarrerak, gaitasunak eta gogoak behatzen joan naiz, momentu bakoitzerako egokitzeko. Beraz, batzuetan jolasetan denbora asko gelditzen dut, beste batzuetan denbora gutxi edota zailtasun maila gutxitzen dut...

López-Vélezek (2018) azaltzen duen moduan, ezgaitasunak dituzten haurrak ez dira arazoak, testuingurua baizik. Bere hitzak kontuan hartuz, jolasei etegin gehien ateratzen saiatu naiz eta egin behar izan ditudan aldaketak egin ditut. Modu honetan, ikasleen egoeretara egokitzen ahalegina egin dut, haurrak gaitasunak dituztela ikusteko eta eroso sentitzeko.

Klaseko ikasle gehienak Down sindromea daukate eta Fernández (2012) aipatzen dituen ezaugarri asko dituzte: haien garapen psikomotorra mantsoagoa da, alterazioak izaten dituzte gorputz-eskeman, orekan eta espazio-pertzepzioan. Ezaugarri hauek kontuan izanda jolasak mondatzen egon naiz eta momentu dibertigarri zein hezigarri bezala transmititzen saiatu naiz.

Materialaren aldetik dena antolatuta izan dut. Klase bakoitzean material bat erabiliko nuela pentsatuta neukan. Materialak aurkitzeko ez dut arazorik izan eta behar izan dudana guztia izan dut. Soto et al.-ek (2021) aipatzen duten bezala ikaskuntza zerbitzuaren bitartez ikasleen motibazioa pizten saiatu behar gara eta haien errealitatera gerturatu. Horregatik, material anitzak aukeratu ditut, haien egunerokotasunean erabili ahal dituztenak eta normalean erabiltzen ez dituztenak. Modu honetan, motibatutak egon dira, esperimentatu dute, trebetasun ezberdinak eskuratu dituzte...

Beste alde batetik, irakaslearen/hezitzailearen papera garrantzia handia izan du. Saioetan eta jolas kooperatiboetan antolatzaile bat egotea ezinbestekoa da. Jolasen azalpenak emateko, arauak betetzen ari diren ziurtatzeko, aldaketak egiteko... prest egon behar da pertsona bat. Konturatu naiz talde hau beste pertsona batekin bideratu behar dela. Hainbat haur dira eta bakoitzak atentzio pertsonalizatua behar du, horregatik laguntzeko beste pertsona bat egotea gomendagarria izango litzateke. Gainera, batzuetan egoera nola bideratu behar dudana ez dakit eta baliabideak ez dudala pentsatzen dut. Momentu horietan norbaitekin hitz egiteko aukera izatea lagungarria izango litzateke eta bi ideia ezberdin partekatzea eta batzea aberasgarria izan daiteke.

Proposamenean zehar lortu dugun informazioa eta adituen iritzia alderatzen egon gara. Jarraitzeko, Ikaskuntza Zerbitzu honekin lortu nahi genituen helburuak lortu diren ala

ez behatu behar dugu. Alde batetik, ikasleekin lortu nahi ditugun helburuak daude, eta bestetik, irakasle moduan lortu nahi ditugunak.

Ikasleek hainbat ezagutza eta ikaskuntza berri izatea bilatu dugu klase hauetan: motrizitatea lantzea eta oinarrizko trebetasun batzuk bereganatzea, jolas kooperatiboan bitartez; elkarbizitza sustatu, talde lana, errespetua, komunikazioa, laguntza eta onarpenaren bidez; harreman sendoak sortu eta talde sentimendua bultzatu; jolas eta material anitzak ezagutu; eta saioetan zehar ondo pasatzea eta dibertitzea.

Lehenengo helburuan jarduera fisikoarekin erlazioa dauka, proposamen honetan mugimenduaren alde egin dugulako. Saioetan zehar jolas kooperatiboetan ibili dira eta motrizitatearekin erlazioa duten trebetasun anitzak eskuratu dituzte. Hau da, jolas kooperatiboak zer diren ulertu eta praktikatu dituzte, jolasen estrategiak ikusi dituzte, korrika, salto, jaurtiketak, dantzak, oreka, koordinazioa... landu dituzte. Gaitasun guzti hauek garatzen joan dira jolasen bitartez eta taldeko hainbat erronka eginez, hau da, kooperazioa landuz. Beraz, helburu hau ondo lortu egin dela esan dezakegu.

Proposamenaren helburu garrantzitsuenak elkarbizitza sustatzea eta talde sentimendua bultzatzea izan dira. Haur hauen familientzako oso garrantzitsua da haien seme-alabek lagun talde bat izatea eta gizartean ondo integratuta egotea. Horregatik garrantzia handia ematen diote ekintza hauei, haurrek haien artean ulertzen direlako eta eroso sentitzen direlako. Saioetan giro positiboa sortzen, haien artean konfiantza sustatzen, talde lana bultzatzen... saiatu egin naiz. Gainera, haien arteko errespetua, onarpena eta komunikazioaren alde egitea ziurtatu naiz

Haien aldetik erantzun positiboa izan dut eta harremantzeko gogo asko adierazi dituzte. Besteak ezagutzeko, haiekin jolasteko, laguntzeko, taldean lan egiteko... jarrera izan dute. Taldean lan egin dute arazorik gabe eta haien artean animatzen zein motibatzen ziren, harreman zoragarria iruditu zait. Beraz, oso erraza egin da talde on bat sortzea eta haien arteko harremanak indartzea. Egia da, talde guztietan bezala liskarrak edota gatazka batzuk egon dira, hala ere, konpontzeko aukera eman dute beti. Klaseetan zehar haien harremanetan eboluzio positibo bat egon dela ikusten da. Helburu honetatik asko poztzen naiz oso ondo bete delako.

Bestaldetik, material eta jolas anitzak erabiltzea nahi izan dut, haien ohiko baliabideetatik ateratzeko. Egia da, ez dudala material arrarorik erabili baina denetarik erabili dute. Gainera, hainbat jolas egin ditugu eta materialak modu ezberdinetan erabiltzen direla ikusi dute. Inoiz ez egin dituzten jarduerak eta erronkak proposatu ditugu eta primeran parte



hartu dute. Orain haien denbora librean erabili ditzaketen jolas berriak ezagutzen dituzte. Beraz, helburu hau bete dugula esan dezakegu.

Bukatzeke, dibertitzea, ondo pasatzea... bilatu egin dut momentu guztian. Klaseetara gogoekin iristea nahi izan dut eta oroitzapen positibo batekin joatea bilatzen dut. Haien hitzengatik oso ondo pasa dutela ikusten dut eta jolasten duten bitartean haien poztasuna adierazten dute. Gainera, gurasoen aldetik erantzun oso onak jaso ditut, esate baterako, haien seme-alabak oso gustora ibili direla, beste klase baten zain daudela, berriro bueltatu nahi direla... Oso pozik atera naiz haien erantzunak jasotzerakoan eta nire aldetik sentsazio berdinarekin gelditu naizela. Harreman eta talde on bat sortu dugula esan daiteke.

Irakasle moduan beste helburu batzuk ezarri nituen eta ikaskuntza batzuk lortzea espero nuen: ikaskuntza profesionala eta pertsonala; zerbitzu erabilgarria eta dibertigarria eskaintzea; saioak diseinatzea; ikasle bakoitza ezagutu eta haien beharrak identifikatu; modu autonomoan lan egiten ikasi; ezagutza eta baliabide berriak eskuratu; eta, ikasleetara eta egoeretara egokitzen ikasi.

Helburu hauetako batzuk beste batzuk baino gehiago landu ditut baina guztiak lortu egin ditudala esan dezakegu. Esperientzia honekin nire burua gehiago ezagutu dut, bai indibiduo moduan bai irakasle moduan. Hasteko saioak diseinatu behar izan ditut (antolatu, jolasak aukeratu, helburuak zehaztu...). Gainera, hainbat egoeraren aurrean aurkitu naiz eta hauei aurre egin behar izan diet. Hau da, arazo bat sortzen denean, konponbide bat bilatu behar dut. Jarraitzeko zerbitzua erabilgarria izatea eta aldi berean dibertigarria pentsatzen egon naiz. Ikasleei gustatuko zaizkien jolasak eta erronkak sortuz, haien gaitasunetara egokitzen zirenak aukeratu... Beraz, esan daiteke modu autonomoan lan egin dudala eta ezagutza zein baliabide berriak eskuratu ditudala zerbitzuaren zehar.

Ikasleak gehien kontuan hartu dudan puntu izan da, lehenengo momentutik haien inguruan informazioa bilatzen egon naiz. Haien ezaugarriak, zaletasunak, beharrak... ezagutu nahi izan ditut, hurrek eroso sentitzeko egin ahal dudan guztia egiteko. Gainera, klaseetan zehar haien egoeretara moldatzeko egin behar izan ditudan egokitzapenak egin ditut. Laburbilduz, helburu hauek betetzeko nire gogo guztiak jarri ditut eta ondo joan dela esan daiteke.

#### *Hobekuntza proposamenak*

Saioetatik emaitza eta ondorio positiboak atera ditugu, beraz, zerbitzu on bat izan dela esan dezakegu. Hala ere, edozein proposamen bezala hobetzeko alderdi batzuk aipatu ditzazkegu.

Lehenengo eta behin, zerbitzua diseinatzeko ahal dudan informazio guztia biltzea saiatu nintzen, hau da, ikasleen, materialaren, espazioaren... inguruan. Hainbat informazio eman zidaten eta horrekin hasi nintzen baina ikasleen inguruan informazio gehiago izatea falta egin zitzaidan. Saioak prestatzerako orduan ikasleen ezaugarri, zailtasun, behar...gehiago zehaztea lagungarria izango litzateke, modu honetan, hobe egokitzen diren jarduerak gauzatu egin ditzazkegulako. Gainera, batzuetan egoera larriak gertatzen dira eta momentu horietan haur bakoitzarekin nola jokatu behar dudan jakitea ondo egongo litzateke. Sorte onez ez zen ezer gertatu baina ezinbesteko informazioa iruditzen zait.

Bestaldetik, ni ezagutza gehiago izatea lagungarria izango litzateke saioetan zehar. Hau da, ikasleen ezgaitasuna ezagututa, ezgaitasun horren inguruko informazio izatea. Klasean Down sindromea ikasleak egonda, horren inguruan klaseak nola bideratzen diren, zein ezaugarri dituzten, zein oztoporekin aurkitu naiteke... jakitea ondo legoke. Berandu jakin nuenez zein ezgaitasun mota izango zituzten, ez nuen informazio eta ezagutza handirik bildu. Hala ere, nire jakintzekin eta ikasten joaten naizen ezagutzekin ondo bideratzea lortu dut.

Azkenik, zerbitzu honetan beste irakasle bat egotea hobekuntza garrantzitsu bat izango litzateke. Askotan leku guztietan egotea ezinezkoa izaten da eta hainbat hauraldi berean zure laguntza bilatzen dute. Bakarrik zaudenean ezinezkoa egiten da guztiei laguntzea momentu berdinean eta ikasle guztien beharrak asetzeko denbora izatea. Horregatik, beste irakasle batekin jarduerak askoz hobe bideratuko nituzke. Irakasle batek talde handia eraman dezake eta bitartean bestea atentzio indibidualizatuago bat eman. Gainera, arazo baten aurrean bi buru pentsalari egongo lirateke eta konponbide hobeko bat lortuko genuke. Bata besteari laguntzeko egongo ginateke eta ideiak partekatuko genituzke. Beraz, klase hauek gidatzeko bi hezitzaile egotea hobekuntza on bat iruditzen zait.

Laburbilduz, proposamen honekin zerbitzu bat eman dugu eta ikaskuntza batzuk lortu ditugu, bai haurrak bai guk. Beti gogoratu egingo dudan esperientzia da eta oso baliagarria izan zaidana. Etorkizun batean berriro errepikatu dezakedan zerbitzua izan daiteke, Ikaskuntza Zerbitzu metodologia behintzat. Hezkuntza eremuan zein bizitzan erabili ditzakegun metodologia da, eta gure inguruan onura asko egiten dituena.

## 7. Erreferentziak (bibliografía)

Ainscow, M. (2003). Desarrollo de sistemas educativos inclusivos. Gobierno Vasco, Las respuestas a las necesidades educativas especiales en una escuela vasca inclusiva (pp.19-36). Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Aps Aprenentatge Servei. (2019). Webgune honetatik berreskuratua: <https://aprenentatgeservei.cat/>

Araya, S. B., Acuña, M. B., Núñez, M. G., & Vería, C. S. (2012). Aprendizaje-servicio como metodología para el desarrollo del pensamiento crítico en educación superior. *Revista Cubana de Educación Médica Superior*, 26(4). Recuperado el 25 de noviembre de 2018 de <http://www.ems.sld.cu/index.php/ems/article/view/84/58>.

Battle, R. (2013). ¿Qué es el aprendizaje servicio y por qué nos interesa?. *Monográficos Escuela*, 26, 4-5. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://roserbatlle.net/wpcontent/uploads/2014/10/monografico-aps-periodico-escuela-2013.pdf>

Battle, R. (5 de febrero de 2018a). ¿Cómo desarrollar un proyecto de aprendizaje-servicio? Recuperado el 7 de diciembre de 2018 de <https://es.slideshare.net/rbatlle/comodesarrollar-un-proyecto-de-aprendizajeservicio-87247008>

CLAYSS. (2002). *Aprender sirve, servir enseña*. Buenos Aires: Autor.

DEWEY, J. (1916): *Democracia y educación*. Introducción a la filosofía de la educación. Madrid. Morata, 1995.

Edufirds (d.g.). *Educación Física. Recursos Didácticos*. Hemen eskuragarri: <http://edufirds.weebly.com/juegos-cooperativos.html>

Fernández, S. B. (2012). Un programa de actividad física en personas con síndrome de Down. *Revista electrónica de terapia ocupacional Galicia*, TOG, (16), 3-17.

Founaud-Cabeza, M.P., & Santolaya-del Val, M. (2021). Aprendizaje Servicio en Educación Física: adolescencia activa. *Aula De Encuentro*, 23(2), 135–154. Hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.17561/ae.v23n2.5357>

García-Rico, L., Martínez-Muñoz, L.F., Santos-Pastor, M<sup>a</sup>.L. (2022). El Aprendizaje-Servicio Universitario como promotor del compromiso social en el alumnado de Ciencias de la Actividad Física y el Deporte. *Estudios Pedagógicos*, 47 (4), 149-165.

Gil-Gómez, J., Francisco Amat, A., & Moliner Miravet, L. (2012). La Educación Física y el Aprendizaje Servicio: abriendo el entorno natural a la escuela. *Revista tándem: didáctica de la Educación Física*, 38, 95-100.

Johnson, D.W., Johnson R.T. & Holubec, E.J. (1999). El aprendizaje cooperativo en el aula. *Association For Supervision and Curriculum Development, Virginia*. Hemen eskuragarri: <https://www.ucm.es/data/cont/docs/1626-2019-03-15-JOHNSON%20El%20aprendizaje%20cooperativo%20en%20el%20aula.pdf>

Lara-Olmedo, J.L. (2017). *Didáctica de la Educación Física. Juegos cooperativos*. Universidad de Sevilla. Hemen eskuragarri: <https://www.studocu.com/es/document/universidad-de-sevilla/didactica-de-la-educacion-fisica/udt-juegos-cooperativos-5/10856067>

**López-Vélez, A.L.** (2018). La escuela inclusiva: *El derecho a la equidad y la excelencia educativa*. **Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea**, Argitalpen Zerbitzua/Servicio Editorial.

MARTÍNEZ-ODRÍA, A. (2007). “Service-Learning o Aprendizaje-Servicio. La apertura de la escuela a la comunidad local como propuesta de educación para la ciudadanía”. *Bordón*, 59(4), 611–626.

Mayo, D. & Granero, A. (2005). *Aprendizaje-Servicio en la Universidad. Un dispositivo orientado a la mejora de los procesos formativos y la realidad social*. (págs.39-53). Octaedro. Hemen eskuragarri: [https://www.researchgate.net/publication/351073237\\_Origen\\_historia\\_e\\_institucionalizacion\\_del\\_Aprendizaje-Servicio](https://www.researchgate.net/publication/351073237_Origen_historia_e_institucionalizacion_del_Aprendizaje-Servicio)

Morales, J. (2020) *Planificación colaborativa de prácticas inclusivas: Aprendizaje-Servicio y Diseño Universal para el Aprendizaje*. [Gradu Amaierako Lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea. Hemen eskuragarri:

[https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42082/TFG\\_Morales.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42082/TFG_Morales.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Olayo Martínez, J. M., Vázquez Menlle, J. V. & Alapont Hernández, A. (1999). El alumno con discapacidad: una propuesta integradora. Madrid: Ministerio de Educación y Cultura.

Orlick, T., & López, M. M. (2002). *Libres para cooperar, libres para crear:(nuevos juegos y deportes cooperativos)*. Editorial paidotribo.

Pérez-Pueyo, A., Hortigüela-Alcalá, D., González-Calvo, G., & Fernández-Río, J. (2019). Muévete conmigo, un proyecto de aprendizaje servicio en el contexto de la educación física, la actividad física y el deporte. *Publicaciones*, 49(4), 183–198. doi: 10.30827/publicaciones.v49i4.11735

Puig Rovira, J., Batlle, R., Bosch, C. & Palos Rodríguez, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía. Barcelona*: Octaedro. Hemen eskuragarri: <http://educacion.wke.es/agendaonline/Admin/Upload/2816/aprendizaje%20servicio%20muestra.pdf>

Puig Rovira, J.M. & Palos Rodríguez, J (2006). *Rasgos pedagógicos del aprendizaje-servicio*. Cuadernos De Pedagogía. Nº357.

Ramírez, M. & Pizarro, B. (2005). *Aprendizaje servicio manual para docentes UC*. Pontificia Universidad Católica de Chile. Hemen eskuragarri: <https://www.zerbikas.es/wp-content/uploads/2015/09/0403RAMapr.pdf>

Soto, N., Santos-Pastor, M.L., Álvarez, M.J. (2021). *Aprendizaje-Servicio en Educación Física en Educación Secundaria “Efecto Mariposa”*. Universidad Autónoma de Madrid. Hemen eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7976542>

STANTON, T. (1990). “Service Learning: Groping toward a definition”. En KENDALL ET AL., *Combinig Service and Learning: A resource Book for Community and Public Service* (Vol. 1), 65-67

Suñer, R. B. (2013). *El aprendizaje-servicio en España: el contagio de una revolución pedagógica necesaria*. PPC. Hemen eskuragarri: <http://roserbatlle.net/wp-content/uploads/2013/10/DIFUSION-DEL-APS-EN-ESPA%C3%91A.pdf>

Velázquez, C. (2013). Análisis de la implementación del aprendizaje cooperativo durante la escolarización obligatoria en el área de Educación Física. Valladolid: Uva.

Velázquez, C., Fraile, A., eta López., V. M., (2014). Aprendizaje cooperativo en Educación Física. *Movimiento*, 20, 2-4.

## 8. Eranskinak

*Eranskinak I* → Saioen diseinua egiteko taula

<b>Izen-abizenak: Itsaso Elejalde Elcuaz</b>	
<b>Izenburua</b>	Ikaskuntza-zerbitzua eta aktibitate fisiko inklusiboa
<b>Eskola/ Erakundea</b>	D-espacio
<b>Zerbitzuaren helburua(k)</b>	
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Haurrak ikastea eta motrizitatea garatzea</li> <li>2. Jarduera fisikoa gauzatzeko eremu bat izatea</li> <li>3. Haien arteko harremanak indartzea</li> <li>4. Elkarbizitza sustatzea.</li> <li>5. Jolas kooperatiboen bitartez haien arteko harremanak sendotzea, komunitate sentimendua bultzatu eta haien artean laguntzen ikastea.</li> <li>6. Parte-hartzea bultzatu eta motibazioa sustatu.</li> <li>7. Ikasleen artean errespetua bermatzea eta inklusioan hezitzea.</li> </ol>	
<b>Jarduerak</b>	
Helburua lortzeko egin beharreko ekintzen ezaugarri zehatzak.	
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Zerbitzua emateko.</li> <li>● Sarrera eskolan/erakundean eta taldean.</li> <li>● Zerbitzua martxan dagoen bitartean.</li> <li>● Itxiera.</li> </ul>	
Deskribapena: azpi-helburua, jarraibideak/pausoak, baliabideak (denbora, materialak...).	
<b>ZERBITZUA EMATEKO</b>	
Testuingurua ezagutu, izango nuen eremua eta materiala kontuan hartu, denboraren kudeaketa	

antolatu, ikasleen ezaugarriak eta egoerak ezagutu, ikasleei egokitzen diren jolas kooperatiboak pentsatu. Helburuak betetzeko egokienak diren tresnak eta jarduerak prestatu.

#### SARRERA ESKOLAN/ERAKUNDEAN ETA TALDEAN

**Eskola:** lehenengo nire buru aurkeztu eta hurrengo egunetan aurrera eramango ditugun saioak azaldu. Hau da, bertan zertarako nagoen azaldu eta jolas kooperatiboak zertan datza argitu. Haien aldetik espero dudan jarrera, parte hartzea, errespetu... azalarazi eta guztiok elkarrekin lan egin behar dugula azaldu. Azkenik, ondo pasatzeko, dibertitzeko, dantzatzeko, mugitzeko, ondo sentitzeko... eremu bat izango dela esan.

**Ikasle taldea:** ikasle taldearen ezaugarriak kontuan hartu, beraiekin komunikazio egokia sortu, haien kezak eta eskakizunak kontuan hartu, ikasleen artean harreman ona sortu, kooperazioan ibili, laguntzeko prest egotea, errespetua egotea eta elkarlanean aritzea jolasen zehar.

#### ZERBITZUA MARTXAN DAGOEN BITARTEAN

Zerbitzua martxan dagoen bitartean alderdi ezberdinak kontuan hartu ditugu. Ikasleek jolasak ondo ulertu dituztela ikusi eta arauak argi azaldu. Jolasen zehar haurren beharrak kontuan hartu eta aldaketak egiteko prest egotea. Gainera, garrantzitsuak iruditu zaizkidan gauzak apuntatzen joan. Bestaldetik, arazoren bat sortzen denean konpontzeko gaitasuna erakustea. Ikasleen artean liskarrak ondo bideratzen jakitea.

Ikasleen arteko harremana sustatzen ari dela ziurtatzea, elkarlana bultzatzea, kooperazioa lantzea eta taldeko ekintzak gauzatzea. Gainera, haien artean laguntzen ikastea eta haien artean errespetua bermatzea.

Beste taula batean egunero egiten diren jolasak/jarduerak azalduta daude: izena, denbora, materiala, helburuak, azalpena...

#### ITXIERA

Azkeneko jarduera denean abisatu egiten zaie eta lasaitzeko jolasa izango zela jakingo dute. Jarduera bukatzean borobil forma eginez eseri dira saioa komentatzeko eta nahi dutena kontatu dezakete, saioaren inguruan. Ondoren, kartulina handian haien gomatxoa itsatsiko dute, sentipenak adierazteko asmoz. Azkenik, elkar agurtuko gara.

#### Kronograma

Ekintzen egutegia

Data	Denbora tartea	Ekintza
Urtarrilak 22	ordu bat eta erdi	Kanasta nahasia, anbulantzia, imitazioak, estatuak eta

		abestia.
Otsailak 12	ordu bat eta erdi	Armiarma, puxikak ez erortzea, puxikak airean, puxikak bidaiariak eta masajea puxikarekin.
Otsailak 26	ordu bat eta erdi	Katearen jolasa, baloia pasa, taldearen baloia, erlojua eta marrazkia.
Martxoak 5	ordu bat eta erdi	Stop jolasa, guztiak batera, itsasontzi txikia, uztailetan aktibo eta uztailetik pasa.
Martxoak 26	ordu bat eta erdi	Buztana lapurtu jolasa, soka salto tradizionalak, soka mantentzen, txalupa pasa eta soka kooperatiboa.
Apirilak 2	ordu bat eta erdi	Bilatu jolasa, zapia, baloia aurkitu, aurkitu zuzena eta nor da.
Apirilak 30	ordu bat eta erdi	Zezena jolasa, dorrea, bankuak, altxorra mugitu eta zer marratu dut?
<b>Dokumentazioa eta ebaluazioa</b> Informazioa nola jasoko duzu? Ze informazio jasoko duzu emaitzak ebaluatzeko?		
Saioen gidoia, narrazio etnografikoa (egunerokoa), koadernoak oharrak apuntatzeko, ikasleek sortutako marrazkiak, emozioen kartulina eta bildutako argazkiak.		

*Eranskinak II* → Saioetan zehar egingo ditugun jolasen azalpena

<b>1. Saioa</b>			
<b>Data</b> 22/01/2022			
<b>Helburu nagusia:</b> haurren artean ezagutu.			
<b>Elkartze gunea</b>			
<b>1. Jardueraren izena</b>	Kanasta nahasia	<b>Denbora</b>	20 minutu



<b>Materiala</b>	Aulkiak	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haien artean ezagutzen joan.</li> <li>- Izenak ondo ikasi.</li> <li>- Konfiantza hartzen hasi.</li> <li>- Taldean eroso sentitzea.</li> <li>- Jarduerak egiteko gogoak piztu.</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Aulkiekin borobil bat egingo dugu eta koordinatzailea erdian zutik geldituko da. Erdian dagoen pertsona beste bati seinlatu egingo dio eta “piña” edo “naranja” esango dio. “Piña” esaten badiote, bere ezkerrean dagoen pertsonaren izena esan beharko du. Eta “naranja” esaterakoan, bere eskuineko pertsona. Ondo esaten duenean berdin jarraituko dute baina txarto esaterakoan, erdira joango da.</p> <p>Ere “kanasta nahasia” oihukatu dezake erdiko pertsona eta haur guztiak aulkiz aldatu behar dira. Momentu horretan, erdiko pertsona leku bat bilatzen saiatu beharko da.</p>			
<b>Ezagutza eraikitzeke gunea</b>			
<b>2. Jardueraren izena</b>	Anbulantzia	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Koltxonetak	<b>Taldekatze mota</b>	bost-naka
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Konfiantza hartzen joan.</li> <li>- Besteen inguruko datu ezberdinak ezagutu: adina, izena, non bizi diren, gustatzen zaien zerbait...</li> <li>- Kooperazioz lan egin.</li> <li>- Zauritua eremu batetik bestera eramatea.</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Bi talde sortuko dituzte eta bakoitzak koltxoneta bat izango du. Koltxoneta ambulanzia izango balitz bezala egingo dute eta zauritu bat eraman behar dute. Beraz, ikasle batek zaurituaren papera hartuko du eta besteak koltxonetan eramango dute. Eremu batetik bestera zauritua</p>			

eraman dutenean medikuari (irakasleari) zaurituaren inguruko 3 datu eman beharko diote. Modu honetan, haien artean ezagutu beharko dira.

<b>3. Jardueraren izena</b>	Imitazioak	<b>Denbora</b>	25 minutu
<b>Materiala</b>	Paperak	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

#### Helburuak

- Imitazioak egitea.
- Besteekin komunikatzea modu ezberdinetan.
- Kooperazioan lan egitea.
- Haien artean lotsa kentzen joan.
- Harreman onak sortzen hasi.

#### Azalpena

Kutxa bat izango dugu zeinetan idatzita dauden paperak egongo diren. Paper horietan oso ospetsuak diren pertsonaiak egongo dira eta haurren eginkizuna horiek imitatzea izango da. Ezin izango dute hitz egin, hau da, dena mimikaz egin beharko dute. Binaka edo banaka egiteko aukera emango zaie Adibidez, Mickey eta Minnie imitatzea.

<b>4. Jardueraren izena</b>	Estatuak	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Ezer ez	<b>Taldekatze mota</b>	Bikoteka

#### Helburuak

- Haien artean konfiantza sustatu.
- Begiratu gabe bestea dagoen posizioa asmatu.
- Ukimen zentzumena garatu.
- Harremanak bultzatzen hasi.

#### Azalpena

Binaka jarriko dira eta bikotearen pertsona batek begiak estalita izango ditu. Besteak bere gorputza posizio batean jarri beharko du eta geldirik mantendu. Bitartean begiak estalita dituen haurrak bestearen gorputza ukitzen joango da, zein posizioan dagoen asmatzeko. Gorputzaren atal guztiak kontuan hartu beharko ditu, gero posizio berdinean jarri behar egingo delako. Uste duenean posizioa ulertu duela, berdinean jarriko da eta konparatuko

dute bi posizioak. Gero rol aldaketa egingo dute.

### Amaiera unea

<b>5. Jardueraren izena</b>	Abestia	<b>Denbora</b>	5 minutu
<b>Materiala</b>	Musika eta bozgarailua	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

### Helburuak

- Haurrak lasaitzen hastea.
- Nola sentitu diren jakitea.
- Saioa gustatu zaien ala ez adieraztea

### Azalpena

Abesti lasai bat jarriko dugu eta borobilean nola sentitu diren, zer iruditu zaien... hitz egingo dugu. Gero, gelan egongo den kartulina bete ahalko dute.

## 2. Saioa= puxikak

### Data

12/02/2022

**Helburu nagusia:** haurren artean konfiantza sustatu.

### Elkartze gunea

<b>1. Jardueraren izena</b>	Armiarma jolasa	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Ezer	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

### Helburuak

- Mugimenduan hasi.
- Haien motibazioa piztu
- Beraien arteko konfiantza sustatzen joan.

## Azalpena

Gelaren erdian marra bat marraztu egingo da eta haur batek bertan ipiniko da. Haur horrek marra horretatik mugitu daiteke baina ezin da gelatik mugitu. Beste haur guztiak marraren alde batean jarriko dira eta jolasa hasten denean marrara gerturatuko dira. Marran armiarmari galdetuko diote: “armiarma, armiarma, pasa gaitzke?”. Armiarma “Bai” esaten badu, haur guztiak pasako dira eta armiarma norbait harrapatzen saiatuko da. Harrapatzen dituen haurrak berarekin lerroan ipiniko dira eta roles aldatuko dira. Bakarrik haur bat gelditzen den arte jolasa iraungo du.

### Ezagutza eraikitzeke gunea

<b>2. Jardueraren izena</b>	Puxika ez erortzea	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Puxika	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

#### Helburuak

- Norberarengan eta besteengan konfiantza handitzea
- Taldeko harremana hobetzea
- Kooperazioa eta elkarbizitza sustatzea.

## Azalpena

Zirkulu bat sortuko dute guztiek batera eta eskuak emanda egongo dira. Erdira puxika bat botako dut eta haien artean lortu behar dute puxika lurrera ez erortzea. Hasiera batean, nahi duten gorputz atalarekin eman ahal diote (eskuak izan ezik). Eta nola egiten duten ikusita, jarduera zaildu daiteke zein atalarekin eman behar dioten esanez. Adibidez, bakarrik oinarekin, edo belaunarekin...

<b>3. Jardueraren izena</b>	Puxika airean	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Puxika	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

#### Helburuak

- Kooperazioak lan egin.
- Taldean daukaten garrantzia ikustea.
- Denbora dibertigarri bat pasatzea
- Ikasleen artean konfiantza indartzea.

<b>Azalpena</b>			
<p>Haurrak espaziotik sakabanatu egiten dira. Haur batek puxika airera botako du eta guztiek batera lurrera ez erortzen saiatu beharko dute. Puxikari aldi batean ematen diotenean, haur horrek lurrean eseri beharko da. Modu honetan, haurrak esertzen joango dira eta jolasa zailtzen. Jolasa bukatuko da haur guztiak eserita egoten lortzen dutenean. Puxika ez erortzeko lurrean dagoen haur batek eman ahal dio baina berriro altxatu beharko da. Puxika lurrera erortzen bada berriro hasiko dute jolasa.</p>			
<b>4. Jardueraren izena</b>	Puxika bidaiaria	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Puxika	<b>Taldekatze mota</b>	Hirunaka edo launaka
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eremu batetik bestera mugitzea.</li> <li>- Taldean erabakiak hartzen ikastea.</li> <li>- Kooperazioa eta elkarlana lantzea.</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Hirunaka edo launaka jarriko dira eta talde bakoitzak puxika bat izango du. Haien helburua taldeka puxika alde batetik bestera eramatea izango da, lurrera erori gabe. Beraz, irakaslea leku batetik hastea eta gelaren beste eremu bat esango die, eta saiatu beharko dira horra iristen. Puxika hiruren artean eraman behar dute eta ezin da eskuekin puxika hartu, bakarrik ukituz.</p>			
<b>Amaiera unea</b>			
<b>5. Jardueraren izena</b>	Masajea puxikarekin	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Puxikak	<b>Taldekatze mota</b>	Binaka
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurrak lasaitzen joatea.</li> <li>- Saioaren amaiera iritsi dela ulertzea.</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			

Haurrak binaka jarriko dira eta bikote bakoitza puxika bat izango du. Lehenengo haur batek puxikarekin masajea emango dio beste haurrari. Eta gero, rola aldatu egingo dute eta bestea masajea emango du eta bestea jaso. Nahi duten gorputz ataletatik emango dute masajea baina haien artean adostutako masajea izan behar da.

### 3. Saioa= baloiak

#### Data

26/02/2022

**Helburu nagusia:** Jolas kooperatiboen hastapena hasi.

#### Elkartze gunea

<b>1. Jardueraren izena</b>	Katea	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Ezer ez	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

#### Helburuak

- Mugimenduan hasi.
- Haien motibazioa piztu
- Beraien arteko konfiantza sustatzen joan.

#### Azalpena

Taldeko batek harrapakaria da eta besteak ihes egin behar dute. Harrapatzen duen pertsona berarekin harrapakaria bihurtuko da eta besteengana joan beharko dira. Baina harrapatu ahal izateko, eskuak emanda joan behar dira, hau da, biak batera harrapatu behar dute. Hurrengo pertsona harrapatzerakoan hironaka joango dira, gero launaka... guztiak harrapatuta bukatu arte.

#### Ezagutza eraikitze gunea

<b>2. Jardueraren izena</b>	Baloia pasa	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Baloi bat	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

#### Helburuak

- Kooperazioan ibili.
- Baloiarekin kontaktuan hasi.
- Besteekin komunikazioa landu.
- Haien arteko harremana hobetu.

### Azalpena

Lerro batean ipiniko dira bat bestearen atzean eta hankak irekita izango dituzte. Lerroan dagoen lehenengo pertsona baloia izango du eta hanken azpitik pasako du. Ondoren, bigarrenak berdina egingo du eta modu berdinean azkeneko pertsona baloia izan arte. Azkeneko pertsona baloia jasotzen duenean, taldeko beste guztiak lurrean etzanda geldituko dira. Eta haur horrek haien gainetik pasa beharko da, hau da, hankak irekita bere taldekideen alboetatik ibiltzen joan beharko da, lehenengo postura iritsi arte.

Gelaren pareta batetik hasiko dira eta bestera iritsi beharko dira dinamika hau eginez.

<b>3. Jardueraren izena</b>	Taldearen baloia	<b>Denbora</b>	15 minutos
<b>Materiala</b>	Baloia	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

### Helburuak

- Kooperazioa landu.
- Materiala partekatzen ikasi.
- Besteen duten garrantzia baloratu.
- Jolasaren helburua bete.

### Azalpena

Bi lerro paralelo sortuko dituzte eta bata besteari begira jarriko dira. Distantzia on batean ipiniko dira jolasaren zailtasun maila handitzeko. Lerro baten lehenengo pertsona baloia izango du eta bere aurrean dagoen pertsonari pasa beharko dio. Ondoren, pertsona horrek bere diagonalean dagoen pertsonari pasako dio eta horrela azken pertsona pilota jaso arte. Haur horrek pilota lortzen duenena, berri ibilbide berdina egin beharko dute pilotarekin Lortu behar dute pilota lurrera ez erortzea. Erortzen bada, hasieratik hasi beharko dira.

<b>4. Jardueraren izena</b>	Erlojua	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Baloia	<b>Taldekatze mota</b>	Bi talde, batera lan egingo dutenak

### Helburuak

- Haien emaitzak hobetzen saiatzea.
- Taldean dauden pertsonak animatzen ikastea.
- Besteen eginkizuna baloratzen jakitea.
- Kooperazioan aritzea.

### Azalpena

Bi talde sortuko dituzte, batek 6 pertsona izango ditu eta zirkulu batean jarriko dira baloiarekin. Bestean 4 pertsona egongo dira eta 10 metrotara lerro batean jarriko dira, haien zapi bat izango dute. Jolasa hasten denean lerroko lehenengo pertsona korrika hasiko da eta beste talde sortu duen zirkulua inguratu beharko du, zapia eskuan izanda. Bukatzean, lerroan dagoen hurrengo pertsonari zapia pasako dio eta ibilbide berdina egingo du. Taldeko 4 pertsonak ibilbidea egin arte.

Bitartean, zirkuluan dauden haurrak pilota pasatzen egongo dira, zirkulu moduan. Baloiak zenbat bira ematen dituen zenbatu beharko dute, beste taldeak bukatzen duen arte.

Talde bakoitzak 2 alditan egingo du rol bakoitza (gutxienez), haien aurreko emaitza hobetzeko. Hau da, birak ematen dituen taldeak, denbora gutxiagoan egiteko. Eta baloia pasatzen duen taldeak, bira gehiago emateko. Ondoren, roles aldatuko dira.

### Amaiera unea

<b>5. Jardueraren izena</b>	Marraskia	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Papera eta margoak	<b>Taldekatze mota</b>	Banaka

### Helburuak

- Lasaitzen joatea.
- Klasearen zehar nola sentitu diren adieraztea.
- Haien ideiak modu kreatibo batean adieraztea.
- Bakoitzak nahi duen marraskia sortzea.

### Azalpena

Haur bakoitzari paper bat emango diet eta margoak izango dituzte. Nahi duten tokian jarri ahal dira eta haien marraskia egin. Marraskian nola sentitu diren, klaseko momentu bat, ikasi duten zerbait...marrastu dezakete. Haientzat garrantzitsua izan den gauzaren bat adierazi



beharko dute.

#### 4. Saioa= uztailak

##### Data

05/03/2022

**Helburu nagusia:** taldean lan egin eta talde sentimendua indartu.

##### Elkartze gunea

<b>1. Jardueraren izena</b>	Stop jolasa	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Ezer ez	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

##### Helburuak

- Berotzen hastea.
- Haien artean konfiantza hobetzea.

##### Azalpena

Harrapatzaile bat egongo da eta besteak ihes egingo dute. Jendea harrapatzen saiatuko da eta norbait harrapatzen badu, pertsona hori harrapatzailea bihurtuko da eta bestea iheslaria. Baina harrapatzaile ez bihurtzeko aukera bat dago, "stop" moduan jarriz. Harrapatu behar zaituztenean "stop" hitza esaten duzu eta, besoak irekita eta geldirik gelditzen zara. Hau da, estatua moduan gelditu behar zara. Posizio horretatik ateratzeko, beste batek zure hanken azpitik pasa behar da eta berriro korrika egin ahalko duzu.

##### Ezagutza eraikitzekeo gunea

<b>2. Jardueraren izena</b>	Guztiak batera	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Uztailak	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

##### Helburuak

- Taldean lan egitea.
- Besteak kontuan hartzea eta laguntzea.
- Materiala partekatzea.

<b>Azalpena</b>			
<p>Gelan zehar uztailak lurretik botata egongo dira eta musika ipini egingo dut. Bitartean haurrak gelatik dantzatzen, ibiltzen... egongo dira. Musika gelditzen denean, zenbaki bat oihukatuko dut (ikasle kopurua kontuan izanda) eta lortu behar dute uztail bakoitzean haur kopuru hori egotea. Adibidez, "3" oihukatzen badut, hiru pertsona sartu behar dira uztail batean. Ondoren, musika berriro martxan jarriko da eta ekintza berdina egingo dute.</p>			
<b>3. Jardueraren izena</b>	Itsasontzi txikia	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Uztailak	<b>Taldekatze mota</b>	Bostnaka
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezarri zaien eremura iristea.</li> <li>- Uztailetan taldekatzen ikastea.</li> <li>- Kooperazioan aritzea.</li> <li>- Besteen egoera ikusten ikastea.</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Bi talde egingo ditugu, 5 pertsona bakoitzeko eta 3 uztail emango zaizkie talde bakoitzari. Taldeek gelaren pareta batetik hasiko dira eta haien helburua aurrean duten paretara iristea izango da. Horretarako 3 uztail izango dituzte eta haien barrutik mugitu behar dira. Hau da, haurrak ezin dute lurra ukitu, ura izango balitz bezala pentsatu behar dute eta uztailak itsasontzi bat da. Uztailen barruan bizirik daude baina kanpoaldera erortzen badira jolasa galtzen dute. Beraz, 3 uztailak lurretik mugitzen joan beharko dituzte, beste paretara iristeko. Denbora guztian uztail bakoitzean 2 pertsona edo gehiago egon beharko dira, beste uztail bat mugitu ahal izateko.</p>			
<b>4. Jardueraren izena</b>	Uztailetan aktibo	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Uztailak	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proposatzen diren ekintzak guztiak batera betetzea.</li> <li>- Besteak laguntzeko prest egotea</li> <li>- Bakoitzaren garrantziaz kontzientzia hartzea.</li> <li>- Konfiantza indartzea.</li> </ul>			

- Kooperazioan aritzea.

### Azalpena

Ikasle bakoitzak uztail baten barruan ipiniko da eta uztail guztiak lurrean jarriko dituzte. Gutxi gorabehera gertu egongo dira. Irakasleak ekintza ezberdinak aipatu egingo dizkie eta egiten saiatu behar dira. Haien artean lagundu beharko dira. Adibidez, beste baten belauna ukitu, beste baten uztaila ukitu, zerbait urdina ukitu...

### Amaiera unea

<b>5. Jardueraren izena</b>	Uztailetik pasa	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Uztaila	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

### Helburuak

- Uztailetik haur guztiak pasatzea haien eskua askatu gabe.
- Elkarlanean ibili.
- Besteen gaitasunetan sinistea.
- Besteiei laguntzea.

### Azalpena

Haur guztiak zirkulu batean ipiniko dira eta eskuak emango dituzte. Haur batek zirkulua itxi baino lehen bere besotik uztail bat sartuko du. Bere lehenengo helburua bere gorputza uztailetik pasatzea izango da, eskuak askatu gabe. Beraz, bere albokoak lagundu beharko diote burua, gorputza, hankak... pasa ahal izateko. Lortu egiten duenean, bere albokoaren txanda izango da eta berdina egin beharko du. Jarduera bukatuko da hasierako pertsonari uztaila iristen zaionean.

### 5. Saioa= sokak

#### Data

26/03/2022

**Helburu nagusia:** bestearen lekuan jarri eta besteen balioa zein den ikasi.

#### Elkartze gunea

<b>1. Jardueraren izena</b>	Buztana	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Zapiak	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berotzen hastea.</li> <li>- Estrategia ezberdinak sortzea.</li> <li>- Haien arteko harremanak indartzea.</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Haur bakoitza zapi bat izango du eta pantaloiaren atzeko aldean ipini egingo du, animala buztana izango balitz bezala. Haien helburua denbora bukatzen denean buztan kopuru gehien izatea da. Beraz, besteei buztana lapurtzen saiatu behar dira (eskuarekin). Lapurketa bakoitzean buztan bakarra hartu dezakete eta lapurtu ondoren haien atzeko aldean ipini.</p>			
<b>Ezagutza eraikitzekeo gunea</b>			
<b>2. Jardueraren izena</b>	Soka salto tradizionalak	<b>Denbora</b>	30 minutu
<b>Materiala</b>	Soka	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Betidanik jolastu diren jolasak ezagutzea.</li> <li>- Jolas dibertigarriak egitea.</li> <li>- Taldean jolastea.</li> <li>- Harreman estuagoak sortzea</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Jarduera honetan ekintza txiki gehiago egingo dituzte sokekin. Hau da, jolas ezberdinak baina denbora laburragoan.</p> <p>Lehenengo erlojua jolan arituko dira. Haur bat sokarekin egongo da eta beste guztiak bere inguruan zirkulu bat sortuko dute. Haien artean metro bateko distantzia utziko dute gutxi gora behera. Erdiko pertsona soka mutur batetik hartuko du eta pixka bat makurtu egingo da. Hortxe bertan bueltak ematen hasiko da eta soka lurraren ondoan birak emango ditu. Bitartean beste hurrek salto egin beharko dute soka bere oinetan ez emateko.</p> <p>Ondoren, "suge txiki-ra jolastu egingo dugu. Honetan 2 haur izango dute soka eta</p>			

bakoitzak mutur batetik hartuko du. Zuzen zuzen ipini behar dute eta lurraren arrasean. Besteak eremu batean ipiniko dira eta bi ikasleak soka alde batera eta bestera mugitzen hasiko dira, denbora guztian lurraren arrasean. Suge batek egiten duen mugimendu sortuko dute. Haurrek beste aldera pasatzen saiatu behar dira, soka ukitu gabe, beraz salto egin beharko dute.

Atal honen azkeneko aktibitatea "limbo" izango da. Berrito bi ikasle sokaren mutur bakoitzean ipiniko dira eta soka tente izango dute. Sokaren altuera aldatzen joan ahal dira baina hasiera batean bularraren altueran ipini dezakete. Besteek sorbalda atzera botaz, sokaren azpitik pasa behar dira. Zailago egin nahi badute, soka beherago jarri dezakete eta besteei oso zaila egingo zaie pasatzea erori gabe.

<b>3. Jardueraren izena</b>	Soka mantentzen	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Soka	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Soka lurrera ez erortzea.</li> <li>- Guztiak batera lan egitea.</li> <li>- Haien arteko komunilazioa lantzea.</li> <li>- Kooperazioa egotea.</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Soka luze bat hartuko dugu eta bi muturrak lotuko ditugu, zirkulu handi bat sortuz. Haur guztiak zirkuluaren barruan sartuko dira eta soka aldakaren mailan kokatuko dute. Eta soka ezin dute eskuekin heldu. Soka pixka bat tente mantentzen saiatu behar dira lurrera ez erortzeko. Zirkulua ondo eginda dutenean, irakasleak ohar ezberdinak ematen joan da. Adibidez, 3 pertsona atera, kamiseta txuria dutenak atera, ile luzea dutenak... Esaten duenaren arabera batzuk edo beste batzuk soka utzi beharko dute eta beste leku batera mugitu. Aldaketa hori egiten ari diren bitartean, mugitu ez diren haurrak soka mantentzen jarraitu behar dute, lurrera erori gabe.</p> <p>Gero, guztiak batera alde batetik bestera mugitzea esan dezakegu.</p>			
<b>4. Jardueraren izena</b>	Txalupa pasa	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Soka	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera
<b>Helburuak</b>			

- Txalupan guztiak batera saltoka egotea.
- Haien arteko koordinazio lantzea.
- Komunikatzen ikastea.

### Azalpena

Sokaren mutur bakoitzean ikasle bat jarriko da. Soka kulunkatu egiten dute alde batetik bestera. Hasieran, ikasleak banaka banaka sartuko dira sokaren erdira, kulunkatzen duten bitartean. Beraz, saltoka egin beharko dute, 10 salto inguru. Bukatzean, hurrengoa sartuko da eta horrela guztiak egin arte.

Ondoren, jarduera zailtzen hasiko da eta saiatuko dira binaka, hiruak... salto egiten. Azkenean, talde guztiak batera saltoak egiten egongo dira.

### Amaiera unea

<b>5. Jardueraren izena</b>	Soka kooperatiboa	<b>Denbora</b>	10 minutu
<b>Materiala</b>	Soka	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

### Helburuak

- Guztiak batera altxatzen saiatzea.
- Kooperazioan lan egitea.
- Besteen dauden egoera aztertzen ikastea.
- Besteen erritmoa errespetatzea eta egokitzea.
- Lagundu.

### Azalpena

Soka luze baten muturrak lotuko ditugu eta zirkulu bat sortuko dugu. Ikasle guztiak soka eskuekin hartuko dute kanpoko aldetik eta zirkulu batean eseriko gara. Sorbalda atzera botako dugu eta indarra atzera egingo dugu, soka tente jarritz. Orduan, "1,2 eta 3" esaterakoan, guztiok batera altxatzen saiatu behar gara. Batera izan behar da ondo ateratzeko, bestela baten bat lurrean gelditu daiteke.

## 6. Saioa= zapiak

### Elkartze gunea

<b>Helburu nagusia:</b> Haien artean laguntzen ikasi eta bestea errespetatzea.			
<b>1. Jardueraren izena</b>	Bilatu bilatu	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Uztailak	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berotzen hasi.</li> <li>- Behaketa landu.</li> <li>- Erreakzioa landu.</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Uztailak gelaren zehar zakabanatuak egongo dira eta ikasle kopurua baino uztail bat gutxiago egongo dira. Musika ipiniko dugu eta ikasleak dantzatzen egongo dira. Musika gelditzen denean, uztail bat bilatzera joango dira eta barruan sartuko dira. Uztail gutxiago bat dagoenez, ikasle bat uztailirik gabe geldituko da. Ondoren, berriro hasiko dira musikarekin ekintza berdina egiteko.</p>			
<b>Ezagutza eraikitzekeo gunea</b>			
<b>2. Jardueraren izena</b>	Zapia	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Zapi bat	<b>Taldekatze mota</b>	Bi talde
<b>Helburuak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kooperazioan ibiliz, zapia lortu edo beste taldea harrapatu</li> <li>- Haien artean erabakiak hartzea.</li> <li>- Besteen gaitasunetan sinestea</li> <li>- Besteak errespetatzea eta laguntzea</li> </ul>			
<b>Azalpena</b>			
<p>Bi talde sortuko dituzte, bost pertsona bakoitzeko. Eta taldeko pertsona bakoitza zenbaki bat izango da, batetik bestera. Lurrean dauden lerro baten gainean kokatuko da talde bakoitza, bi lerro horiek paraleloak izango dira, beraz, taldeak aurrez aurre egongo dira. Bi taldeen erdian pertsona bat egongo da, besoa zuzen izanda zapia mantentzen egongo dena. Eta erdiko pertsona hori zenbaki bat edo gehiago esango ditu. Zenbaki horiek dituzten pertsonak zapia hartzera korrika aterako dira eta aurkaria baino lehenago egiten saiatu behar da. Zapia hartzen duen pertsona bere taldea dagoen lerroa iritsi behar da korrika eginez. Eta beste pertsona,</p>			

lerrora iritsi baino lehen harrapatzen saiatu behar da. Bere eginkizunak betetzen duen pertsona puntu bat lortuko du.

Zenbaki bakarra esaten badu, 1 vs 1 izango da. Bi zenbaki esaten baditu, taldeko bi pertsona horiek burriketon jarri beharko dira. Eta hiru zenbaki esaterakoan, erreginaren eserleku moduan.

<b>3. Jardueraren izena</b>	Baloia aurkitu	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Zapiak eta baloia	<b>Taldekatze mota</b>	Bi talde, 5 pertsona bakoitzeko

#### Helburuak

- Besteen laguntzaz baloia aurkitu
- Kooperazioan ibili
- Taldekoak lagundu
- Seinaleak ondo eman

#### Azalpena

Bi talde sortuko ditugu eta bakoitzean 5 ikasle egongo dira. Lerro bat sortuko du bakoitza eta guztiak aurrera begira jarriko dira. Lerroaren haur guztiak zapi bat begietan jarriko dute, ez ikusteko. Baina azkeneko pertsona ez du ezer jarriko. Lerroko guztiek haien aurrean dagoen pertsonaren sorbaldan eskuak ipini behar ditu, kate bat sortuz. Talde bakoitzaren helburua baloia aurkitzea izango da baina hitz egin gabe. Beraz, azkeneko pertsona baloia non dagoen jakingo du eta lortu behar du talde guztiak baloiarengana joatea. Hori lortzeko eskuekin indikazioak ematen egon behar da eta haien artean transmititu. Adibidez, toke bat ematea “aurrera” izan daite, 2 toke “gelditu”, eskuineko aldea “eskuinera”... Haiek erabakiko dute zein hiztegi erabili. Balaira iristen den lehenengo talde irabazle goraiatu egingo da.

<b>4. Jardueraren izena</b>	Aurkitu zuzena	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Zapiak eta pingpong pilotak	<b>Taldekatze mota</b>	Hirunaka

#### Helburuak

- Ping pong pilota zuzena aurkitu.
- Kooperazioan lan egin.
- Lagundu zure taldekoak.



## Azalpena

Hirunaka jarriko dira eta bakoitzak eremu batean jolastuko dute, txinoekin mugatuko duguna. Eremu horretan pingpong pilota asko egongo dira, txuriak izango direnak eta pilota bat horia izango da. Taldeko pertsona batek begiak zapi batekin estalirik izango ditu eta beste biak indikazioak ematen egongo dira. Eremuaren barne bakarrik begiak estalita dituen pertsona sartu daiteke eta besteak urrunetik indikazioak emango dituzte.

Jolasa aldatzen joango gara, hau da, lehenengo saiakeran indikazioak normal emango dituzte eta erraza egingo zaie pilota zuzena hartzea. Ondoren, denbora mugatu dezakegu, beraz, azkarrago egin beharko dute. Gero, indikazio kopurua mugatu dezakegu. Jolasa guk nahi dugun moduan zaildu dezakegu.

## Amaiera unea

<b>5. Jardueraren izena</b>	Nor da?	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Zapi handi bat	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

## Helburuak

- Lasaitzen hasi.
- Momentu dibertigarri bat bizitzea.

## Azalpena

Gelatik ibiltzen hasiko dira musika lasai batekin. Musika gelditzen denean, guztiak lurrean etzan geldituko dira eta begiak itxi egingo dituzte. Irakasleak zapi handia hartuko du eta ikasle bat estaliko du. Gero, guztiak altxatu ahal direla esango du eta zein ikasle falta den asmatu behar dute.

## 7. Saioa

**Helburu nagusia:** material anitzekin jolas kooperatiboak ezagutu eta jolastu.

## Elkartze gunea

<b>1. Jardueraren izena</b>	Zezena	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Ezer ez.	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

## Helburuak

- Berotzen hasi
- Haien arteko harremana bultzatu.
- Dibertitzea.

### Azalpena

Ikasle bat harrapatzailea izango da eta besteak ihes egin behar dute. Gelatik korrika egiten egongo dira eta harrapatuak ez izateko bankuen gainean igo behar dira. Bankuetan gehienez 10 segundo egon daitezke.

### Ezagutza eraikitzeke gunea

<b>2. Jardueraren izena</b>	Dorrea	<b>Denbora</b>	15 minutu
<b>Materiala</b>	Adreiluak	<b>Taldekatze mota</b>	Bi talde, bostekoak

### Helburuak

- Kooperazioan lan egin.
- Haien artean lagundu.
- Komunikazioa landu.
- Haien arteko harremana bultzatu.

### Azalpena

Bi talde egongo dira eta adreilu pila bat. Taldeei denbora bat emango zaie eta lortu behar dute dorre bat sortzea. Haien helburua ahal duten adreilu gehien jartzea izango da. Denbora bukatzen denean, talde bakoitza zenbat adreilu jarri dituzten zenbatu egingo da.

<b>3. Jardueraren izena</b>	Oreka bankuak	<b>Denbora</b>	20 minutu
<b>Materiala</b>	Bankuak	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera

### Helburuak

- Oreka landu.
- Kooperazioa landu.
- Haien artean lagundu.
- Besteak hobeto ezagutu.

### Azalpena

Bi banku muturrak ondo ondoan jarriko ditugu eta ikasleak haien gainean igoko dira, lerro luze bat sortuz ikasleei nola antolatu behar diren esango diegu eta bankuetatik erori gabe mugitu behar izango dira. Adibidez, altueraren arabera antolatzea eta alde batean pertsona baxuena ipiniko da eta bestean altuena. Edota jaiotze dataren arabera.

<b>4. Jardueraren izena</b>	Altxorra mugitu	<b>Denbora</b>	15 minutu
-----------------------------	-----------------	----------------	-----------

<b>Materiala</b>	Baloi handi bat	<b>Taldekatze mota</b>	Guztiak batera
------------------	-----------------	------------------------	----------------

#### Helburuak

- Komunikazioa landu
- Kooperazioa landu.
- Besteak lagundu.
- Baloia alde batetik bestera eramaten ikasi.

#### Azalpena

Baloi handi bat izango du talde guztia eta lurra ukitu gabe eraman behar dute. Hasiera batean eskuekin eramango dute eta nondik nora eraman behar duten esango diet. Gero, zein gorputz atalarekin hartu behar duten esango diet (burua, sorbalda...).

#### Amaiera unea

<b>5. Jardueraren izena</b>	Zer marraztu dut?	<b>Denbora</b>	15 minutu
-----------------------------	-------------------	----------------	-----------

<b>Materiala</b>	Ezer ez	<b>Taldekatze mota</b>	Binaka
------------------	---------	------------------------	--------

#### Helburuak

- Lasaitzen hasi.
- Besteekin harreman estuagoa sortu.
- Zer marrazten duten asmatu

#### Azalpena

Binaka jarriko dira eta lurrean eseriko dira. Ikasle batek besteari bizkarrean zerbait marraztu egingo dio eta besteak zer den asmatu beharko du. Adibidez, etxea, eguzkia, elefantea...

Eranskinak III → *Egunerokoak*

**Egunerokoak**

## **1. EGUNA 2022.01.22**

Lehenengo eguna iritsi zen eta saioa praktikan eramateko momentua, egia da nahiko urduri nengoela eta zein egoeraren aurrean topatuko nintzela ez nekiela. Haurrak 10:00-retan etorri behar ziren baina nik 15 minutu lehen joatea adostu nuen elkartearen koordinatzaile batekin. Modu honetan, lekua erakutsiko zidan, zein material ditugun... Berarekin elkartu naiz eta saioetara etorriko den haur baten ama zela azaldu dit. Gero, beharrezkoak diren 4-5 gauza aipatu dizkit. Haurrekin ondo egongo nintzela plazaratu dit eta haurrak oso jatorrak direla aipatzen egon da. Bakoitzaren ezaugarri batzuk azaltzen egon da.

10:00-retan haurrak iristen hasi dira, bakoitzak bere ama edo aitarekin. Haurrekin zein gurasoekin hitz egiten egon naiz. Lehenengo nire buru aurkeztu dut eta informazio azkar bat eman diet nire bizitzaren inguruan. Ondoren, zerbitzuaren inguruan hitz egin diet eta aste hauetan zehar egingo ditugun ekintza ezberdinak azaldu ditut. 10 minutu pasa eta gero, gurasoak joan dira eta haurrekin gelditu naiz.

Gurasoak joaterakoan, berokiak utzi dituzte eta bakoitzak jolas batean hasi dira. Batzuk oso azkar jarri dute berokia, beste batzuk mantsoago. Guztiak bukatu dutenean zirkulu bat egin behar genuela esan diet baina gehienak ez dute kasurik egin. Pila bat kostatu zait guztiak lurrean eserita egotea. Momentu honetan zein zaila izango zen saioak aurrera eramatea konturatu naiz. Lortzerakoan, berriro nire buru aurkeztu dut eta haien izenak ezagutu nahi nituela esan diet. Berehala haien izenak esaten hasi dira eta nire inguruan zituzten galdera guztiak. Aldi berean, bakoitzaren izaera ikusten hasi naiz, zeinek hitz egiten duen, nor ez duen kasurik egiten, zein den lotsatia... Sentsazio positiboak transmititu didate lehenengo momentutik, nirekin interakzio handia bilatzen dutelako. Hala ere, bat baino gehiago parte hartu nahi dutenez, kaosa berehala sortzen da. Horregatik txandaka haien inguruan zerbait kontatzea eskatu diet. Isiltasuna lortzea ez da hain zaila baina mugitu gabe egotea asko kostatzen zaie. Ohartu naiz haien artean ez direla ezagutzen, biz pa hiru kontuan hartu gabe. Honek gustatu zait talde berria izango delako eta harreman sortuko direlako.

Jarraitzeko saio hauetan zer egingo dugun azaldu diet eta ondo pasatzeko etorri garela esan diet. Saioetan zehar jolas kooperatiboetan arituko garela esaterakoan zalantza asko izan dituzte eta horien inguruan hitz egiten egon gara. Bukatzerakoan, lehenengo jolasa aurrera eraman dugu.

*Kanasta nahasiaren* jolasa azaltzen hasi diet eta 15 minutu erraz eman ditugu azalpena egiten. Gauzak oso mantso azaldu behar izan ditut, hainbat alditan, adibide ezberdinekin. Ulertzen ari zirela ikusi dudanean, jolasa praktikan jartzea erabaki dut. Haur bakoitza aulki bat hartu du eta borobila sortu dugu. Ni erdian hasi naiz eta haurren bat seinalatu egin dut eta “piña” esan diot. Hasieran, ez zekien zer egin behar zuen eta barrezka hasi da. Beraz, azalpen azkar bat egin diet “piña” eta “naranja” esaterakoan esan behar zenaren inguruan. Berrito hasi naiz eta seinalatu dudanean beste ikasle batek ondo erantzun du. Jolasarekin hasi gara eta gutxi gorabehera aurrera eramanean dute. Bakoitzak bere erritmoa eramanean du eta askotan mantsoago joan behar ziren. Dinamika aurrera eramatea oso zaila zela ikusi dut, haurrek ez zutelako jolasa ondo ulertzen. Hala ere, oso ondo pasa dute, denbora guztian far egiten eta haien artean laguntzen egon dira. Ezagutzeko balio zaie eta izenak ikasten hasi dira. Gainera, haien artean asko galdetzen dira. Ere taldeari kasu handirik egiten ez dioten ikasleak daude. .

Oso gustora egon arren, hurrengo jolasa egingo genuela esan diet eta *anbulantzia* izena duela aipatu diet. Jolasa zertan datza azaldu diet eta aurreko jolasan gertatu den bezala denbora asko galdu dugu. Motibatutak adierazi dira koltxonetak erabili behar genituelako. Bi talde sortu egin ditugu eta koltxoneta bana hartu dute. Hasieratik ondo ulertu dute jarduera eta primeran hasi dira. Ekintzaren momentu batean talde batean liskar bat sortu egin da. Bi neska txanda berdinean koltxonetaren gainean jarri nahi ziren, bakarrik bat jarri ahal denean. Bien artean liskarra hasi da bata txanda eskatuta zuelako eta bestea ezetz esaten zuen. Momentu batean neska batek besteari ostikada bat eman dio eta bestea negarrez hasi da. Berehala banandu ditut eta hitz egitera eramanean ditut. Gertatu denaren inguruan hitz egiten egon gara, bakoitza bere perspektiba kontatzen eta nola sentitu diren adierazten. Ondoren, konponbide bat bilatzea erabaki dugu eta haien artean barkamena eskatu dute. Egia da, neska batek (ostikada eman duena) haserretuta jarraitu duela eta jardueran ez zuela parte hartu nahi azaldu dit. Bestea beldurtuta gelditu da eta denbora guztian beste neska saihesten saiatzen zen. Liskar honetan edo gertaera honetan hainbat esaldi ateratu dira: “yo me voy a poner y tu te callas”, “ah, ah que me haces daño”, “eres una tontaa”, “me tienen cansada”. Azkeneko esaldia beste neska batek esan du, oso lasaia dena eta ez duena liskarrak izaten. Gainera, besteen artean liskarrak ez egotea saiatzen da.

Klasean tentsio egoera egon arren, jarduera bukatzea lortu dugu eta beste haurrak ondo pasa dute. Hurrengo jolasa azaldu diet eta asko gustatzen zaiela adierazi didate askok: “me encanta imitar y bailar”, “¿yo puedo hacer de superman?”... Ikasleen harrera ezin hobea dela konturatu naiz, jolasteko gogo handiak dituzte eta dinamika guztiak ondo iruditzen zaie. Haserretuta zegoen neska jolastu nahi zuela esan digu eta jolasten hasi da. Imitazioak primeran egin dituzte, binaka zein banakakoak. Ez dute lotsarik eta haien esfortzu

guztia jartzen dute besteak ulertzeko. Imitazioa asmatu behar duten pertsonak denbora dezente ematen dute asmatzeko baina asmatzerakoan adierazten duten poztasuna izugarrikoa da. Haien ezagutzen dituzten pertsonaiak aukeratu ditut eta imitatzeko erraztasuna dutenak. Jolasean zehar esandako esaldiak hauek dira: *“yo quiero, yo quiero”* (imitazioa egitea), *“¿pero que bien lo imitas no?”*... Haien artean ez dira asko ezagutzen baina hitz egiteko moduan asko errespetatzen direla nabaritzen da eta maitasunez harremantzen dira.

Hiru jolas aurrera eramatea lortu dugu baina beste bi jolastu gabe gelditu gara. Denbora oso azkar pasa da eta hirugarren jolasa bukatzerakoan joateko momentua izan da. Gurasoak etortzen hasi dira eta bitartean futbolinean jolasten egon naiz haiekin.

Lehenengo klasea aurrera eraman eta gero, hainbat alderditan zentratuko naiz, garrantzitsuenak iruditu zaizkidalako. Denboraren aldetik, gauza bakoitza egitea denbora asko eramaten du. Hasieran denbora galtzen dugu guztiok ez garelako ordu berean irizten, gero gauzak utzi, gurasoak joan, lehenengo ariketa azaldu... Hasieran denbora asko galduko dela kontuan hartu behar da. Bestaldetik, jarduera bakoitzerako denbora dezente utzi behar da, uzte dugun baino denbora gehiago. Egia da, ariketa batzuk oso azkar egiten dituztela eta beste batera pasa nahi dutela baina normalean luzatu egiten dira. Gainera, ezgaitasunak dituztenez uste nuen baino mantsoago gauzatu dira gauzak eta erritmoak oso ezberdinak dira.

Arauen kontua ez dut kontuan izan, klaseetan zehar errespetatu behar diren arau batzuk argi izan behar dituzte, haien artean errespetua ez galtzeko eta dinamikak aurrera eramateko. Ezin dira klase baten haien artean jo eta irainak esan. Laburbilduz, errutina batzuk sortu behar dira, arau batzuk izan eta denboraren kudeaketa egokia egin.

Materialaren aldetik, nahi izan dudana guztia aurkitu dut eta ez dut arazorik izan. Espazioa uste nuen baino txikiagoa da baina gure jarduerak egiteko ez dago arazorik. Gainera, haurrak ezagutzen duten eremua da eta horrek konfiantza transmititzen du.

Bukatzeko, gehien harritu nauena haien harremantzeko era izan da. Normalean haurrak lotsatiago sartzen dira eta ezagutzen ez duten hurrekin kostatzen zaie konfiantza hartzea. Hauek ordeztu, berehala hitz egiten hasi dira eta jolasteko arazorik ez dituzte izan. Gainera, haien artean motibatze eta animatzeko modua izugarri gustatu zait. Nabaritzen da haiekin berdinean egiten dutela eta haien gaitasunetan sinisten dutela. Hala ere, bi nesken arteko liskarra kezkatuta utzi dit eta egunero liskar horiek egongo diren inguruan hausnartu dut. Liskarra konpontzeko zer egin behar nuen ez nekien eta haien arazoa konpontzea ezinezko iruditu zait momentu batean. Azkenean, konpontzen lortu dugu.

## **2. EGUNA 2022.02.12**

Lehenengo egunean ez nekien oso ondo zer aurkituko nuen eta beldur ezberdinekin joan nintzen baina saio honetarako pixka bat prestatuago sentitu naiz. Hasieratik klasea antolatuagoa egotea saiatu naiz. Haurrak irizten ziren momentutik berokia uztea eskatu diet, ahal genuen denbora gutxien galtzeko. Lehenengo egunean baino azkarrago hasi dugu saioa eta berehala jolasten hasi nahi ziren. Horregatik berokia utzi eta jolasten hasi dira. Haien atentzioa lortzeko berriro denbora galdu dut baina ahal izan dudana azkarren lortu dut. Saio hauetan jolas kooperatiboetan aritzen ari garela esan diet, haien burua kokatzeko eta zein ekintzetan gauden jakiteko. Gaurko klasea puxikekin izango zela esan diet eta asko poztu egin dira.

Hasteko armiarmara jolastu dute eta denbora dezente eman dute. Guztiek armiarma izan nahi zutelako, beraz, hainbat alditan jolastu behar izan dugu. Ez dira guztiak armiarma izan baina asko bai, eta hurrengo jolas batean falta direnak harrapatzaileak izango direla adostu dugu. Jolasean zehar bakoitzaren trebetasunak eta abileziak argi ikusten dira. Batzuk oso azkar korrika egiten dute, beste batzuk estrategia onak... Aldi berean, haien erritmoa adinekoentzako motelagoak direla nabaritzen da. Haur batzuk jolasetan irabazi nahi arren, tolesgabetasunarekin jokatzeko dute eta ondo pasatzera etortzen direla nabaritzen da.

Ondoren, puxikekin lehenengo dinamika egin dugu eta taldeka puxika ez erortzea lortu behar zuten. Zirkuluan ipini gara eta oso ondo egiten hasi dira. Puxikari emateko gogoak zituzten eta tentsio momentuak oso dibertigarriak ziren. Egia da, lasaia den ikasleak ez zuela parte hartzen, hau da, zirkuluan zegoen baina puxika bere ondoan pasatzen zenean, beste batek ematen zion. Beraz, arau berria jarri dut eta guztiek puxika ukitu behar dutela esan diet, puntu bat lortu ahal izateko. Momentu horretan, beste haurrak neskari animatzen egon dira eta puxikari emateko laguntzak eman diote.

Hurrengo dinamika antzekoa zela uste nuen baina askoz zailagoa egin zaie, eta gainera, liskar txiki bat egon da. Talde guztiak batera saiatu behar zuten puxika airean mantentzea eta bitartean lurrera esertzen joaten ziren. Zaila egin zaie puxikarengana joatea eta aldi berean noiz eseri edo altxatu behar ziren ulertzea. Hainbat alditan zuzentzen egon naiz eta adibide ezberdinak egiten. Azkenean, poliki joan arren, jolasa ondo gauzatu egin dute. Egia da, momentu batean bi ikasle puxikari ematera joan direla eta batek bestea baino lehen eman dio. Puxikari ez diona eman asko haserretu da eta puxika eskuekin hartu du, jolasa geldituz. Puxika apurtuko zuela mehatxatu egin ditu. Gero bestearen kontra joaten saiatu da baina berehala gelditzea lortu dut. Berarekin hitz egiten egon naiz, haserretzeko ohitura izaten duelako eta dena indarrarekin konpontzen du. Beste haurrak "beldurra" diotela

nabaritzen da. Askotan haserretzen den ikaslea, taldean oso integratuta ez dagoela nabaritzen da. Gainera, taldeko txikiena da, beraz, adina dela eta zaletasun ezberdinak izan ditzaketela ikusten da.. Beste egunean liskarrak izan zituela oroitzen da, beraz, berriro liskarra sortzearen rola hartzen du eta besteei beldurra sartzen saiatzen da.

Bukatzeke binaka jarri dira eta puxika bana eman diet. Dinamika honetan bata besteari masajea eman behar zion puxikarekin. Bitartean musika lasaia jarri diet. Batzuk oso ondo aritu dira eta maitasunarekin eman dute masajea. Beste batzuk jolasteko gogoekin zeuden oraindik eta lasaitzea asko kostatu zaie. Bien artean puxikarekin jolasten zuten masajea eman ordez.

Lehenengo egunean bezala ez ditugu jarduera guztiak aurrera eramane denbora dela eta. Beti pentsatzen ditugun baino jolas gutxiago egiten ditugu. Jarduera bakoitzean denbora dezente egoten gara eta ondo gauzatzeko poliki poliki joan behar gara. Haien harremanei dagokionez, ondo ibiltzen dira klasean. Gehienak haien artean laguntzen dira eta jolasak aurrera eramaten dituzte. Baina ikasle bat haserretzeko ohitura izaten du eta jolas askotan molestutzen du, ez du kasurik egiten, beste jotzen saiatzen da... Honek klaseak askoz zailagoa bihurtzen ditu eta besteen ikaskuntza oztopatzen du. Bestaldetik, beste ikasle baten parte hartzea sustatzea zaila izaten da. Beti lasai dago eta hitz egiteko gogo gutxiarekin. Bakarrik gauzak antolatu nahi ditu eta bere kabuz aritu. Beraz, taldeko dinamiketan eta besteekin egotea zaila egiten zaio, ahal duen guztia sahiesten du. Hala ere, bere aldetik jartzen du eta jardueretan parte hartzen du.

### **3. EGUNA 2022.02.26**

Hirugarren eguna hasteko berokiak utzi dituzte eta egunero galtzen dugun denbora galdu dugu. Borobilean geudenean saio honetan baloiak erabiliko ditugula esan diet eta ideia asko gustatu zaie. Klasea hasi aurretik arau batzuk jarri behar genituela esan diet, haien arteko errespetua eta nireganako errespetua ezin delako inoiz galdu.

Arauk erabakitzen egon gara eta haienezako garrantzitsuak diren puntuak idatzi ditugu: besteak ez jo, besteak ez iraindu, materiala zaindu, besteak laguntzeko prest egon, taldean lan egin... Arau hauek beteko dituztela konpromisoa hartu dute eta klasean ondo ibiliko direla esan dute.

Berotzen hasteko katera jolastu dute, beraz, harrapakari bat aukeratu dugu eta jolasten hasi dira. Lehenengo jolasa azaldu diet baina gehienak jolasa ezagutzen zuten. Ondo aritu dira jolas honetan eta motibaturik egon dira. Korrika pila bat egin dute eta barrezka egon dira. Gela txikia denez nahiko erraza egiten zaie eta kate sortzen hasi dira. Azkeneko pertsona



harrapatzea zailagoa egin zaie, denon artean ados jarri behar zirelako eta hainbat pertsona batera mugitu behar dira. Azkenean, guztiak harrapatuta gelditu egin dira.

Hurrengo jarduera azaldu diet, “*baloï pasa*”. Azaltzen egon naiz eta aldi berean nik egiten, azalpena argiago izateko. Jarraian haiek egiten hasi dira. Lehenengoetan gauza batzuk zuzentzen egon naiz baina gutxi gora behera ondo egiten hasi dira. Oso nabaria izan da haur bakoitzaren erritmoa, batzuk oso azkar egin dute haien jauziak, eta beste batzuk, denbora dezente behar zuten jauzi bakoitzarako. Bestaldetik, ekintza honetan asko gustatu zait haien jarrera. Hau da, jarduera hau aurrera eramateko guztien parte hartzea behar da eta taldean lan egin behar da. Orduan, jauziak egiten zituen taldekideari denbora guztian animatzen egon dira. Haien artean asko laguntzen dira eta eroso sentiarazten saiatzen dira. Erabili dituzten esaldi batzuk: “VENGA VENGA que tú puedes”, “eres la mejor! salta salta!”, “tu al ritmo que puedas tranquila”...

Ondoren, “*taldearen baloia*” jolasa azaltzen hasi diet eta lortu behar duten erronka ulertu dute. Bi lerroak sortu dituzte eta jolasa hasi egin da. Paseak pertsonaren arabera azkarrak edo motelak izan dira. Momentu batean neska batek beste bati baloia oso azkar bota dio eta lurrera erori zaie. Eskuekin hartu ez duen neska haserretu egin da eta oso gaizki pasa diotela esan du. Besteak bera txarra dela esan dio eta horregatik ez duela hartu aurpegiratu dio. Biak irainak esaten hasi dira, eta gero batek bere kontra joango zelaren keinua egin du. Ezer ez gertatu baino lehen egoera gelditu dut eta zer gertatzen ari zen galdetu diet. Bakoitzak bere perspektiba azaldu dit eta besteak kulpazuela esan dute. Beste haurrak ez zela inoren kulpazuela esan dute eta erortzea edo pase txar bat ematea normala dela esan dute. Azkenean, berriro saiatuko dutela esan dute eta aldi honetan ez diotela besteari kulpazuela botako.

Hainbat saiakera egin dituzte eta denbora luzez egon eta gero, erronka gainditzea lortu dute. Bukatzerakoan, ordua zela konturatu gara eta guraso batzuk kanpoan itxoiten ari ziren. Gauzak bildu dituzte eta saioa bukatu egin da.

Haien harremanak gehien arritzen nauten gauza da. Beraien artean kontu handiz tratatzen dira eta asko zaintzen dira. Beti besteak ondo egoteaz kezkatzen dira. Gainera, haien artean asko motibatzen dira, gai direla esaten dira, besteak laguntzeko prest daude... Aldi berean, haserretzeko ohitura handia daukate. Haien artean gauza txikiengatik haserretzen dira. Ez da guztiekin gertatzen eta beti 2 haur berdinak dira, hala ere, haserretzen direnean indarra erabiltzen saiatzen dira. Ere gauza txarrak egiten saiatzen dira, adibidez, gauzak apurtu, haien gorputzari mina egin, hitz txarrak bere buruari esan... Normalean oso azkar ahazten zaie eta barkamena eskatzeko izugarritzko gaitasuna dute. Ikusten da ez direla konturatzen egiten duten minaz eta besteak ondo sentiarazten saiatzen direla. Batzuetan esaten dituzten

esaldiak: “soy mala”, “me voy a morder por portarme mal”, “que lo rompo ehhh que lo rompo”.

#### **4. EGUNA 2022.03.05**

Laugarren eguna denez, klasea ahal dugun lehen hastea helburu moduan pentsatu dut. Modu honetan, prestatuta neuzkan jarduera guztiak egitera iristeko. Haur gehienak orduan iritsi dira eta berokia utzi dute. Hasieratik, lehenengo jarduera hasi behar genuela esan diet eta borobilean jarri behar zirela. Gehiengoak kasu egin dute eta besteak 2 minutu korrika egin eta gero eseri egin dira. Beraz, beste egunetan baino lehenago hastea lortu dugu.

Berotzen hasteko stop jolasa aurkeztu diet eta gehienek ezagutzen zuten jolasa. Oraindik harrapakariak izan ez direnak aukeratzen egon naiz eta ondo pasa dute. Guztiak parte hartu dute, bakoitzak bere erritmoa errespetatzen. Hau da, batzuk beti parte aktiboa daukate eta denbora guztian korrika daude. Beste batzuk haien erritmoa daramate eta beste guzietan egoten dira. Baina harrapatzen dituztenean besteak harrapatzera joaten dira eta jolasean parte hartzen dute. Haien artean zein harreman mota sortu diren oso nabaria da. Batzuk protagonistak eta liderrak izan nahi dira. Beraz, besteei aginduak ematen dizkiete eta jolasetan erabaki asko hartzen dituzte. Beste batzuk berriz, besteen aginteak entzuten eta betetzen dituzte, eta beste batzuk pasa egiten dute.

Uztailekin egingo duten lehenengo jarduera “*guztiak batera*” izango zela esan diet. Jarduera nolakoa den, zein material erabiliko ditugun...azaltzen egon naiz. Motibaturik adierazi dira musika jarriko dudalako eta hasteko gogoekin egon dira. Beraz, uztailak kokatu ditugu eta musika jarri dugu. Dantzatzen, korrika...hasi dira oso pozik eta musika gelditu dut eta “3” esan diet. Haur batzuk beste ikasle bat bilatzen hasi dira eta hiruak jartzen saiatu dira. Beste batzuk uztail huts batean sartu dira. Ikusi egin dudanez guztiak ez dute jolasa ulertu eta berriro azaldu behar izan diet. Berriz azaldu eta gero, musika berriro jarri dut eta “2” zenbakia oihukatu diet. Aldi honetan, guztiak binaka jarri dira. Hemendik aurrera jolasa primeran egin dute eta oso ondo pasa dute. Haien gorputza libre mugitzea asko gustatzen zaie eta bakoitzak nahi dituen mugimenduak egin ditu.

Gero “*itsasontzi txikia*” jolasean arituko ginela esan diet. Bi talde sortzen egon gara eta denbora dezente galdu dugu. Azkenean, taldeak eta materialak banatuta zeudenean jarduera hasi dugu. Talde batek oso ondo moldatu egin da eta poliki poliki aurrera egiten joan da. Talde horretako haurrak elkar laguntzen ziren eta arazo gehiago zituen ikasleari animatzen zioten. Beste taldeko haurrek liskar gehiago izan dituzte. Ikasle batek ez du ondo ulertu jolasa edo ez zuen parte hartu nahi, eta bera denbora guztian uztail batekin egon nahi zela esaten zuen. Gero jarduera egiten ari zirenean bere uztailan ezin zela inork sartu

esaten zuen. Arrazoa ez zuela ulertzeko denbora asko erabili dugu eta besteak berarekin haserretu dira. Azkenean, besteak jolasten utzi die eta haserretuta joan egin da. Bi taldeak lortu dute eremu batetik bestera joatea eta ez dira bidetik erori. Talde lana oso ondo egiten dute eta haien artean laguntzen dira.

Amaierako jolasa egitea pentsatu dut, bestea egiteko denbora ez genuelako. Orduan, “*uztailatik pasa*” erronka egiten aritu gara. Borobila egin dugu eta eskuak eman ditugu, nire aldetik hasi da uztaila pasa eta ni sartu egin naiz lehenengoa. Ondoren nire ondoan zegoen haur bat. Gero bere albokoa, pixka bat gehiago kostatu zaiola. Besteak pasatzen ari ziren bitartean, besteak animatzen egon dira eta oso dibertigarria eta farregarria iruditu zaie. Primeran pasa dute jolas honekin eta erronka gainditu dute. Guztiek parte hartu dute eta oso pozik bukatu dugu saioa.

Saio honetan gauzak asko hobetu egin direla nabaritzen dut, hainbat kontzeptu berri ulertzen ari direlako. Haien arteko harremana hobetzen doa eta haien arteko gatazkak azkarrago konpontzen ditugu. Bestaldetik, denboraren aldetik, ezinezkoa egiten zait prestatutako guztia aurrera eramatea. Egiten ditugun jarduerak ondo egitea nahiago dut eta batzuk egin gabe uztea. Bestela oso azkar egin beharko genituzke eta ez lukete hainbeste ikasiko.

## **5. EGUNA 2022.03.26**

Gaur bi ikasle oso berandu iritsi dira eta saioa hasteko denbora pila galdu dugu. Egoera honek, hasieratik jarduera guztiak ez genituela gauzatuko sentiarazi dit eta kezkatzen hasi naiz. Iritzi direnean txipa aldatzea erabaki dut eta ahal dugun guztia eta hoberen egitea proposatu dut.

Gainera, autismoa daukan ikasle batek gaizki etorri da. Bere amak azaldu dit ez zekiela zer gertatzen zitzaion baina ez zuela ondo ikusten. Ez du inorekin jolastu eta hasieratik sofa baten azpian sartu da.

Lehenengo jolasarekin hasi gara, berotzen hasteko, “buztana”-ren jolasean ibili gara. Oso dibertigarria iruditu zaie jolasa eta primeran pasa dute. Batzuetan liskarrak zeuden buztan bat hartu ordez, gehiago hartzeagatik. Baina berehala buztana bueltatzen zituzten eta jolasten jarraitzen zuten. Nahiko azkar ulertu dute jolasa eta ondo bideratu dute, hasieran zuzenketa batzuk egin arren. Haien adinetarako aproposa dela ikusi dut eta gustuko izan dutela. Autismoa daukan haurrarekin hitz egiten saiatu naiz eta jolastera animatu diot, hala ere, ezinezkoa egin zait eta ez dit kasurik egin, beraz bakarrik utzi diot.

Ondoren, soka salto tradizionaleko jolasetan aritu gara. Hiru jolas ezberdinetan egon gara jolasten. Lehenengo jolasa ezagutzen zuten (erlojua) eta berehala hasi dira jolasten. Momentu batean bi ikasle erdian ipini nahi ziren eta soka tiratzen egon dira. Hitz egiten egon gara eta guztiontzako denbora dagoela azaldu diet. Haur batek besteari txanda utzi dio eta ondoren berak hartu egingo zuela aipatu du.

Gero “suge-txikia”-ra jolasten egon dira. Gehien gustatu zaien ekintza izan da eta far asko egin dute. Ikasle batek sokak maite dituela nabaritu da eta jolas guztietan trebetasun asko erakutsi du. Jolasten ari zirenean musika entzuten zuten eta motibatuagoak jolasten zuten, bitartean dantzatzen zeudela.

Eta jolas honen azkeneko jarduera “linbo” izan da. Guztiak ezagutzen zuten eta primeran egin dute. Neska bati lotsa ematen zion bakarrik pasatzea, beraz, berarekin pasa naiz eta hortik aurrera bera bakarrik pasatzen egon da. Gaitasun handiak erakutsi dute jarduera honetan, malgutasun handia dute. Denbora asko eman dugu hiru ekintza hauetan, oso pozik eta motibaturik ibili direlako.

Denbora gutxi falta zenez, bakarrik jolas bat gehiago egitea erabaki dut. “Soka kooperatiboa” egitea esan diet eta azalpen azkar bat egin dugu. Hainbat saiakera egin dugu eta guztiak batera egiten saiatzen ginen baina ezinezkoa egin zaigu. Soka gogor hartzen genuen baina beti norbait azkarrago altxatzen zen, edo ez ziren guztiak altxatzen, norbait erortzen zen... Ordua iritsienez, utzi izan behar dugu baina beste egun batean saiatu ahal garela aipatu diet.

Saioa oso ondo joan da eta asko gustatu zaizkie egindako jolasak. Sokarekin ekintza anitzak egin daitezke eta baliabide on bat dela konturatu naiz. Aldi berean, mina egitea oso erraza izan daiteke, adibidez, bi ikasle batera tira egitea, eskuekin indar asko egin, zartadak ematea...beraz, kontu handiz ibili behar gara ikasleak mina ez hartzeko eta materiala ondo erabiltzeko.

Bestaldetik, pixka bat kezkatuta utzi nau autismoa duen ikasleak. Hasieran ez zuen jolastu nahi eta belarriak estaltzen zituen. Gainera, gauzak esaten zituen baina ez zitzaion ulertzen, askotan bera bakarrik hitz egiten du eta bere munduan dagoela dirudi. Jolas guztietan parte hartzera animatu diot eta ondo pasatuko zuela aipatu diot baina ez du ezertarako balio izan. Azkenean, “linbo” jolasean parte hartu du eta ondo ibili da. Hala ere, momentu horretan laguntzeko baliabide gabe ikusi naiz eta ez nekiela egoera nola bideratu. Haurrari laguntzeko ez nekien zer egin behar nuen eta ez nekien laguntzen nenbilen edo kaltetzen. Gutxienez azkenean parte hartu du eta pozik bukatu du saioa.

Azkenik gomatxoak itsatsiz ebaluazioa egin dute eta nola sentitu diren adierazi digute.

## **6. EGUNA 2022.04.02**

Eguna ondo hasi da guztiak puntual iritsi direlako eta bere berokia utzi dute. Lehenengo jarduera azaltzeko eguneroko borobila egin dugu eta haien astearen inguruan gauzak kontatu dizkidate. Ondoren, “bilatu bilatu” jolasean arituko ginela esan diet eta azalpenak eman diet. Hainbat zalantza izan dituzte eta gero jolasten hasi gara. Dantzatzen eta korrika hasi dira musika entzuten zuten bitartean, beste batzuk uztail baten ondoan gelditzen ziren musika gelditzen baldin banuen hurbil egoteko. Hori ezin zela egin azaldu diet eta besteak bezala mugitzen egon dira. Nahiko ondo egin dute jarduera eta arauak ondo ulertu dituzte. Askok gustatzen zaie musikarekin erlazioa duten jarduerak.

Bigarren jolasa *zapia* izango zela esan diet eta guztiek ezagutzen zuten. Hala ere, moldaketa txiki bat egingo genuela azaldu diet, kooperazioa lantzeko asmoz. Batzuetan binaka edo hirunaka atera beharko zirela eta bata bestearen gainean jarri. Bi talde sortu ditugu eta taldekatzeetan beti denbora asko galtzen da. Guztiak kapitainak izan nahi dira eta bere taldea erabaki, beraz, aldi honetan taldeak nik egin ditut. Bi taldeak eginak egon direnean, zenbakiak jartzen egon dira eta berriro denbora galdu dute. Jolasa abian jartzerakoan, desastre bat izan da. Banaka atera behar zirenean gutxi gora behera ondo egiten zuten eta motibaturik zeuden. Baina binaka edo hirunaka jartzerakoan ez ziren ondo komunikatzen, erabaki bat jartzeko denbora asko behar zuten, erori egiten ziren, ez zuten haien zenbakia oroitzen... Egia da, barre asko egin dugula eta ondo pasa dugula baina ez da jolasa atera eta desastre bat izan da.

Jolasean denbora asko galdu dugula ikusita eta ez zutela lortzen, hurrengora pasatzea erabaki dut. “*Baloia aurkitu*” izan da hurrengo jolasa eta aurreko jolasean erabili ditugun taldeak erabili ditugu. Jolasa ondo ulertu egin dute eta atzeko pertsona nor izango zen nik aukeratu dut. Baloia bilatzen hasi dira haien aukeratutako keinuekin eta poliki poliki aurrera egin dute. Keinu errazak sortu dituzte ez ahazteko: golpe bat sorbaldan *aurrera*, eskuinean golpe bat *eskuinera*, ezkerrean golpe bat *ezkerrera* eta bi golpe bizkarrean *gelditu*. Hala ere, askotan tranpak egiten zituzten eta hitz egiten zuten: “que vayas para adelante”, “soy un ciego”, “aquí no hay ninguna pelota”, “¿eso que era?”... Momentu batean, ikasle batek haserretu egin da bere indikazioak ez zituztelako ulertzen eta bera ondo egiten ari zela esanez. Horregatik momentu batean jolasetik atera da eta eskuetako gela hartu du jango zuela mehatxu eginez: “me lo como me lo como”. Hasiera batean zurrupatu egin du bere eskua gelarekin eta ahal izan dudana momentuan kendu egin diot. Hori jatea oso txarra zela azaldu diot eta gero tripako mina izango zuela abisatu diot.

Denbora gutxi gelditzen zela ikusita, azkeneko jolasa egin dugu “*nor da?*” izenekoa. Manta batekin ikasle bat estaliko nuela esan diet eta besteek asmatu behar zutela nork den. Hasieran oso erraza izango zela esan didate eta gogoekin hasi dira. Beraz, musika jarri eta mugitzen hasi dira. Musika gelditu dut, guztiak lurrean etzan dira begiak estalita eta ikasle bati manta jarri diot. Besteak altxatu direnean eta mantaren azpian konkorr bat zegoela ikusita saltoka hasi dira. Ez zekiten nork zegoen eta haien artean begiratzen hasi dira. Guztiak zeudela esaten zuten: “pero si estamos todos!!!”, “¿quién falta, quién falta?... Azkenean, oso lasaia den ikasle batek ikaslearen izena esan du eta lurretik altxatu da. Beste hainbat alditan egin dugu jolasa eta primeran pasa dute. Asko gustatu zaie jolas hau eta oso dibertigarria iruditu zaie.

Saioa bukatzeko ebaluazioa egin dute eta gomaxoekin nola sentitu diren azaldu digute. Batzuk azaldu nahi izan dute zergatik aukeratu duten aurpegi bat edo beste bat, eta egoeraren batean nola sentitu diren esan dute.

## **7. EGUNA 2022.04.30**

Haur guztiak etorri dira oso pozik eguraldia dela eta, beraz saio on bat izango zela pentsatu dut. Hasieratik azkeneko saioa izango zela esan diet eta guztiak besarkada bat ematera gerturatu dira. Azkeneko saioa denez ondo pasatzera jatozela gogoratu diet eta jolas asko egingo ditugula.

Berotzen hasteko *zezena* jolasa azaldu diet, eskoletan asko gustatzen zaie jolasa dena. Jolasean zehar ondo ibili arren, bankuetan azkar igotzea pixka bat arriskutsua iruditu zait. Egia da, ez zaiela ezer gertatu baina denbora guztian tentsioan egon naiz, inork mina ez hartzeko. Asko gustatu zaie eta parte aktiboa izan dute. Momentu batean, neska batek beste bat harrapatzera joan da eta pixka bat bultzatu dio, neskak gaizki hartu du eta tuntuna zela esan dio. Gainera, beraren kontra joateko keinua egin du baina ez da berarengana joan. Besteak nahi gabe egin duela esan dio eta bere tuntuna ez dela adierazi dio. Azkenean konpondu egin dute eta jolasten jarraitu dute.

Ondoren, *dorrea egitearen* erronka egingo genuela esan diet. Bi talde sortu egin ditugu eta dorrea egiten hasi dira. Adreiluak erabiltzea asko gustatu zaie, material berria zelako eta normalean erabiltzen duten materialetan ez direlako sartzen. Dorrea egiten saiatu dira, lehenengo denborarik gabe, materiala probatzen egoteko. Gero denbora jarri diet motibazio bat izateko eta haien artean lehiaketa txiki bat egoteko. Askotan erortzen zitzairen arren, ondo ibili dira eta gustatu zaie.

Hurrengo jarduera ezinezkoa izan da eta desastre bat izan da, “*oreka bankuak*”. Bankuetan jartzen ziren baina lekuz aldatzerakoan, denbora guztian erortzen ziren. Ez dute lortu norbaitek ez erortzea eta oso zaila egin zaie. Egia da, barre egin dutela eta hainbat saiakera egin dituztela, hau da, motibazioa ez zuten galtzen. Hala ere, haien gaitasunetarako oso zaila den jarduera izan da, oreka mantentzea ezinezkoa egiten zitzaielako.

Azkeneko eguna zenez, merendola txiki bat egin diet eta hemendik aurrera libre utzi diet. Beraz, patata batzuk jaten ari ziren bitartean, baloiekin, sokekin, uztailekin...jolasten egon dira. Gehien gustatu zaiena dela dirudi, haiek nahi duten jarduera egin ahal dutelako eta aldi berean janari ona jan. Asko gustatu zait haiekin jolastea eta haien jolasak ezagutzea. Gainera, zuzendariaren papera hartzen zuten eta batzuk agintzea maite dute.

Merendola egiten egon garen aldi berean, ebaluazioa egin dute. Gomatxoak hartu dituzte eta nola sentitu diren jarri dute. Egunero egin dugun bezala.

Klase zoragarriak izan dira eta haiengandik asko ikasi dudala ikusi dut. Bizitza ikusteko beste perspektiba bat erakutsi didate eta haien maitasuna zein poztasuna transmititu didate. Ezgaitasun bat izan arren, bizitzeko gogo izugarriak adierazten dituzte eta beti alde ona ikusten dute. Gainera, pertsonak primeran tratatzen dituzte eta laguntzeko prest daude. Ez dute ia gorrotorik eta barkamena eskatzeko gaitasun harrigarria daukate.

Klaseak aurrera eramatea askoz zailagoa iruditu zait, ikasle bakoitzaren egoera oso desberdinak direlako eta gaitasun anitzak daude. Beraz, jarduerak guztiei egokitzea ezinezkoa izaten zen. Gainera, jarduera bakoitza egiteko denbora asko behar da eta uste duzun baino denbora gehiago galtzen da. Beraz, denboraren kudeaketa oso garrantzitsua da.

Bestaldetik, ikasle bakoitzaren gaitasunetan sinestea ezinbestekoa da, gure animuekin konfiantza handia lortzen dute eta motibatuagoak lan egiten dute. Beraz, gure animua transmititu behar diegu denbora guztian eta maitasun handia eman. Haiek denbora guztian maitasuna adierazten dute eta baldintzarik gabekoa izaten da.

## **Egunerokoen kategorizazioa**

### ***ESPERIENTZIA ETA HARREMANAK***

#### ***5.1. Esperientzia eta harremanak***

- ***Esperientzia eta anekdotak:*** Haurrak 10:00-retan etorri behar ziren baina nik 15 minutu lehen joatea adostu nuen elkartearen koordinatzaile batekin. Modu honetan,

lekua erakutsiko zidan, zein material ditugun... Berarekin elkartu naiz eta saioetara etorriko den haur baten ama zela azaldu dit. Gero, beharrezkoak diren 4-5 gauza aipatu dizkit. Hurrekin ondo egongo nintzela plazaratu dit eta haurrak oso jatorrak direla aipatzen egon da. Bakoitzaren ezaugarri batzuk azaltzen egon (*Egunerokoa*, 2022.01.22).

- **Esperientzia eta anekdotak:** Gurasoak joaterakoan, berokiak utzi dituzte eta bakoitzak jolas batean hasi dira. Batzuk oso azkar jarri dute berokia, beste batzuk mantsoago. Guztiak bukatu dutenean zirkulu bat egin behar genuela esan diet baina gehienak ez dute kasurik egin. Pila bat kostatu zait guztiak lurrean eserita egotea (*Egunerokoa*, 2022.01.22).
- **Esperientzia eta anekdotak:** *Kanasta nahasiaren* jolasa azaltzen hasi diet eta 15 minutu erraz eman ditugu azalpena egiten. Gauzak oso mantso azaldu behar izan ditut, hainbat alditan, adibide ezberdinekin (*Egunerokoa*, 2022.01.22).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Zirkuluan ipini gara eta oso ondo egiten hasi dira. Puxikari emateko gogoak zituzten eta tentsio momentuak oso dibertigarriak ziren (*Egunerokoa*, 2022.02.12).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Bukatzeko binaka jarri dira eta puxika bana eman diet. Dinamika honetan bata besteari masajea eman behar zion puxikarekin. Bitartean musika lasaia jarri diet. Batzuk oso ondo aritu dira eta maitasunarekin eman dute masajea. Beste batzuk jolasteko gogoekin zeuden oraindik eta lasaitzea asko kostatu zaie. Bien artean puxikarekin jolasten zuten masajea eman ordeztu (*Egunerokoa*, 2022.02.12).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Oso nabaria izan da haur bakoitzaren erritmoa, batzuk oso azkar egin dute haien jauziak, eta beste batzuk, denbora dezente behar zuten jauzi bakoitzarako (*Egunerokoa*, 2022.02.26).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Dantzatzen, korrika...hasi dira oso pozik eta musika gelditu dut eta "3" esan diet. Haur batzuk beste ikasle bat bilatzen hasi dira eta hirunaka jartzen saiatu dira. Beste batzuk uztail huts batean jarri dira. Ikusi egin dudanez guztiak ez dute jolasa ulertu eta berriro azaldu behar izan diet (*Egunerokoa*, 2022.03.05).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Amaierako jolasa egitea pentsatu dut, beste jolasak egiteko denbora ez zegoela ikusita. Orduan, "*uztailatik pasa*" erronka egiten aritu gara. Borobila egin dugu eta eskuak eman ditugu, nire aldetik hasi da uztaila pasa



eta ni sartu egin naiz lehenengoa. Ondoren nire ondoan zegoen haur bat. Gero bere albokoa, pixka bat gehiago kostatu zaiola. Besteak pasatzen ari ziren bitartean, besteak animatzen egon dira eta oso dibertigarria eta farregarria iruditu zaie. Primeran pasa dute jolas honekin eta erronka gainditu dute. Guztiek parte hartu dute eta oso pozik bukatu dugu saioa (*Egunerokoa, 2022.03.05*).

- **Esperientzia eta anekdotak:** Gainera, autismoa daukan ikasle batek gaizki etorri da. Bere amak azaldu dit ez zekiela zer gertatzen zitzaien baina ez zuela ondo ikusten. Ez du inorekin jolastu nahi eta hasieratik sofa baten azpian sartu da (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Lehenengo jolasarekin hasi gara, berotzen hasteko, buztanaren jolasera. Oso dibertigarria iruditu zaie jolasa eta primeran pasa dute. Batzuetan liskarrak zeuden buztan bat hartu ordez, gehiago hartzeagatik. Baina berehala buztana bueltatzen zituzten eta jolasten jarraitzen zuten (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Momentu batean bi ikasle erdian ipini nahi ziren eta soka tiratzen egon dira. Hitz egiten egon gara eta guztiontzako denbora dagoela azaldu diet. Haur batek besteari txanda utzi dio eta ondoren berak hartu egingo zuela aipatu du (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Gero “suge-txikia”-ra jolasten egon dira. Gehien gustatu zaien ekintza izan da eta far asko egin dute. Ikasle batek sokak maite dituela nabaritu da eta jolas guztietan trebetasun asko erakutsi du. Jolasten ari zirenean musika entzuten zuten eta motibatuagoak jolasten zuten, bitartean dantzatzen zeudela (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Denbora gutxi falta zenez, bakarrik jolas bat gehiago egitea erabaki dut. “Soka kooperatiboa” egitea esan diet eta azalpen azkar bat egin dugu. Hainbat saiakera egin dugu eta guztiak batera egiten saiatzen ginen baina ezinezkoa egin zaigu. Soka gogor hartzen genuen baina beti norbait azkarrago altxatzen zen, edo ez ziren guztiak altxatzen, norbait erortzen zen... Ordua iritsi denez, utzi izan behar dugu baina beste egun batean saiatu ahal garela aipatu diet.
- **Esperientzia eta anekdotak:** Jolasa abian jartzerakoan, desastre bat izan da. Banaka atera behar zirenean gutxi gora behera ondo egiten zuten eta motibaturik zeuden. Baina binaka edo hirunaka taldekatzerakoan ez ziren ondo komunikatzen,

erabaki bat jartzeko denbora asko behar zuten, erori egiten ziren, ez ziren haien zenbakia oroitzen... (Egunerokoa, 2022.04.02).

- **Esperientzia eta anekdotak:** Baloia bilatzen hasi dira haien aukeratutako keinuekin eta poliki poliki aurrera egin dute. Keinu errazak sortu dituzte ez ahazteko: golpe bat sorbaldan *aurrera*, eskuinean golpe bat *eskuinera*, ezkerrean golpe bat *ezkerrera* eta bi golpe bizkarrean *gelditu* (Egunerokoa, 2022.04.02).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Denbora gutxi gelditzen zela ikusita, azkeneko jolasa egin dugu “*nor da?*” izenekoa. Manta batekin ikasle bat estaliko nuela esan diet eta besteek asmatu behar zutela nork den. Hasieran oso erraza izango zela esan didate eta gogoekin hasi dira. Beraz, musika jarri eta mugitzen hasi dira. Musika gelditu dut, guztiak lurrean etzan dira begiak estalita eta ikasle bati manta jarri diot. Besteak altxatu direnean eta mantaren azpian konkor bat zegoela ikusita saltoka hasi dira. Ez zekiten nor zegoen eta haien artean begiratzen hasi dira (Egunerokoa, 2022.04.02).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Dorrea egiten saiatu dira, lehenengo denborarik gabe, materiala probatzen egoteko. Gero denbora jarri diet motibazio bat izateko eta haien artean lehiaketa txiki bat egoteko. Askotan erortzen zitzairen arren, ondo ibili dira eta gustatu zaie (Egunerokoa, 2022.04.30).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Hurrengo jarduera ezinezkoa izan da eta desastre bat izan da, “*oreka bankuak*”. Bankuetan jartzen ziren baina lekuz aldatzerakoan, denbora guztian erortzen ziren. Ez dute inork lortu ez erortzea eta oso zaila egiten zitzairen. Egia da, barre egin dutela eta hainbat saiakera egin dituztela, hau da, motibazioa ez zuten galtzen. Hala ere, haien gaitasunetarako oso zaila den jarduera izan da, oreka mantentzea ezinezkoa egin zaielako (Egunerokoa, 2022.04.30).
- **Esperientzia eta anekdotak:** Azkeneko eguna zenez, merendola txiki bat egin diet eta hemendik aurrera libre utzi diet. Beraz, patata batzuk jaten ari ziren bitartean, baloiekin, sokekin, uztailekin... jolasten egon dira. Gehien gustatu zaiena dela dirudi, haiek nahi duten jarduera egin ahal dutelako eta aldi berean janari ona jan (Egunerokoa, 2022.04.30).

## 5.2. Harremanak (ikasleen arteko harremana, rolak, irakaslearekiko harremana)

- **Harremanak- ikasleen arteko harremanak:** Ohartu naiz haien artean ez direla ezagutzen, biz pa hiru kontuan hartu gabe. Honek gustatu zait talde berria izango delako eta harreman sortuko direlako (Egunerokoa, 2022.01.22).

- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Ezagutzeko balio zaie eta izenak ikasten hasi dira. Gainera, haien artean asko galdetzen dira, eta bestaldetik, batzuk taldeari ez diote kasu handirik egiten (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Bestea beldurtuta gelditu da eta denbora guztian beste neska saihesten saiatzen zuen (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** “eres una tontaa” (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Haien artean ez dira asko ezagutzen baina hitz egiteko moduan asko errespetatzen direla nabaritzen da eta maitasunez harremantzen dira (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** gehien harritu nauena haien harremantzeko modua izan da. Normalean haurrak lotsatiago sartzen dira eta ezagutzen ez duten hurrekin kostatzen zaie konfiantza hartzea. Hauek orde, berehala hitz egiten hasi dira eta jolasteko arazorik ez dituzte izan. Gainera, haien artean motibatze eta animatzeko modua izugarri gustatu zait. Nabaritzen da haiekin berdin egiten dutela eta haien gaitasunetan sinisten dutela (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Momentu horretan, beste haurrak neskari animatzen egon dira eta puxikari emateko laguntzak eman diote (*Egunerokoa, 2022.02.12*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Beste haurrak “beldurra” diotela nabaritzen da eta normalean haserretzen den ikaslea, ez da taldean integratuena dagoen ikaslea (*Egunerokoa, 2022.02.12*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Orduan, jauziak egiten zituen taldekideari denbora guztian animatzen egon dira. Haien artean asko laguntzen dira eta eroso sentiarazten saiatzen dira (*Egunerokoa, 2022.02.26*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Haien harremanak gehien arritzen nauten gauza da. Beraien artean kontu handiz tratatzen dira eta asko zaintzen dira. Beti besteak ondo egoteaz kezkatzen dira. Gainera, haien artean asko motibatzen dira, gai direla esaten dira, besteak laguntzeko prest daude... (*Egunerokoa, 2022.02.26*).

- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Talde batek oso ondo moldatu egin da eta poliki poliki aurrera egiten joan da. Talde horretako haurrak elkar laguntzen ziren eta arazo gehiago zituenari animatzen zioten. Beste taldeko haurrek liskar gehiago izan dituzte (*Egunerokoa, 2022.03.05*).
- **Harremanak-ikasleen arteko harremanak:** Gainera, pertsonak primeran tratatzen dituzte eta laguntzeko prest daude. Ez dute ia gorrotorik eta barkamena eskatzeko gaitasun harrigarria daukate (*Egunerokoa, 2022.04.30*).
- **Harremanak- rolak:** Berehala haien izenak esaten hasi dira eta nire inguruan zituzten galdera guztiak. Aldi berean, bakoitzaren izaera ikusten hasi naiz, zein hitz egiten du, nork ez du kasurik egiten, zein da lotsatia... (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Harremanak - rolak:** Egia da, lasaia den ikasleak ez zuela parte hartzen, hau da, zirkuluan zegoen baina puxika bere ondoan pasatzen zenean, beste batek ematen zion (*Egunerokoa, 2022.02.12*).
- **Harremanak-rolak:** Gainera, taldeko txikiena da eta batzuetan nabaritzen da. Beste egunean liskarrak izan zituela oroitzen da, beraz, berriro liskarra sortzearen rola hartu du eta besteei beldurra sartzen saiatzen da (*Egunerokoa, 2022.02.12*).
- **Harremanak-rolak:** Aldi berean, haserretzeko ohitura handia daukate. Haien artean gauza txikiengatik haserretzen dira. Ez da guztiekin gertatzen eta beti 2 haur berdinak dira, hala ere, haserretzen direnean indarra erabiltzen saiatzen dira. Ere gauza txarrak egiten saiatzen dira, adibidez, gauzak apurtu, haien gorputzari mina egin, hitz txarrak bere buruari esan... Normalean oso azkar ahazten zaie eta barkamena eskatzeko izugarrizko gaitasuna dute (*Egunerokoa, 2022.02.26*).
- **Harremanak-rolak:** “soy mala”, “me voy a morder por portarme mal”, “ que lo rompo ehhe que lo rompo” (*Egunerokoa, 2022.02.26*).
- **Harremanak-rolak:** Guztiek parte hartu dute, bakoitzak bere erritmoa errespetatuz. Hau da, batzuk beti parte aktiboa daukate eta denbora guztian korrika daude. Beste batzuk haien erritmoa daramate eta beste gauzetan egoten dira. Baina harrapatzen dituztenean harrapatzera joaten dira eta jolasean parte hartzen dute (*Egunerokoa, 2022.03.05*).
- **Harremanak-rolak:** Asko gustatu zait haiekin jolastea eta haien jolasak ezagutzea. Gainera, zuzendariaren papera hartzen zuten eta batzuk aginteak ematea maite dute (*Egunerokoa, 2022.04.30*).

- **Harremanak-irakaslearekiko jarrera:** Hala ere, hainbat parte hartu nahi dutenez, kaosa berehala sortzen da. Horregatik txandaka haien inguruan zerbait kontatzea eskatu diet. Isiltasuna lortzea ez da hain zaila baina mugitu gabe egotea asko kostatzen da (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Harremanak-irakaslearekiko jarrera:** Hurrengo jolasa azaldu diet eta asko gustatzen zaiela adierazi didate askok: “*me encanta imitar y bailar*”, “*¿yo puedo hacer de superman?*”... (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Harremanak-irakaslearekiko jarrera:** Autismoa daukan haurrarekin hitz egiten saiatu naiz eta jolastera animatu diot, hala ere, ezinezkoa egin zait eta ez dit kasurik egin, beraz bakarrik utzi diot (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- **Harremanak-irakaslearekiko jarrera:** Eta jolas honen azkeneko jarduera “linbo” izan da. Guztiak ezagutzen zuten eta primeran egin dute. Neska bati lotsa ematen zion bakarrik pasatzea, beraz, berarekin pasa naiz eta hortik aurrera bera bakarrik pasatzen egon da (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- **Harremanak-irakaslearekiko jarrera:** Hasieratik azkeneko saioa izango zela esan diet eta guztiak besarkada bat ematera gerturatu dira. Azkeneko saioa denez ondo pasatzera jatozela gogoratu diet eta jolas asko egingo ditugula (*Egunerokoa, 2022.04.30*).

### 5.3. Lidergotza

- **Lidergotza:** “*yo me voy a poner y tu te callas*” (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Lidergotza:** Haien artean zein harreman mota sortu diren oso nabaria da. Batzuk protagonistak eta liderrak izan nahi dira. Beraz, besteei aginduak ematen dizkiete eta jolasetan erabaki asko hartzen dituzte. Beste batzuk berriz, besteen aginteak entzuten eta betetzen dituzte, eta beste batzuk pasa egiten dute (*Egunerokoa, 2022.03.05*).
- **Lidergotza:** Bi talde sortu ditugu eta taldekatzeko beti denbora asko galtzen da. Guztiak kapitainak izan nahi dira eta bere taldea erabaki, beraz, aldi honetan taldeak nik egin ditut (*Egunerokoa, 2022.04.02*).

### 5.4. Intzidentzia kritikoak (gertaera, hartutako erabakia):

- **Intzidentzia kritikoak-gertaera:** Bi neska txanda berdinean koltxonetaren gainean jarri nahi ziren, bakarrik bat jarri ahal denean. Bien artean liskarra hasi da bata

txanda eskatuta zuelako eta bestea ezetz esaten zuen. Momentu batean neska batek besteari ostikada bat eman dio eta bestea negarrez hasi da (*Egunerokoa*, 2022.01.22).

- ***Intzidentzia kritikoak-hartutako erabakia:*** Berehala banandu ditut eta hitz egitera eramane ditut. Gertatu denaren inguruan hitz egiten egon gara, bakoitza bere perspektiba kontatzen eta nola sentitu diren adierazten. Ondoren, konponbide bat bilatzea erabaki dugu eta haien artean barkamena eskatu dute (*Egunerokoa*, 2022.01.22).
- ***Intzidentzia kritikoak-gertaera:*** Guztiek armiarma izan nahi zuten, beraz, hainbat alditan jolastu behar izan dugu (*Egunerokoa*, 2022.02.12).
- ***Intzidentzia kritikoak-hartutako erabakia:*** Ez dira guztiak armiarma izan baina askok bai, eta hurrengo jolas batean falta direnak harrapatzaileak izango direla adostu dugu (*Egunerokoa*, 2022.02.12).
- ***Intzidentzia kritikoak-gertaera:*** Egia da, momentu batean bi ikasle puxikari ematera joan direla eta batek bestea baino lehen eman dio. Puxikari ez diona eman asko haserretu da eta puxika eskuekin hartu du, jolasa geldituz. Puxika apurtuko zuela mehatxatu egin ditu. Gero bestearen kontra joaten saiatu da baina berehala gelditzea lortu dute (*Egunerokoa*, 2022.02.12).
- ***Intzidentzia kritikoak-hartutako erabakia:*** Berarekin hitz egiten egon naiz, haserretzeko ohitura izaten duelako eta dena indarrarekin konpontzen du (*Egunerokoa*, 2022.02.12).
- ***Intzidentzia kritikoak-gertaera:*** Momentu batean neska batek beste bati baloia oso azkar bota dio eta lurrera erori zaie. Eskuekin hartu ez duen neska haserretu egin da eta oso gaizki pasa diotela esan du. Besteak bera txarra dela esan dio eta horregatik ez duela hartu aurpegiratu dio. Biak irainak esaten hasi dira, eta gero batek bere kontra joango zelaren keinua egin du (*Egunerokoa*, 2022.02.26).
- ***Intzidentzia kritikoak-hartutako erabakia:*** Ezer ez gertatu baino lehen egoera gelditu dute eta zer gertatzen ari zen galdetu diet. Bakoitzak bere perspektiba azaldu dit eta besteak kulpa zuela esan dute. Beste hurrak ez zela inoren kulpa esan dute eta erortzea edo pase txar bat ematea normala dela esan dute. Azkenean, berriro saiatuko direla esan dute eta aldi honetan ez diotela besteari kulpa botako (*Egunerokoa*, 2022.02.26).

- **Intzidentzia kritikoak-gertaera:** Momentu batean, ikasle batek haserretu egin da bere indikazioak ez dituztelako ulertzen eta bera ondo egiten ari dela esanez. Horregatik momentu batean jolasetik atera da eta eskuetako gela hartu du jango zuela mehatxatu egin du: “me lo como me lo como”. Hasiera batean zurrupatu egin du bere eskua gelarekin eta ahal izan dudun momentuan kendu egin diot (*Egunerokoa, 2022.04.02*).
- **Intzidentzia kritikoak-hartutako erabakia:** Hori jatea oso txarra zela azaldu diot eta gero tripako mina izango zuela abisatu diot (*Egunerokoa, 2022.04.02*).
- **Intzidentzia kritikoak-gertaera:** Momentu batean, neska batek beste bat harrapatzera joan da eta pixka bat bultzatu dio, neskak gaizki hartu du eta tuntuna zela esan dio. Gainera, beraren kontra joateko keinua egin du baina ez da berarengana joan. Besteak nahi gabe egin duela esan dio eta bere tuntuna ez dela adierazi dio (*Egunerokoa, 2022.04.30*).
- **Intzidentzia kritikoak-hartutako erabakia:** Azkenean konpondu egin dute eta jolasten jarraitu dut (*Egunerokoa, 2022.04.30*).

## PLANIFIKAZIOA

### 5.5. Aspektu metodologikoak (arauak, diseinua, espazioa eta materiala):

- **Aspektu metodologikoak- arauak:** Arauen kontua ez dut kontuan izan, klaseetan zehar errespetatu behar diren arau batzuk argi izan behar dituzte, haien artean errespetua ez galtzeko eta dinamikak aurrera eramateko. Ezin dira klase baten haien artean jo eta irainak esan. Laburbilduz, errutina batzuk sortu behar dira, arau batzuk izan eta denboraren kudeaketa egokia egin (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Aspektu metodologikoak- arauak:** Beraz, arau berria jarri dut eta guztiek puxika ukitu behar dutela esan diet, puntu bat lortu ahal izateko (*Egunerokoa, 2022.02.12*).
- **Aspektu metodologikoak- arauak:** Arauak erabakitzen egon gara eta haientzat garrantzitsuak diren puntuak idatzi ditugu: besteak ez jo, besteak ez iraindu, materiala zaindu, besteak laguntzeko prest egon, taldean lan egin... Arau hauek beteko dituztela konpromisoa hartu dute eta klasean ondo ibiliko direla esan dute (*2022.02.26*).
- **Aspektu metodologikoak- arauak:** Dantzatzen eta korrika hasi dira musika entzuten zuten bitartean, beste batzuk uztail baten ondoan gelditzen ziren musika gelditzen baldin banuen hurbil egoteko. Hori ezin zela egin azaldu diet eta besteak

bezala mugitzen egon dira. Nahiko ondo egin dute jarduera eta arauak ondo ulertu dituzte (*Egunerokoa, 2022.04.02*).

- **Aspektu metodologikoak- arauak:** Hala ere, askotan tranpak egiten zituzten eta hitz egiten zuten: “que voyas para adelante”, “soy un ciego”, “aquí no hay ninguna pelota”, “¿eso que era?”... (*Egunerokoa, 2022.04.02*).
- **Aspektu metodologikoak-espazioa:** Espazioa uste nuen baino txikiagoa da baina gure jarduerak egiteko ez dago arazorik. Gainera, haurrak ezagutzen duten eremua da eta horrek konfiantza transmititzen du (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Aspektu metodologikoak-espazioa:** Gela txikia denez nahiko erraza egiten zaie eta kate sortzen hasi dira (*Egunerokoa, 2022.02.26*).
- **Aspektu metodologikoak-diseinua:** Jarraitzeko saio hauetan zer egingo dugun azaldu diet eta ondo pasatzeko etorri garela esan diet. Saioetan zehar jolas kooperatiboetan arituko garela esaterakoan zalantza asko izan dituzte eta horien inguruan hitz egiten egon gara. Bukatzean, lehenengo jolasa aurrera eramaten abian jarri gara (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Aspektu metodologikoak-diseinua:** Hurrengo jarduera azaldu diet, “baloi pasa”. Azaltzen egon naiz eta aldi berean nik egiten, azalpena argiago izateko. Jarraian haiek egiten hasi dira. Lehenengoetan gauza batzuk zuzentzen egon naiz baina gutxi gora behera ondo egiten hasi dira (*Egunerokoa, 2022.02.26*).
- **Aspektu metodologikoak-diseinua:** Uztailekin egingo duten lehenengo jarduera “guztiak batera” izango zela esan diet. Jarduera nolakoa den, zein material erabiliko ditugun...azaltzen egon naiz (*Egunerokoa, 2022.03.05*).
- **Aspektu metodologikoak-diseinua:** Lehenengo jarduera azaltzeko eguneroko borobila egin dugu eta haien astearen inguruan gauzak kontatu dizkirate (*Egunerokoa, 2022.04.02*).
- **Aspektu metodologikoak-diseinua:** Klaseak aurrera eramatea askoz zailagoa iruditu zait, ikasle bakoitzaren egoera oso desberdinak direlako eta gaitasun anitzak daude. Beraz, jarduerak guztiei egokitzea ezinezkoa izan da. Gainera, jarduera bakoitza egiteko denbora asko behar da eta uste duzun baino denbora gehiago galtzen da. Beraz, denboraren kudeaketa oso garrantzitsua da (*Egunerokoa, 2022.04.30*).



- **Aspektu metodologikoak- materiala:** Motibatuta adierazi dira koltxonetak erabili behar genituelako (Egunerokoa, 2022.01.22).
- **Aspektu metodologikoak-materiala:** Gaurko klasea puxikekin izango zela esan diet eta asko poztu egin dira (Egunerokoa, 2022.02.12).
- **Aspektu metodologikoak-materiala:** Saioa oso ondo joan da eta asko gustatu zaizkie egindako jolasak. sokarekin ekintza anitzak egin daitezke eta baliabide on bat dela konturatu naiz. Aldi berean, mina egitea oso erraza izan daiteke, adibidez, bi ikasle batera tira egitea, eskuekin indar asko egin, zartadak ematea... beraz, kontu handiz ibili behar gara ikasleak mina ez hartzeko eta materiala ondo erabiltzeko (Egunerokoa, 2022.03.26).
- **Aspektu metodologikoak-materiala:** Adreiluak erabiltzea gustatu zaie material berria zelako eta normalean erabiltzen duten materialetan ez direlako sartzen (Egunerokoa, 2022.04.30).

#### 5.6. Faktore erraztatzaileak

- **Faktore erraztatzaileak:** Ikasleen harrera ezin hobea dela konturatu naiz, jolasteko gogo handiak dituzte eta dinamika guztiak ondo iruditzen zaie (Egunerokoa, 2022.01.22).
- **Faktore erraztatzaileak:** “VENGA VENGA que tú puedes”, “eres la mejor! salta salta!”, “tu al ritmo que puedas tranquila”... (Egunerokoa, 2022.02.26).
- **Faktore erraztatzaileak:** Motibaturik adierazi dira musika jarriko dudalako eta hasteko gogoekin egon dira (Egunerokoa, 2022.03.05).
- **Faktore erraztatzaileak:** Gaitasun handiak erakutsi dute jarduera honetan, malgutasun handia dute. Denbora asko eman dugu hiru ekintza hauetan, oso pozik eta motibaturik ibili direlako (Egunerokoa, 2022.03.26).
- **Faktore erraztatzaileak:** Eguna ondo hasi da guztiak puntual iritsi direlako eta bere berokia utzi dute (Egunerokoa, 2022.04.02).

#### 5.7. Faktore oztopatzaileak

- **Faktore oztopatzaileak:** Baina ikasle bat haserretzeko ohitura izaten du eta jolas askotan molestutzen du, ez du kasurik egiten, beste jotzen saiatzen da... Honek klaseak askoz zailagoak bihurtzen ditu eta besteen ikaskuntza oztopatzen du (Egunerokoa, 2022.02.12).

- **Faktore oztopatzaileak:** Bestaldetik, beste ikasle baten parte hartzea sustatzea zaila izaten da. Beti lasai dago eta hitz egiteko gogo gutxirekin. Bakarrik gauzak antolatu nahi ditu eta bere kabuz aritu. Beraz, taldeko dinamiketan eta besteekin egotea zaila egiten zaio, ahal duen guztia sahiesten du (*Egunerokoa, 2022.02.12*).
- **Faktore oztopatzaileak:** Ikasle batek ez du ondo ulertu jolasa edo ez zuen parte hartu nahi, eta bera denbora guztian uztail batekin egon nahi zela esaten zuen. Gero jarduera egiten ari zirenean bere uztailan ezin zela inork sartu esaten zuen. Arrazoiak ez zuela ulertzeko denbora asko erabili dugu eta besteak berarekin haserretu dira (*Egunerokoa, 2022.03.05*).
- **Faktore oztopatzaileak:** Gaur bi ikasle oso berandu iritsi dira eta saioa hasteko denbora pila galdu dugu. Egoera honek, hasieratik jarduera guztiak ez genituela gauzatuko sentiarazi dit eta kezkatzen hasi naiz. Iritzi direnean txipa aldatzea erabaki dut eta ahal dugun guztia eta hoberen egitea proposatu dut (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- **Faktore oztopatzaileak:** Berotzen hasteko zezena jolasa azaldu diet, eskoletan asko gustatzen zaie jolasa dena. Jolasean zehar ondo ibili arren, bankuetan azkar igotzea pixka bat arriskutsua iruditu zait. Egia da, ez zaiela ezer gertatu baina denbora guztian tentsioan egon naiz, inork ez mina hartzeko (*Egunerokoa, 2022.04.30*).

### **5.8. Proposamen didaktikoa (zer planteatu dugun, ikasleen erantzunak)**

- **Proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak:** Dinamika aurrera eramatea oso zaila zela ikusi dut, hurrek ez zuten jolasa ondo ulertzen. Hala ere, oso ondo pasa dute, denbora guztian far egiten eta haien artean laguntzen (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun:** Saio hauetan jolas kooperatiboetan aritzen ari garela esan diet, haien burua kokatzeko eta zein ekintzetan gauden jakiteko (*Egunerokoa, 2022.02.12*).
- **Proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun:** Klasea hasi aurretik arau batzuk jarri behar genituela esan diet, haien arteko errespetua eta niregana errespetua ezin delako inoiz galdu (*Egunerokoa, 2022.02.26*).
- **Proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun:** Laugarren eguna denez, klasea ahal dugun lehen hastea helburu moduan pentsatu dut. Modu honetan, prestatuta

neuzkan jarduera guztiak egitera iristeko. Haur gehienak orduan iritsi dira eta berokia utzi dute. Hasieratik, lehenengo jarduera hasi behar genuela esan diet eta borobilean jarri behar zirela (*Egunerokoa, 2022.03.05*).

- **Proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak:** Gehiengoak kasu egin dute eta besteak 2 minutu korrika egin eta gero eseri egin dira. Beraz, beste egunetan baino lehenago hasia lortu dugu (*Egunerokoa, 2022.03.05*).
- **Proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun:** Bigarren jolasa *zapia* izango zela esan diet eta guztiek ezagutzen zuten. Hala ere, moldaketa txiki bat egingo genuela azaldu diet, kooperazioa lantzeko asmoz. Batzuetan binaka edo hirunaka atera beharko zirela eta bata bestearen gainean jarri (*Egunerokoa, 2022.04.02*).

### **ESPERIENTZIAK SORTUTAKO SENTIPENAK**

- **Esperientziak sortutako sentipenak- kezka eta zalantza:** Lehenengo eguna iritsi zen eta saioa praktikan eramateko momentua, egia da nahiko urduri nengoela eta zein egoeraren aurrean topatuko nintzela ez nekien (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Esperientziak sortutako sentipenak- kezka eta zalantza:** Lehenengo egunean ez nekien oso ondo zer aurkituko nuen eta hainbat beldurrekin joan nintzen baina saio honetarako pixka bat prestatuago sentitu naiz (*Egunerokoa, 2022.02.12*).
- **Esperientziak sortutako sentipenak- kezka eta zalantza:** Bestaldetik, pixka bat kezkatuta utzi nau autismoa duen ikasleak. Hasieran ez zuen jolastu nahi eta belarriak estaltzen zituen. Gainera, gauzak esaten zituen baina ez zitzaion ulertzen, askotan bera bakarrik hitz egiten du eta bere munduan dagoela dirudi. Jolas guztietan parte hartzerantz animatu diot eta ondo pasatuko duela aipatu diot baina lehenengo jolasetan ez du ezertarako balio izan. Azkenean, "linbo" jolasean parte hartu du eta ondo ibili da. Hala ere, momentu horretan laguntzeko baliabide gabe ikusi naiz eta ez nekiela egoera nola bideratu. Haurrari laguntzeko ez nekien zer egin behar nuen eta ez nekien laguntzen nengoen edo kaltetzen. Gutxienez azkenean parte hartu du eta pozik bukatu du saioa (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- **Esperientziak sortutako sentipenak- hausnarketak:** Momentu honetan zein zaila izango zen saioak aurrera eramatea konturatu naiz (*Egunerokoa, 2022.01.22*).
- **Esperientziak sortutako sentipenak- hausnarketa:** bi nesken arteko liskarra kezkatuta utzi dit eta egunero liskar horiek egongo diren inguruan hausnartu dut.

Liskarra konpontzeko zer egin behar nuen ez nekien eta haien arazoa konpontzea ezinezko iruditu zait momentu batean (*Egunerokoa, 2022.01.22*).

- ***Esperientziak sortutako sentipenak- hausnarketa:*** Saio honetan gauzak asko hobetu egin direla nabaritzen dut, hainbat kontzeptu berri ulertzen ari direlako. Haien arteko harremana hobetzen doa eta haien arteko gatazkak azkarrago konpontzen ditugu. Bestaldetik, denboraren aldetik, ezinezkoa egiten zait prestatutako guztia aurrera eramatea. Egiten ditugun jarduerak ondo egitea nahiago dut eta batzuk egin gabe uztea. Bestela oso azkar egin beharko genituzke eta ez lukete hainbeste ikasiko (*Egunerokoa 2002.03.05*).
- ***Esperientziak sortutako sentipenak- hausnarketa:*** Haien adinetarako aproposa dela ikusi dut eta gustuko izan dutela (*Egunerokoa, 2022.03.26*).
- ***Esperientziak sortutako sentipenak- hausnarketa:*** Egia da, barre asko egin dugula eta ondo pasa dugu baina ez da jolasa atera eta desastre bat izan da (*Egunerokoa, 2022.04.02*).
- ***Esperientziak sortutako sentipenak- hausnarketa:*** Klase zoragarriak izan dira eta haiengandik asko ikasi dudala ikusi dut. Bizitza ikusteko beste perspektiba bat erakutsi didate eta haien maitasuna zein poztasuna transmititu didate. Ezgaitasun bat izan arren, bizitzeko gogo izugarriak adierazten dituzte eta beti alde ona ikusten dute (*Egunerokoa, 2022.04.30*).
- ***Esperientziak sortutako sentipenak- hausnarketa:*** Bestaldetik, ikasle bakoitzaren gaitasunetan sinestea ezinbestekoa da, gure animuekin konfiantza handia lortzen dute eta motibatuagoak lan egiten dute. Beraz, gure animua transmititu behar diegu denbora guztian eta maitasun handia eman. Haiek denbora guztian maitasuna adierazten dute eta baldintzarik gabekoa izaten da (*Egunerokoa, 2022.04.30*).
- ***Esperientziak sortutako sentipenak:*** Sentsazio positiboak transmititu didate lehenengo momentutik, nirekin interakzio handia bilatzen dutelako (*Egunerokoa, 2022.01.22*).